

1/2025 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, MARTXOAREN 20KOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEKOA

(Diru-kopuruak eta idazketa azkenengoz eguneratuta abenduaren 23ko 7/2025 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen)

ZIOEN AZALPENA

I

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen azken xedapenetako bosgarrenak baimena ematen dio Jaurlaritzari, Legea indarrean jarri eta urtebeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren testuategina egin eta onar dadin.

Baimenaren barruan sartzen da batu beharreko lege-testuak erregularizatzea, argitzea eta harmonizatzea, bai, halaber, beharrezkoak diren terminologia-egokitzapenak egitea eta sistematizatzea -bereziki hizkuntza inklusiboa behar bezala erabiltzeari dagokionez-, baita proiektuaren euskarazko bertsioa Euskaltzaindiak onartutako hizkuntza-arauetara egokitzea ere.

Manu hori betetzeko eta baimen hori erabiliz, legegintzako dekretu hau egiten da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tase eta Prezio Publikoen Legearen testuategina onartzeko.

II

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Ariel eta Herri Prezioei buruzko maiatzaren 31ko 3/1990 Legean aipatu zen, dagoeneko, egoki zela tasak eta prezio publikoak testu bakar batean arautzea diru-sarrera publikoen modalitate biei buruzko oinarritzko printzipioak ezartzeko eta tasa guztiak banan-banan arautzeko. Orduan arautu ziren, lehenengo aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasak eta prezio publikoak lege-testu bakar batean.

Lege horrek arrazionaltasuna sartu zuen diru-sarrera publikoen sektore honen arauketan, ordura arte aski heterogeneoa, konplexua eta barreiatua baitzen araudiari zegokionez, eta bete-betean gauzatu zituen lortu beharreko xedeak, legea aldarrikatu zen unean indarrean zeuden tasak lege-mailako arau batean berrantolatuta, homogeneizatuta eta bateratuta.

Helburuak, alabaina, ez ziren mugatu tasen koadroa bateratzera, asmo handiagoko xedeak ere bilatu baitziren. Tase eta prezio publikoen kontzeptuak zehaztu ziren, eta prezio horiek exijitzeko araubidea finkatu; tasak erregularitzen dituzten arauak tributuen arloan oro har bete behar diren printzipioetara egokitu ziren, eta arau argiak eta aplikatzen errazak ezarri ziren tasen kudeaketan, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzeko. Arau horien barnean, likidazioaren eskakizun formalak eta errekurritzeko bideak finkatzeaz batera, zergadunaren bermeak ere jasotzen ziren.

Dena dela, Legea zenbait urtez indarrean egon ondoren, gorabeherak izan ziren inguruabarretan, eta komenigarri ikusi zen beste lege bat onartzea, izandako esperientzia aprobetxatuz esparru arautzaile berri bat zehazteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 9ko 13/1998 Legeak, aurreko legean ezarritako helburuetan sakonduz, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 Epaia egokitu zituen tasa eta prezio publikoen tributu-kontzeptuak, eta, diru-sarrera publiko horien edukiri buruzko hausnarketa-prozesu orokor baten barruan, orduan indarrean zeuden tasetako hainbaten araudia aldatu zuen, tasa berriak ezarri zituen eta beste batzuk kendu.

Orobat, tributuen arloan oro har bete beharreko printzipioak ezarri ziren, hala nola legezkotasunaren printzipioa eta tributu-arloko lege-erreserba, aurrekontuen unibertsaltasunaren printzipioa, loturarik ezaren printzipioa eta kutxa bakarraren printzipioa, bai, halaber, finantza-nahikotasunaren printzipioa eta gaitasun ekonomikoaren printzipioa.

Aurreko arauketarekin gertatu zen bezala, 13/1998 Legea indarrean egon zen bitartean zenbait aldaketa gertatu ziren, bai Administrazioaren jardueran, bai Autonomia Erkidegoko eta Estatuko araudietan, eta, aldaketok garrantzitsuak zirenez, komenigarri iritzi zen lege-testua berriro aldatzea.

Beraz, zenbait aldaketa egin eta tasa berriak sartu ziren lege hauek baliatuta: Euskal Autonomia Erkidegoko 2000. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 29ko 4/1999 Legea, Merkataritza Jardueraren 7/1994 Legea aldatzen duen azaroaren 10eko 7/2000 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2003. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 8/2002 Legea. Aldaketa horiekin batera, euroari egokitu zitzaizkion tasen zenbatekoak.

Berritasun garrantzitsuenak -inguruabar horietara egokitu beharrak ekarriak- irailaren 29ko 3/2006 Legearen bitartez onartu ziren -Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea aldatzekoa berau-, hartara diru-sarrera publiko horiek modu eraginkorrago batean kudeatu ahal izateko.

Hortaz, berriz definitu zen tasaren kontzeptua, jurisprudentziaren azken erabakietara egokituta, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak lehenago egokitu zuen bezala. Preskripzio-gaietan, epea aldatu eta lau urtekoa finkatu zen, ezarpenaren arauketa osoago bat xedatuta hartara. Bitarteko telematikoak erabiltzeko aukera ere aztertu zen tributu-zorra ordaintzeko, eta araudi berri bat ezarri zen aitorpena epez kanpo eta aurretiazko errekerimendurik gabe egiteagatik ezarritako errekarquetarako.

Gainera, Eusko Legebiltzarraren urtarilaren 23ko 1/2002 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2003. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 8/2002 Legeak Autonomia Erkidegoko zenbait tasaren esparruan sortutako egoera argitu zen, tributua osatzen duten elementuak behin betiko zehazteko.

Bestalde, tasa berriak sartu eta beste batzuk kendu ziren, eta artikuluko batzuen edukia aldatu zen. Aldi berean, Euskadi Informazio Gizartean Planean jasotako gomendioei jarraituz eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritakoa betetzeko, azken xedapenetako laugarrena aldatu zen, Eusko Jaurlaritzaren web-orrian Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu eguneratua sartzeko, arauen aplikazio-eremuan hedapen handiagoa izan zezan.

Geroago, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Legearen bitartez, nekazaritza ekologikoaren produkzio-araubidea kontrolatzeko zerbitzuengatik ezarritako tasa kendu zen, nahiz eta indarrean jarraitu harik eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko kideak izendatu arte.

Ondoren, ekainaren 22ko 5/2007 Legearen bidez -Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legea aldatzekoa berau-, beste apartatu bat gehitu zen, hartan jasotzeko iragarkiak presaz txertatzeari buruzko arloa.

Tasen eta prezio publikoen eremuaren arauketa harmonizatu eta argitu beharrak bultzatuta, berrantolatu egin ziren tasak eta prezio publikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez. Horrela, aldatu egin zen Legearen II. eta III. tituluen ordena, eta prezio publikoei buruzkoa II. titulu birkokatu zen, tasa bakoitzaren araudi espezifiko bakoitza baino lehen.

Horren helburua zen, tasa berriak gehitu ahala, artikuluko horiek berriro zenbakitu beharrik ez izatea, haien edukia aldatu ez.

Halaber, tasak sailkatzeko beste modu bat ezarri zen; izan ere, sailen arabera sailkapena zaharkituta geratu zen, sailek izena aldatu eta beren egitekoak eta jarduketara-erlortu ahala. Sailkapen berriak irizpide objektibo-materialak hartzen zituen oinarritzat, eta, hala, titulu berriak sortu zituen, bat erlortu berri bakoitzeko.

Aipatutako 1/2007 Legegintzako Dekretua onartu zenetik, Tasen Legeak aldaketak izan ditu, garrantzi handikoak zein txikiagokoak, eta aldaketa horiek justifikatzen dute testu batekin berri bat onartzea. Aldaketen artean, hauek dira aipagarrienak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoek buruzko Legea aldatzen duen abenduaren 22ko 5/2011 Legeak ordura arte indarrean egon zen araudia egokitu zuen egindako aldaketetara -zehazki, Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legeak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu batekin onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan sartutako aldaketetara-, hartara Administrazio orokorraren eta instituzionalaren egitura berriak bat egin zezan tasen eta prezio publikoen erregulazioarekin.

Lege horretan, Aseguru Bitartekari Tituludunaren Diploma egiteagatik ezarritako tasa eta hondakin arriskutsuei buruzko material informatikoa eta kontrol- eta jarraipen-dokumentuak entregatzeagatik ezarritakoa kendu eta beste bi tasa jaso ziren: bilaketa-, erreskate- edo salbamendu-zerbitzuak emateagatik ezarritako tasa eta Europako etiketa ekologikoa eman eta erabiltzeagatik ezarritakoa.

- Bizialdi Osoko Ikuskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeak tasa bat ezarri zuen, laneko esperientziaren bidez edo prestakuntza-bidez ez-formalen bitartez lortutako konpetentzia profesionalak egiaztatzeko.

- Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak azken xedapenetako lehenengoan jaso zuen lurzoruaren kutsadura saihestu eta garbitzeko jarduketei dagokien tasa.

- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak tasa bat ezarri zuen, Ertzaintzak ikuskizunetan edo aisialdiko jardueretan ikusleen edo erabiltzaileen segurtasuna babesteko zerbitzu bereziak emateko. Hala, haxe ezarri zen tasaren zerga-egitatetzat: zerbitzu zehatz batzuk ematea, onuragarriak direnak bereziki pertsona edo entitate jakinentzat edo, onuragarriak izan gabe ere, zuzenean eragiten dietenak pertsona edo entitate jakinei, betiere, azkeneko kasu horretan, Ertzaintzaren lana pertsona edo entitate horiek eragindakoa bada, zuzenean edo zeharka.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legeak portuko tasei buruzko arauketaren berrikuspen orokorra egin zuen; hala, erabat birdefinitu eta berregituratu zituen tasa horiek, eta, horretarako, azken xedapenetako lehenengoan aldatu egin zuen Tasa eta Prezio Publikoek buruzko Legearen testu batekin jasotako arauketa (irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako testu batekin).

- Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legearen azken xedapenetako bigarrenak Tasen Legean sartu zituen Euskadiko Kirol Portuak zuzenbidez pribatuko ente publikoaren izaera publiko ez-tributarioa duten ondare-prestazioak (tarifak).

III

Legegintzako dekretu honen bidez onartutako testuak orain arteko egiturari eusten dio, eta artikuluek berriz zenbakitu dira. Tasa bakoitzaren erregulazioari dagokionez, kapitulu bakoitzeko artikuluek legeari bertan aurreikusitako eskema betetzen dute, funtsezko elementuen definizioari dagokionez.

Bestalde, arau-erreferentziak eguneratu dira eta euskarazko termino batzuen erabilera harmonizatu da, Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onartutako Herri-ogasunaren hiztegiari egokituz. IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak gainbegiratu eta zuzendu du Legegintzako Dekretuaren euskarazko testuaren erregularizazioa eta harmonizazioa, bi bertsioen arteko baliokidetasuna bermatzeko.

Era berean, testu arautzailea genero-hizkuntzaren ikuspegitik aztertu eta, hala zegokionean, zuzendu egin da.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik eta Gobernu Kontseiluak 2025eko otsailaren 18an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoen Legearen testuategia onartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen azken xedapenetako bosgarrenean ezarritakoarekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoen Legearen testuategia onartzen da (jarraian erantsita dator).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Beste xedapen batzuetan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testuategia onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuari egiten zaizkion arau-erreferentziak direla-eta, ulertuko da legegintzako dekretu honen bidez onartutako testuategiaren kasu kasuko manuei dagozkiela.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Legegintzako dekretu honen bidez onartzen den testuategia indarrean jartzen denean, indargabetuta geratuko dira bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testuategia onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretua, bai legegintzako dekretu berriaren ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Legegintzako dekretu hau eta beronen bidez onartzen den testuategia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN LEGEAREN TESTU BATEGINA

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

1. Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak eta instituzionalak exijitutako tasen eta prezio publikoen araubide juridikoa arautzea.
2. Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek zuzenbide pribatuko arauari jarraituz egiten dituzten jardueretatik eta ematen dituzten zerbitzuetatik eratorritako diru-sarrerak.
3. Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera obra erabiltzeagatik edo zerbitzua jasotzeagatik erabiltzaileek obra- eta zerbitzu-emakidadunei ordaintzen dizkieten tarifak, izaera publiko ez-tributarioa duten ondare-prestazioak baitira.

2. artikulua. Aurrekontu-neurriak.

1. Tasetatik eta prezio publikoetatik sortzen diren diru-sarreraren aurrekontu-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia osatzen duten diru-sarreretan aplikatzekoa den araubide bera izango da.
2. Lege honetan arautzen diren diru-sarreraren bitartez eskuratutako baliabideak Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrean agertuko dira, diru-sarreraren egoera-orrian, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren kutxa eta kontuetan sartuko dira.
3. Baliabide horien etekina dagokion diru-sarreraren aurrekontuari atxikiko zaio oso-osorik, eta ezingo da inolako zenbatekorik kendu edo murriztu, 10. artikuluan xedatzen den kasuan izan ezik; etekina behar orokorrean erantzuteko erabiliko da, non eta baliabide horietako batzuk ez diren xede jakinetarako atxikitzen, betiere salbuespenez eta legeaz hala ezarrita.
4. Ogasunaren arloan eskumena duen sailaren buruak Jaurilaritzari edo dagokion arloko sailaren buruari proposatu ahalko dio tasak edo prezio publikoak ezartzea, bai eta horiek eguneratzea ere, hala dagokionean.

3. artikulua. Erantzukizunak.

1. Agintariek, funtzionario publikoek, agenteek edo horien kidekoek diziplinazko falta oso astuna egingo dute, baldin eta, beren borondatez eta errudun izanda, tasa edo prezio publiko bat bidegabeki eskatzen badute edo ezarritakoa baino diru kopuru handiagoa eskatzen badute. Gainera, beste arlo batzuetako erantzukizunak ere eskatu ahal izango zaizkie halako jarduketak egiteagatik.
2. Era horretara jardunda, beren ebazpenekin edo egintzekin lege hau eta arlo hau arautzen duten gainerako arauak urratzen badituzte, aurreko erantzukizun horretaz gain, kalte-ordainak ordaindu beharko dizkiote Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari, eragindako kaltearengatik.

I. TITULUA. TASAK. XEDAPEN KOMUNAK

I. KAPITULUA. KONTZEPTUA, PRINTZPIOAK ETA ELEMENTUAK

Lehenengo atala. Kontzeptua

4. artikulua. Tasaren kontzeptua.

Tasak tributu mota bat dira, zerga-egitaterat hauek izaten dituztenak: jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitea, edota tributu-betebeharpekoari bideratzen eta hari

eragiten edo mesede egiten dioten jarduerak egitea edo zerbitzuak ematea zuzenbide publikoko araubidean, betiere zerbitzu edo jarduera horiek ez badira tributu-betebeharpekoek beren borondatez eskatutakoak edo hartzekoak edo ez baditu sektore pribatuak ematen edo gauzatzen.

Bigarren atala. Printzipioak

5. artikulua. Legezketasun-printzipioa.

Legebiltzarrak emandako legearen bidez bakarrik sortu eta arautu daitezke tasak. Legeak tasen funtsezko elementuak ezarri beharko ditu.

6. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

Arau hauen arabera ezarriko dira tasak:

- a) Lege hau edo tasa bakoitzaren berezko legea.
- b) Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea.
- c) Lege horiek garatzeko emandako erregelamendu-arauak.

7. artikulua. Baliokidetasun-printzipioa.

Tasaren zerga-egitatea zer zerbitzu edo jarduerari dagokion, zerbitzu edo jarduera horren kostua berdintzera jo behar da tasaren bidez.

8. artikulua. Eguneratzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeari, tasen arauketa aldatu ahal izango da.

9. artikulua. Gaitasun ekonomikoaren printzipioa.

Tasak ezartzerakoan, kontuan hartu beharko da zer-nolako gaitasun ekonomikoa duten tasok ordaindu behar dituzten pertsonak, baldin eta tributuaren ezaugarriek horretarako aukera ematen badute.

10. artikulua. Tasak itzultzea.

Baldin eta subjektu pasiboari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik tasaren zerga-egitatea gauzatzen ez bada, tasaren zenbatekoa itzuliko zaio.

Hirugarren atala. Tasaren funtsezko elementuak

11. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasak ezarri ahal izango dira jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiten denean, edo zerbitzu edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean ematen edo egiten direnean, hala nola:

- a) Administrazioaren edozein eratako lizentziak, oniritziak, matrikulak edo baimenak izapidetzean edo egitean.
- b) Interesdunak eskaturik ziurtagiriak edo agiriak egitean.
- c) Liburuak legeztatzean edo zigilatzean.
- d) Jarduketa tekniko eta fakultatibo hauek egitean: zaintza, zuzendaritza, ikuskapena, ikerketa, azterlanak, txostenak, aholkularitza, egiaztapenak, araketak edo prospekzioak.
- e) Proiektuak aztertzean, egiaztapenak eta erkatzeak egitean, saiakuntzak eta homologazioak egitean.
- f) Balorazioak eta tasazioak egitean.

- g) Erregistro ofizial eta publikoetan inskripzioak eta oharra idaztean.
- h) Zerbitzu akademikoak eta osagarriak ematean.
- i) Portu eta aireportuetako zerbitzuak ematean.
- j) Osasun-zerbitzuak ematean.
- k) Orotariko zerbitzu edo jarduerak egitean, pertsona zehatzei zuzenduak badaude edo pertsona horientzat eragina edo anura badute, edo haiek zuzenean nahiz zeharka eragin badituzte.

12. artikulua. Lurraldetasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek emandako zerbitzu edo egindako jarduera publikoen tasei ezarriko zaie lege hau, zerbitzu eta jarduera horiek nonahi eman edo egiten direla ere.

13. artikulua. Sortzapena.

1. Tasaren sortzapena inguruabar hauetan izango da, betiere zerga-egitatearen izaeraren arabera:
 - a) Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziko emakida-, baimen- edo lagapen-tituluak ematen direnean.
Kostu-bidezko erabilera-lagapena edo emakida indarrean duten hurrengo urte-aldietan, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean izango da tasaren sortzapena.
 - b) Zerga-egitate diren zerbitzu edo jarduerak ematen edo gauzatzen direnean.

2. Hala ere, dena delako jarduketa aldeztu aurretik eskaera eginda gauzatzekoa bada, tasa aurretiaz ordaintzeko exijitu daiteke; hain zuzen, eskaera aurkezten denean.

Administrazio-jarduketa hori burutzen ez bada eta arrazoia ezin bazaio subjektu pasiboari egotzi, itzuli egingo da tasaren zenbatekoa.

14. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Tasen subjektu pasiboak dira jabari publikoaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren onuradunak (pertsona fisikoak zein juridikoak), edo zerga-egitate diren zerbitzu edo jarduera publikoen eragina edo anura jasotzen dutenak -dela berek zuzenean edo dela beren ondasunetan-.
2. Hala badagokio, hauek ere tasen subjektu pasibotzat joko dira: jarauntsi banatugabeak, ondasun-erkidegoak eta bestelako entitate batzuk, baldin eta nortasun juridikorik izan ez arren zergapetu daitezkeen unitate ekonomikoak eta ondare bereziak osatzen badituzte.
3. Tasa bakoitzaren berariazko legeak zergadunaren ordezkioak izendatu ahal izango ditu subjektu pasibo gisa, zerga-egitatearen ezaugarriak direla-eta komenigarria bada.
4. Zerga-egitatean bi onuradunek edo gehiagok esku hartzen badute, erantzule solidario izango dira guztiak, non eta tasa bakoitza arautzen duen arauak ez duen berariaz besterik xedatzen.

15. artikulua. Erantzuleak.

1. Tasa bakoitzaren berariazko legeak tasaren zenbatekoaren erantzule solidariotzat edo subsidiariotzat jo ahal izango ditu prozeduran interesdun diren beste pertsona batzuk.
2. Etxebizitzak, pabiloiak, lokalak edo oro har eraikinak okupatzen edo erabiltzen dituztenei onura dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan, eraikin horien jabeak izango dira erantzule subsidiarioak.

16. artikulua. Salbuespenak eta hobariak.

1. Lege honetan edo beste batzuetan bestelakorik agindu ezean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoa, Estatua eta gainerako ente publikoak -lurraldekoak nahiz instituzionalak- salbuetsita egongo dira tasak ordaintzetik, betiere tasetan elkarrekikotasuna badago.

2. Lege batek agintzen badu, gainerako subjektu pasiboak ere tasatik salbuetsita geratuko dira edo tasa ordaintzeko hobaria izango dute, zerga-egitatearen ezaugarrien arabera edo subjektu pasiboen izaeraren arabera.

17. artikulua. Tasaren elementu kuantitatiboak.

1. Jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobeitxamendu berezia egiteagatik ezarritako tasen zenbatekoak muga hau izango du guztizko kostutzat: dagokion merkatu-balioa edo eragindako onuraren araberrako balioa.

Meatze edo hidrokarburoetarako baimen edo emakiden kasuan, eskubidearen xede den azalera hartuko da kontuan.

2. Zerbitzu bat emateagatik edo jarduera bat egiteagatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoak, guztira, ezingo du gainditu zerbitzu edo jarduera horren benetako kostua edo aurreikusitako kostua, ez eta, bestela, jasotako prestazioaren balioa ere.

Zenbateko hori zehazteko, zuzeneko kostuak eta zeharkakoak hartuko dira kontuan, hauek ere barnean direla: finantza-kostuak, ibilgetuaren amortizazioarenak eta, hala badagokio, tasa eragin duen zerbitzu edo jarduera hori mantendu eta arrazoizko era batean garatuko dela bermatzeko kostuak; hori guztia, zeinahi dela ere zerbitzu horiek ordaintzeko baliatzen den aurrekontua. Kontuan hartuko da beti subjektu pasiboaren jarduketek, jarduerak edo zerbitzuek zer-nolako kostu sozialak edo onura sozialak dakartzaten, tasaren zenbatekoa tasaren onura sozialaren kontzeptura hurbilarazteko.

3. Tributu-kuota prozedura hauetako batez ezar daiteke: kopuru finko bat izendatu daiteke kuotatzat; zerga-oinarritzat balioko duten elementu kuantitatiboak aplikatzeko zaien karga-tasa baten arabera ezar daiteke; edo bi prozedura horiek erabil daitezke, batera.

4. Erabilera pribatiboaren edo aprobeitxamendu bereziaren ondorioz jabari publikoa suntsitzen edo hondatzen bada eta suntsitze edo hondamen hori aski neurri handikoa eta tasaren zenbatekoa zehazteko arauetan aurreikusi gabea bada, onuradunak konponketaren edo berreraikuntzaren gastu guzti-guztiak ordaindu beharko ditu. Betebehar horrek ez du kentzen tasa ordaintzeko betebeharra. Kalteak ezin konponduzkoak badira, suntsitutako ondasunen balioaren adinakoa edo ondasunei eragindako hondamenaren zenbatekoaren adinakoa izango da kalte-ordaina.

II. KAPITULUA. TASEN KUDEAKETA ETA LIKIDAZIOA

18. artikulua. Kudeaketa, ikuskapena eta kontu-hartzailatza.

1. Tasak kudeatu eta likidatzea sail, organismo autonomo eta zuzenbide pribatuko ente publikoei dagokie, tasaren sortzapena eragiten duen zerbitzua eman edo jarduera egiten duten heinean.

2. Ogasunaren arloan eskumena duen sailari dagokio tasen kudeaketa, likidazioa eta bilketa zaindu eta kontrolatzea; hari dagokio, orobat, tasen finantza- eta tributu-arloko ikuskapena, premiamendubideko diru-bilketa eta kontabilitate-arloko kontrola eta fiskalizazioa.

19. artikulua. Likidazioa.

Tasaren kudeaketa, baldin eta tasa autolikidatzea ez badago aurreikusita, honela hasiko da: Administrazioak likidazioa egingo du ofizioz, tasaren sortzapen-unean, edo subjektu pasiboak eskaturik, eskaera egiten duen unean. Likidazioan, datu hauek agertu beharko dira beti: zein arau juridikoren babespean egiten den; zein diren likidazioaren kontzeptua, zerga-oinarria eta karga-tasa, hala badagokio; zenbatekoa den kuota -dela finkoa, dela aldagarria-; nor den subjektu pasiboa; diru-sarrera non, zein eperen barruan eta nola egin behar den, eta likidazioaren kontra zein errekurtso aurkeztu daitezkeen, espresuki adierazita zein epetan aurkeztu daitezkeen eta zein organok duten ebazteko eskumena. Hori guztia tasaren organo likidatzailearen erantzukizuna izango da.

20. artikulua. Autolikidazioak.

Tasen subjektu pasiboek tributu-autolikidazioaren eragiketak egin behar dituzte, baita ondoriozko tributu-zorraren ordainketa ere, hala lege honetan zehaztutako kasuetan nola erregelamenduz zehaztuko direnetan.

21. artikulua. Ordainketa.

1. Tasak, oro har, sortzapearen unean ordaindu beharko dira, non eta dena delako tasaren berezko araudian ez den ordaintzeko borondatezko epe zehatzik ezartzen.

2. Tasak eskudirutan ordainduko dira, ondoren aipatzen diren bitartekoetako bat erabiliz eta, betiere, bitarteko horietako bakoitzerako erregelamenduz ezartzen diren eskakizun eta baldintzak betez:

- a) Legezko dirua.
- b) Txekoa.
- c) Kreditu- edo zordunketa-txartelak.
- d) Banku-transferentzia.
- d) Banku-helbideratzea.
- e) Ogasunaren arloan eskumena duen sailak baimentzen duen beste edozein bitarteko.

3. Ez da onartuko beste administrazio publikoren batek jaulkitako efektu tinbredunen edo ordainketa-agirien bidez ordaintzea tasak.

4. Ogasunaren arloan eskumena duen sailak baimena eman dezake aurreko 2. apartatuko e), d) eta e) letretan aipatzen diren ordainketa moduetan bide telematikoa erabiltzeko. Horretarako, teknika eta bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoa erabiliz ordaintzeko eskakizun eta baldintzak arautuko dira.

22. artikulua. Diru-bilketa.

1. Borondatez ordaintzeko epea amaitu eta artean tributu-zorra ordaindu gabe badago, epe exekutiboari ekingo zaio.

2. Hala ere, borondatez ordaintzeko epeaz kanpo egiten diren ordainketetan, berandutze-interesa ordaindu beharko da.

Berandutze-interesa eskatuko da, era berean, egintzaren betearazpena eten egiten bada eta ordainketa era batera edo bestera geroratu, zatikatu eta luzatu egiten bada.

3. Errekargu hauek ordaindu beharko dira aurretiazko errekerimendurik gabe epez kanpo aurkeztutako aitorpenengatik:

- a) Aitorpena aurkezteko eta diru-sarrera egiteko ezarritako epea igaro eta hurrengo hiru hilabeteen barruan aurkezten bada autolikidazioa edo aitorpena, errekargua % 5ekoa izango da, kanpoan utzita berandutze-interesak eta zehapenak, halakorik ezarri bada.
- b) Aitorpena aurkezteko eta diru-sarrera egiteko ezarritako epea igaro eta laugarren eta seigarren hilabeteen artean aurkezten bada autolikidazioa edo aitorpena, errekargua % 10ekoa izango da, kanpoan utzita berandutze-interesak eta zehapenak, halakorik ezarri bada.
- c) Aitorpena aurkezteko eta diru-sarrera egiteko ezarritako epea igaro eta zazpigarren eta hamabigarren hilabeteen artean aurkezten bada autolikidazioa edo aitorpena, errekargua % 15ekoa izango da, kanpoan utzita berandutze-interesak eta zehapenak, halakorik ezarri bada.

Aurreko a), b) eta c) letretan aipatzen diren errekarguak kalkulatzeko, autolikidazioaren ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoa edo epez kanpoko aitorpenen ondoriozko likidazioaren zenbatekoa erabiliiko da, eta kanpoan utziko dira autolikidazioa edo aitorpena aurkeztu arte sortzapea izan duten berandutze-interesak eta zehapenak, halakorik ezarri bada.

- d) Aurkezpenerako ezarrita dagoen epea bukatu eta 12 hilabete igaro ondoren egiten bada, errekargua % 20koa izango da, zehapenak kontuan izan gabe, halakorik ezarri bada. Kasu

horietan, denbora-tarte honi dagozkion berandutze-interesak eskatuko dira: aurkezpena egiteko ezarritako epea amaitu ondorengo 12 hilabeteen amaierako egunaren biharamunetik hasi eta autolikidazioa edo aitorpena aurkeztu arteko denbora.

2. Tasa ordaindu behar dutenek epez kanpoko autolikidazioa aurkeztearekin batera ez badute diru-sarrera egiten eta ordainketa atzeratzeko, zatikatzeko edo konpentsatzeko eskabiderik ere ez badute egiten, 3. apartatuan aipatzen diren errekarquak eta berandutze-interesak eskatuko zaizkie epe exekutiborako errekarquekin eta berandutze-intereseekin balera.

3. Aurretiazko errekerimendurik gabe epez kanpo aurkeztutako aitorpenen likidazioen kasuan, ez da berandutze-interesik eskatuko aitorpena aurkeztu zenetik borondatezko ordainketarako epea amaitu arte igarotako aldiarengatik. Dena den, horrek ez die eragingo aitorpena epez kanpo aurkezteagatik eskatzekoak diren errekarquai eta interesei.

23. artikulua. Kontsignazioa eta fidantzamendua.

Tasaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren alde kontsignatzeak edo tasa fidantzatzeak ordainketaren ondorio berbera izango dute, desadostasuna badago tasaren egokitasunaz edo zenbatekoaz. Ordaintzeko betebeharra duenak ez badu frogatzen lege ezarritako epearen barruan aurkeztu duela errekurso egokia, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian sartuko dira behin betiko bai kontsignatutako diru-zenbatekoak, bai fidantzan emandakoak.

24. artikulua. Preskripzioa.

1. Tasen arloko eskubide hauek lau urteren buruan preskribatuko dute:

- a) Administrazioak duen eskubidea tasaren tributu-zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko.
- b) Administrazioak duen eskubidea likidatutako eta autolikidatutako tributu-zorren ordainketa eskatzeko.
- c) Administrazioak duen eskubidea tributu-zehapenak ezartzeko.
- d) Jarduketa hauek eskatzeko eskubidea: diru-sarrera bidegabeak itzultzea (lege honen ondorioz sortutako itzulketak) eta bermeen kostua itzultzea.
- e) Jarduketa hauek lortzeko eskubidea: diru-sarrera bidegabeak itzultzea (lege honen ondorioz sortutako itzulketak) eta bermeen kostua itzultzea.

2. Aurreko apartatuan zehazten diren kasuetan, preskripzio-epea arau hauen arabera hasiko da kontatzen:

- a) kasuan, aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko arauzko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) kasuan, borondatez ordaintzeko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera, artikulua honen 3. apartatuan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- c) kasuan, tributu-arloko arau-hausteak egin ziren une berberetik.
- d) kasuan, diru-sarrera bidegabea egin eta hurrengo egunetik edo autolikidazioa aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera, baldin eta diru-sarrera bidegabea epe horren barruan egin bazen; edo aurkaratutako egintza guztiz ala hein batean bidegabetzat jotzen duen epaia edo administrazio-ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera.
- e) kasuan, diru-sarrera bidegabeak edo bermeen kostua itzultzeko eskubidea aitortzen duen erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

3. Zordun nagusiak bere borondatez ordaintzeko epea bukatu ondoko egunetik hasiko da kontatzen erantzule solidarioei ordainketa eskatzeko preskripzio-epea.

Erantzule subsidiarioen kasuan, zordun nagusiari edo erantzule solidarioetako edozeini tasak biltzeko azken jarduketaren jakinarazpena egin zitzaionetik hasiko da kontatzen preskripzio-epea.

4. Preskripzio-epeak etetea.

- A) Artikulu honen 1. apartatuko a) letrak aipatzen duen eskubidearen preskripzio-epea eten egingo da, baldin eta:
- a) Administrazioak ekintzaren bat egiten badu tributuz-betebeharraren elementu guztiak edo horietako batzuk onartu, erregularizatu, egiaztatu, ikuskatu, ziurtatu edo likidatzeko, tributuz-betebeharpekoak modu formalean ekintzon berri izanda.
 - b) Edozein motatako erreklamazioak edo errekursoak aurkezten badira; erreklamazio edo errekurso horien harian Administrazioak jarduketak egiten baditu, tributuz-betebeharpekoak modu formalean jarduketan berri izanda; jurisdikzio penalari erruduntasun-testigantza igortzen bazaio edo Fiskaltzaren aurrean salaketa aurkezten bada; eta irekitako administrazio-prozedura gelditu dadin agintzeko organo jurisdikzional batek egindako komunikazioa jasotzen bada.
 - c) Tributuz-betebeharpekoak edozein jarduketa frogagarri egiten badu tributuz-zorra likidatze edo autolikidatze aldera.
- B) Artikulu honen 1. apartatuko b) letrak aipatzen duen eskubidearen preskripzio-epea eten egingo da, baldin eta:
- a) Administrazioak ekintzaren bat egiten badu tributuz-zorra modu efektiboan kobratzeko, tributuz-betebeharpekoak modu formalean ekintzon berri izanda.
 - b) Edozein motatako erreklamazioak edo errekursoak aurkezten badira; erreklamazio edo errekurso horien harian, Administrazioak jarduketak egiten baditu, tributuz-betebeharpekoak modu formalean jarduketan berri izanda; zordunaren konkurtsoa deklaritzen bada edo tributuz-zorra kobratzeko akzio zibil zein penalak egikaritzen badira; eta irekitako administrazio-prozedura gelditu dadin agintzeko organo jurisdikzional batek egindako komunikazioa jasotzen bada.
 - c) Tributuz-betebeharpekoak edozein jarduketa frogagarri egiten badu tributuz-zorra ordaindu edo azkentze aldera.
- C) Artikulu honen 1. apartatuko c) letrak aipatzen duen eskubidearen preskripzio-epea eten egingo da, baldin eta:
- a) Administrazioak tributuz-zehapena ezartzeko edozein ekintza egiten badu, interesdunak modu formalean ekintzon berri izanda.
Tributuz-betebeharpekoaren tributuz-egoera erregularizatzeko egiten diren akzio administratiboek eten egingo dute erregularizatzeko horren ondorioz sortutako tributuz-zehapenak ezartzeko preskripzio-epea.
 - b) Edozein motatako erreklamazioak edo errekursoak aurkezten badira; jurisdikzio penalari erruduntasun-testigantza igortzen bazaio; eta prozedura horien harian jarduketak egiten badira, tributuz-betebeharpekoak modu formalean jarduketan berri izanda.
- D) Artikulu honen 1. apartatuko d) letrak aipatzen duen eskubidearen preskripzio-epea eten egingo da, baldin eta:
- a) Tributuz-betebeharpekoak jarduketa frogagarriren bat egiten badu diru-sarrera bidegabeak edo bermeen kostua itzultzeko, edo autolikidazioa zuzentzeko.
 - b) Edozein motatako erreklamazioak edo errekursoak aurkeztu, tramitatu edo ebazten badira.
- E) Artikulu honen 1. apartatuko e) letrak aipatzen duen eskubidearen preskripzio-epea eten egingo da, baldin eta:
- a) Administrazioak ekintzaren bat egiten badu, diru-sarrera bidegabeak edo bermeen kostua itzultzeko.
 - b) Tributuz-betebeharpekoak jarduketa frogagarriren bat egiten badu diru-sarrera bidegabea edo bermeen kostua itzul dakion eskatzeko.
 - c) Edozein motatako erreklamazioak edo errekursoak aurkeztu, tramitatu edo ebazten badira.
5. Epea etendakoan, berriz hasiko da preskripzio-epea zenbatzen, salbu eta hurrengo apartatuan

aipatzen den kasuan.

6. Preskripzio-epea beste era hauetan eteten bada, hots, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean errekurtsua aurkezteagatik, akzio zibil edo penalak egikaritzeagatik, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari igortzeagatik, Fiskaltzari salaketa aurkezteagatik edo prozedura geldiarazteko agintzen duen komunikazio judiziala jasotzeagatik, berriro hasiko da preskripzio-epea zenbatzen, prozesu judizialari amaiera ematen dion edo geldiarazpena kentzen duen ebazpen irmoaren jakinarazpena jasotzen duenean Administrazioak, edo, bestela, Fiskaltzaren eskutik espedientea atzera itzultzen dela aditzera emateko jakinarazpena jasotzen denean.

Preskripzio-epea zordunaren konkurtsoa deklaratzeko eteten bada, konkurtso-prozesutik kanpo dauden tributu-zorretarako konkurtso-hitzarmena onartzen den unean hasiko da berriro preskripzio-epea. Konkurtso-hitzarmenaren pean dauden tributu-zorrei dagokienez, zorrak zordunari eska dakizkiokenean hasiko da berriro preskripzio-epea zenbatzen. Hitzarmena onartzen ez bada, inguruabar horren berri ematen duen ebazpen judizial irmoa jasotzen denean hasiko da berriro preskripzio-epea.

Apartatu honetan xedatutakoa ez zaio aplikatuko Administrazioak ordainketa exijitzeko duen eskubidearen preskripzio-epeari, baldin eta etena administrazioarekiko auzibidean erabaki ez bada.

7. Preskripzio-epea tributu-betebeharpeko batentzat eteten bada, berdin etengo da gainerako tributu-betebeharpekoentzat ere -erantzuleak barne-. Dena den, betebeharra mankomunatua bada eta tributu-betebeharpeko bakarrari erreklamatzeko bazea dagokion zatia, gainerakoentzat epea ez da etengo.

Zor likidatu bat baino gehiago badago tributu-betebeharpeko beraren kontura, dagokion zorraren preskripzio-epea baizik ez da etengo.

8. Irabazitako preskripzioak ondorio berberak sortzen ditu ordaintzeko betebeharra duten guztientzat, salbu eta aurreko 7. apartatuan xedatutako inguruabarretan.

9. Preskripzioa ofizioz aplikatuko da, baita tributu-zorra ordainduta dagoenean ere, tributu-betebeharpekoak preskripzioa eskatu edo preskripzio-salbuespena aurkeztu beharrik gabe.

10. Irabazitako preskripzioak azkendu egiten du tributu-zorra.

25. artikulua. Zorra barkatzea.

Tasak eragindako tributu-zorra legearen indarrez bakarrik barkatu ahal izango da, eta lege horrek zehazten dituen zenbateko eta baldintzekin.

26. artikulua. Zorra behin-behinean azkentzea.

Subjektu pasiboaren eta gainerako erantzuleen kaudimengabezia frogatuagatik betearazpen-prozeduretan ordainarazi ezin izan diren zorrak behin-behineko azkenduta daudela joko da, dagokion zenbatekoan, harik eta preskripzio-epetaren barruan birgaitzen diren arte.

27. artikulua. Erreklamazioak eta errekurtsuak.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, ofizioz edo interesdunak eskaturik, likidazioetan atzemandako akatsak zuzenduko ditu -hala materialak eta egitezkoak, nola aritmetikoak - baldin eta preskripzio-epea igaro ez bada.

2. Tasak kudeatzeko egintzen aurka, aurretiazko eta aukerako berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio tasa hori kudeatzen duen organoari.

3. Berraztertze-errekurtsuak buruzko ebazpenaren aurka edota kudeaketa-egintzen aurka (baldin eta errekurtsorik aurkeztu ez bada), erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio Euskadiko Ekonomia Arduralaritzaren Epaitegiari, organo hori arautzen duten arauak jarraituz.

4. Aurkaratutako egintzen betearazpena automatikoki etengo da interesdunak eskaturik, baldin eta bermaturik geratzen badira egintza horren zenbatekoa, etendurak sortzen dituen berandutze-interesak eta etendura eskatzeko unean bidezkoak diren errekarguak.

Aurkaratzeak tributu-zehapen bati eragiten badio, automatikoki etengo da zehapen horren betearazpena, bermerik eman beharrik gabe.

5. Erreklamazio ekonomiko-administratiboari buruzko ebazpenak amaitu egingo du administrazio-bidea, eta ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri ahal izango da.

28. artikulua. Zehapen-araubidea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren tasen inguruko arau-hauste eta zehapenen kasuan, lege honetan edo tasa bakoitzaren legean jartzen duena bete beharko da, eta, halako legerik ez badago, tributuen arloko arau-hauste eta zehapenen araubide orokorra zehazten duen araudia bete beharko da.

29. artikulua. Identifikazioa.

Tasei buruzko agirietan, tasak kudeatzen dituen organoaren edo organismo autonomoaren izena jaso beharko da. Tasa, berriz, lege honetan eta aurrerantzean tasa sortzen duen legean ematen zaion izenarekin identifikatuko da.

II. TITULUA. PREZIO PUBLIKOAK

30. artikulua. Prezio publikoaren kontzeptua.

Prezio publikotzat joko dira zuzenbide publikoko araubidean egindako jardueren edo emandako zerbitzuen truke ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldin eta lege honen 4. artikulua arabera tasa ez badira.

31. artikulua. Eskumena.

Dekretu bidez zehaztuko da zein zerbitzu eta jarduera ordaindu ahal izango diren prezio publikoen bidez; horretarako, proposamena egingo dute elkarrekin ogasunaren arloan eskumena duen sailak, batetik, eta, bestetik, zerbitzu edo jarduera horiek ematen dituen sailak edo dagokion organoa edo entea atxikita duen sailak.

32. artikulua. Zenbatekoa.

1. Kasuan kasuko jarduerak egiteko edo zerbitzuak emateko kostu ekonomikoak gutxienez berdintzeko adinakoak izango dira prezio publikoak, eta, zehaztapena egiteko, kontuan izango da beti jarduera edo zerbitzu horiek gizarteari dakarkioten anura.

2. Gizartearekin, ongintzarekin, kulturarekin edo interes publikoarekin zerikusia duten arrazoiak direla eta, aurreko apartatuan aurreikusitakoak baino prezio publiko merkeagoak ezar daitezke, prezioak diruz lagunduko den zatia ordaintzeko aurrekontu-aurreikuspenak ezarri ondoren.

3. Halaber, eta aurreko apartatuan aipatutako aurrekontu-aurreikuspenak betetzeko, ordaintzeko betebeharra duten subjektuen egoera edo jardueren ezaugarri bereziak kontuan harturik, salbuespenak eta hobariak ezarri ahal izango dira ordaindu beharreko prezio publikoetan. Prezioak finkatzen dituen xedapenean zehaztuko dira inguruabar horiek.

33. artikulua. Prezio publikoak finkatzea.

1. Lege berezi batean bestelakorik ezarri ezean, prezio publikoak honela finkatu edo aldatuko dira:

- a) Prezioak kobratu behar dituen organoak edo enteak gainetik daukan saileko titularraren aginduz, organo edo ente horrek proposaturik.
- b) Zuzenean merkataritzako organismo autonomoen eskutik, gainetik duten sailaren baimena jasota aurrez, haien jardueraren xede diren zerbitzuei edo ondasun-salmentari dagozkien prezioak direnean.

2. Prezio publikoak finkatu edo aldatzeko proposamenarekin batera, memoria ekonomiko-finantzarioa aurkeztuko da, eta han justifikatuko dira prezioen zenbatekoa eta kostuen finantzaketaren estaldura-maila.

3. Prezio publikoak finkatu edo aldatzeko proposamenaren onarpenarekin batera, ogasunaren arloan eskumena duen sailaren txosten loteslea beharko da.

4. Prezio publikoen zenbatekoak finkatzen edo aldatzen direnean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango dira argitara.

34. artikulua. Prezio publikoak administratu eta kobratzea.

1. Prezio publikoak jaso behar dituzten sailak edo enteak arduratuko dira preziook administratzeaz eta kobratzeaz.

2. Prezio publikoak eskarazten dituzten ondasunak entregatzen direnean edo zerbitzua ematen hasten denean exijitu ahal izango da ordainketa.

3. Lege honen 21. artikuluan zehazten dira prezio publikoak ordaintzeko erak.

4. Prezio publikoen zenbatekoa, osoa edo zati bat, aldez aurretik ordaintzeko eskatu ahal izango da.

5. Administrazioak frogagiri bat emango du ordainketaren trukean. Frogagirian, xehetasun hauek agertuko dira, gutxienez:

- Frogagiria egin duen organoa edo entea.
- Zordunaren izen-deiturak edo sozietate-izena, identifikazio fiskaleko zenbakia adierazita.
- Helbidea.
- Kontzeptua.
- Prezio publikoaren zenbatekoa, kobrantza-eguna eta kobrantza-aldia, hala badagokio.
- Balio erantsiaren gaineko zerga, eragiketari hala badagokio eta salbuetsita ez badago.

Ez da beharrezkoa izango frogagirian zordunaren identifikazio-datuak adieraztea, emandako zerbitzuak honako hauek direnean: pertsonak eta haien ekipajeak garraiatzea, ibilgailuak aparkatzea eta ikuskizun publikoak egitea.

6. Prezioa ordaintzeko betebeharra duenari egoztekoak ez diren arrazoiengatik jarduera egiterik ez dagoenean edo zerbitzua ematen ez denean, atzera itzuliko zaio dirua, edo, ikuskizunak baldin badira, sarrerak trukaturako zaizkio, ahal denean.

7. Prezio publikoei dagozkien zorrak premiamenduko administrazio-prozeduraren bitartez erreklamatu ahal izango dira, prezio publikoaren araudi espezifikoan diru-sarrera egiteko ezarritako epea amaitutakoan edo, horrelako araurik ez bada, diru-bilketari buruzko araudian oro har ezarritako epea amaitutakoan.

8. Ogasun-arloan eskumena duen sailak ordainketa geroratzeko edo zatika ordaintzeko baimena eman dezake, prezioa ordaintzeko betebeharra duenak aldez aurretik horrela eskatuta. Tasetarako ezarritako baldintza berberak beteko dira halakoetan.

9. Lau urteren buruan preskribatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren organismo autonomoek prezio publikoak aitortzeko eta likidatzeko duten eskubideak. Eskubidea baliagarri izan zen egunetik aurrera hasiko da kontatzen preskripzio-epea.

10. Lege honetan berariaz aurreikusi gabeko orotan, prezio publikoak administratzeko eta kobratzeko, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritakoa beteko da.

35. artikulua. Erreklamazioak.

Prezio publikoei buruzko administrazio-egintzen aurka, aurretiazko eta aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo kudeatzaileari, eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa Euskadiko Ekonomia Arduralaritzaren Epaitegiari.

III. TITULUA. TASA OROKORRAK

I. KAPITULUA. LANGILEAK HAUTATZEKO DEIALDIETAN IZENA EMATEAGATIK EZARRITAKO TASA

36. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da Administrazioak beharrezkoak diren zerbitzuak ematea Administrazioan sartzeko hautaketa-probak egiteko; zehazki esanda, interesdunek aurkeztutako eskabideak jaso eta aztertzea.

37. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak edo haren organismo autonomoek langileak hautatzeko egiten dituzten deialdietan parte hartzeko eskabidea aurkeztu dutenak.

38. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena eskabidea aurkeztu denean izango da.

39. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

- Titulazio-eskakizunarekin: 20,68.
- Titulazio-eskakizunik gabe: 8,18.

II. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO-ZERBITZUENGATIK EZARRITAKO TASA

40. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Tasa honen zerga-egitatea da Administrazio orokorraren sailek eta organismo autonomoek administrazio-zerbitzu hauek ematea:

- a) Kopia autentikoak, autentifikatuak eta konpultatuak egitea.
- b) Liburuak eginbidetzea.
- c) Erregistro eta errolda ofizialetan inskribatzea.
- d) Ahalordeak eta legitimazio-egiaztagiriak askiestea.
- e) Sinadurak legeztatzea.

2. Administrazio-zerbitzu horiek ez dira tasa honen pean egongo, baldin eta lege honetan aurreikusitako beste tasaren baten bidez kargatuta badaude berariaz.

41. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira 40. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren zerbitzuak eskatzen edo jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

42. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren administrazio-zerbitzuak ematean izango da. Halere, eskaera egiten den unean ordain dadin eskatu ahal izango da.

43. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1	Kopia autentikoak, autentifikatuak eta konpultsatuak egiteagatik:		
	1.1	Kopia bakoitza	4,03
	1.2	Konpultsatu beharreko agiriaren orri gehigarri bakoitzeko honenbeste gehituko da	0,400478
2.	Kontabilitate-liburuak, aktak edo halako agiriak eginbidetzeagatik. Agiri bakoitza		4,03
3	Erregistro eta errolda ofizialetan inskribatzeagatik. Inskripzio bakoitza		4,03
4	Ahalordeak eta legitimazio-egiaztagiriak askiestegatik. Agiri bakoitza		4,03
5	Sinadurak legeztatzeagatik. Legeztatutako sinadura bakoitza		4,03

44. artikulua. Salbuespenak.

Tasa honetatik salbuetsita egongo dira:

- Administrazioko langileak, ziurtagiriak eskatzen dituztenean lanpostuari berari dagozkio beharrak betetzeko edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotuta ordainsariak justifikatzeko.
- Partikularrak, Autonomia Erkidegoak emandako dirulaguntzak, dohaintzak edo bekak ordaintzearekin zerikusia duten zerbitzuak direnean.
- Lizitatzailak, kontratazio-espedituekin zerikusia duten zerbitzuak direnean.
- Enpresaburuak, Kontratisten Erregistro Ofizialak emandako zerbitzuak direnean.
- Pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak zein pribatuak, eskaera egiten dutenean Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak legeza dezan atzerrian eragina izan behar duten agirietan EAEko administrazio publikoen agintariak ezarri beharreko sinadura.
- Erregistro eta errolda ofizialetan egindako inskripzioak; salbuespena izango dira Jabetza Intelektualaren Erregistroan eta berariazko inskripzio-tasa bat araututa duten beste erregistro eta errolda ofizialetan egindako inskripzioak.

45. artikulua. Tasa likidatzea.

Subjektu pasiboek autolikidazioaren bitartez zehaztu eta ordaindu beharko dute tributu-zorra, erregelamenduz adierazitako tokian, moduan eta epeen barruan.

III. KAPITULUA. OBRA PUBLIKOAK ZUZENDU ETA IKUSKATZEKO LAN FAKULTATIBOAK EGITEAGATIK EZARRITAKO TASA

46. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Euskal Autonomia Erkidegoan hirugarren batzuek kontratu bidez gauzatutako obrak zuzentzeko eta ikuskatzeko lan fakultatiboak egitea.

47. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira aurreko artikuluan aipatutako enkante, lehiaketa eta zuzeneko kontratazioak adjudikatzen zaizkien pertsonak edo entitate kontratistak.

48. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen denean izango da, eta tasaren likidazioa, berriz, ziurtagiri bakoitzarekin egingo da.

Tasaren likidazioa jakinarazi eta hurrengo hamabost egunen barruan eskatu ahal izango da tasa, borondatez ordaintzeko epean.

49. artikulua. Tasaren elementu kuantitatiboak.

1. Tasa honen zerga-oinarria kontratuaren prezioa da, kanpoan utzita bai balio erantsiaren gaineko zerga, bai tasa hau, obra-ziurtagirien arabera egiaztatzen baita. Orobat, zerga-oinarrian sartuko dira, hala dagokienez, prezioak berrikusteagatik eta lanak likidatzeagatik dagozkion zenbateko gehigarriak.

2. Karga-tasa % 4 izango da.

IV. KAPITULUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JABARI PUBLIKOKO ONDASUNEN ERABILERA PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIK EZARRITAKO TASA

50. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Tasaren zerga-egitatea da Euskal Autonomia Erkidegoko ondarearen jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organo eskudunek emakida edo baimenen bitartez emandakoa, Euskadiren ondarea arautzen duen legean xedatutakoaren arabera.

2. Jabari horren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia ez da tasa honen pean egongo, baldin eta lege honetan aurreikusitako beste tasaren batek berariaz kargatzen badu.

51. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira emakiden edo administrazio-baimenen titularrak, edo, hala badagokio, subrogazioz aurreko horien lekua hartzen dutenak.

52. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitateari dagozkion tituluak ematen direnean izango da.

Emakida edo baimena indarrean duten hurrengo urte-aldietan, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean izango da tasaren sortzapena.

53. artikulua. Tasaren elementu kuantitatiboak.

1. Tasaren kuota kalkulatzeko, jabari publikoan okupatu den azalera (metro karratutan neurtuta) eta okupazioaren iraupena hartuko dira kontuan.

2. Urtebeteko edo gehiagoko iraupena duten baimen eta emakidetan, kuota hau eskatuko da: 27,29 euro/m²/urte.

3. Urtebetetik beherako iraupena duten baimen eta emakidetan, kuota hau eskatuko da: 0,50 euro/m² eguneko edo egun-frazioko, eta gehieneko metatua 27,29 euro/m²-koa izango da.

4. Emakidaren lehenengo urtean, eskatzekoa den tasa-zenbatekoa proportziozkoa izango da urte horretako iraunaldiarekiko; hortaz, aurreko apartatuen arabera zenbatekoari dagokion hainbanaketa ezarriko zaio. Era berean, emakidak indarrean irautean duen azken urtean ere aplikatuko da hainbanaketaren irizpide hori.

5. Emakida edo baimena emateak onuradunaren etekin ekonomikoak murrizten dituzten betebeharrak edo kontraprestazio batzuk baldin badakartza, orduan tasa-oinarria proportzio berean gutxitu beharko da, hargatik eragotzi gabe 54. artikuluan xedatutakoa.

54. artikulua. Salbuespenak.

Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia tasa honetatik salbuetsita egongo dira:

a) Doako baimen edo emakiden ondoriozkoak baldin badira.

b) Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak ez badakarkio onuradunari etekin

ekonomikorik, edo, ekarrita ere, etekin horiek deuseztatzen edo hutsaltzen dituzten baldintzak edo kontraprestazioak bete behar baditu onuradunak.

- c) Erabilera pribatiboa edo aprobatxamendu berezia zerbitzuak emateko kontratu bat egitearen ondorio bada.

Inguruabar horiek guztiak jaso beharko dira jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa edo aprobatxamendu berezia emango duten baldintza-agirietan edo tituluari.

55. artikulua. Tasa likidatzea.

Emakidak eta baimenak urtebeteko aldietarako edo aldi luzeagoetarako ematen direnean, tasaren likidazioa hiru hilean behin egingo da, likidazio aurreratu gisa, urtarrean, apirilean, uztailean eta urrian.

Gainerako kasuetan, sortzapenaren unean likidatuko da.

V. KAPITULUA. EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAREN ZERBITZUENGATIK EZARRITAKO TASA

56. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da testuak txertatzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren II. atalean (Agintariak eta langileria), IV. atalean (Justizia Administrazioa) eta V. atalean (Iragarkiak).

57. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Tasa honen subjektu pasibo dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian testuak txertatzea eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

Aurreko hori gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko organoek izapidetutako administrazio-kontratazio prozeduren lizitazioari buruzko xedapenak eta iragarkiak argitaratzen direnean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Administrazio orokorra bera izango da subjektu pasiboa.

2. Justizia Administrazioak testuak txertatzea eskatzen duenean horiek argitaratzea beharrezkoa delako prozedura judizialerako, testua noren mesedetan txertatzen den, huraxe izango da subjektu pasiboa, edo testu-txertatzea zuzenean edo zeharka nork sustatzen duen, huraxe.

Prozedura judizialetan, prokuradorearen esku-hartzearekin argitaratzen diren testuetan, prokuradorea izango da zergadunaren ordezkari.

58. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena testuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen direnean izango da, zerbitzu hori baita zerga-egitea. Hala ere, testuak argitaratu aurretik exijituko da tasaren ordainketa.

59. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1. Agiriak argitaratzea

1. Oro har

1.1.1. Bi hizkuntza ofizialetan bereiz argitaratutako karaktere edo zuriune bakoitza (agiriaren titulua eta testua barne): 0,057964

1.1.2. Zerrendak, mapak edo balioesteko zailak diren beste elementu grafiko batzuk (DIN-A4 edo antzekoa): 206,8887

2. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen administrazio-kontratuen lizitazioei buruzko xedapenak eta iragarkiak, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren II.

eranskinean ezarritako ereduarekin bat etorritik egindakoak. Iragarki bakoitza: 514,7041

2. Presazko iragarkiak 10 egun balioduneko epean txertatuko dira gehienez, txertatzeko agindua berresten denetik kontatzen hasita. Horrela argitaratutako iragarkiengatik ordaindu beharreko tasa ohikoa baino ehuneko ehun handiagoa izango da.

60. artikulua. Salbuespenak.

1. Lege honen 16. artikuluko 1. apartatua jasotako salbuespenarekin bat etorritik, subjektu pasibo hauek bakarrik salbuetsiko dira tasa honetatik:

- a) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko II. atalean (Agintariak eta langileria) eta V. atalean (Iragarkiak) testuak txertatzen dituztenean, Euskal Autonomia Erkidego erakunde komunak eta Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 1.1 artikuluan aipatutako gainerako entitateak.
- b) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko IV. atalean (Justizia Administrazioa) testuak txertatzen dituzten subjektu pasiboak eta haien ordezkioak, baldin eta testu horiek organo judizialek ofizioz emandako iragarkiak eta ediktuak badira edo, bestela, subjektu pasiboari doako laguntza juridikorako eskubidea aitortu bazaio prozesu judizialean.

2. Salbuespenetik kanpo geratzen dira, nolana ere, testu-txertatze hauek:

- a) Administrazio-kontratazio-ko prozedurak lizitatzeari buruzko xedapenak eta iragarkiak direnean.
- b) Legez, tributu-zama hirugarren bati aldatzea dagokionean.

VI. KAPITULUA. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIORAKO LIZENTZIA BAT XEDE DUTEN NEGOZIO JURIDIKOAK EGITEKO BAIMENENGATIK EZARRITAKO TASA

61. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da ikus-entzunezko komunikaziorako lizentzia bat xede duten negozio juridikoak egiteko baimenei dagozkien zerbitzuak ematea.

62. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira ikus-entzunezko komunikaziorako lizentzien titular izanik aurreko artikuluan aipatutako baimenak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak.

63. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen denean izango da. Halere, ordainketa aurretiaz exijituko da, eskaera egiten den unean.

64. artikulua. Kuota.

Tasa 177,51 eurokoa izango da.

IV. TITULUA. EZAGUTZAK ETA INGURUABAR PERTSONALAK EGIAZTATZEKO TASAK

I. KAPITULUA. TITULU ETA ZIURTAGIRI AKADEMIKO ETA PROFESIONALAK EGITEAGATIK EZARRITAKO TASA

65. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da hezkuntza-arloan eskumena duen sailak titulu eta ziurtagiri akademiko eta profesionalak, espedienteak eta inprimakiak egitea, baita agirion ale bikoiztuak ere.

66. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira aipatutako titulu eta ziurtagiri akademiko eta profesionalak eta agirion ale bikoiztuak eskatzen dituztenak.

67. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena titulu-agiriak eta ziurtagiriak egitean izango da. Hala ere, agirion eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da tasa ordaintzea.

Administrazioak ofizioz egiten baditu tituluak eta ziurtagiriak, tasaren sortzapena agiriok egiteko eskaera egiten denean izango da, eta une horretantxe exijituko da ordainketa.

68. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

	Jatorrizkoak	Kopiak
1.– Goi-mailako tituluak: Arte Plastikoak eta Diseinua; Arte Dramatikoa; Dantza; Musika. Titulu profesionala (1942ko plana). Araubide Bereziko Irakaskuntzen goi-mailako titulua edo lizentziaturaren baliokideak.	108,89	7,09
2.– Araubide Bereziko Irakaskuntzen titulua edo diplomaturaren baliokideak.	54,44	7,09
3.– Honako titulu hauek: LOE Batxilergoa, LOGSE Batxilergoa, LHko Goi Mailako Teknikaria, Goi Mailako Kirol Teknikaria, Musikako Profesionala, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikaria, Dantzako Profesionala, Araubide Bereziko Irakaskuntzetako Goi Mailako Teknikaria edo baliokideak, Lutherian aditu-egiaztapena/ziurtagiria. Homologazioziurtagiriak, goi-mailako kirol-teknikari gisa.	47,33	7,09
4.– Honako titulu hauek: Teknikaria, LHko teknikaria, LHko Espezialista, Kirol Teknikaria, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Teknikaria, Araubide Bereziko Irakaskuntzetako Teknikaria edo baliokideak, Kirol-teknikariaren tituluko zikloetara homologatzeko ziurtagiria.	23,67	7,09
5.– EGA ziurtagiria.	23,67	7,09
6.– Honako ziurtagiri hauek: hizkuntza-eskola ofizialetako Gaitasun-Agiria, 1995eko ekainetik aurrera bukatutakoak; oinarrizko mailako, erdi-mailako eta goi-mailako hizkuntza-egiaztagiriak; erdi-mailako eta goi-mailako espezialitate-egiaztagiriak.	23,67	7,09
7.– Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan Masterraren titulua.	108,89	7,09
8.– Prestakuntza pedagogiko eta didaktiko baliokidearen ziurtagiri ofizial.	23,67	7,09

69. artikulua. Salbuespenak eta hobariak.

1. Kuota ordaintzetik guztiz salbuetsita egongo dira kategoria bereziko familia ugariko kideak direla egiaztatzen duten eskatzaileak.
2. Kuotaren % 50eko hobaria izango dute kategoria orokorreko familia ugariko kideak direla egiaztatzen duten eskatzaileak.
3. Eskatzaile hauek kuota ordaintzetik guztiz salbuetsita egongo dira: larritasun bereziko kalte pertsonal fisiko edo psikofisikoak jasan dituztela egiaztatzen duten terrorismoaren biktimak eta haien ezkontideak edo, afektibitate-harreman antzekoa izanik, haiekin modu iraunkorrean bizi direnak, eta berdin haien seme-alabak.

II. KAPITULUA. EUSKARAREN EZAGUTZA EGIAZTATZEKO AGIRIAK EGITEAGATIK EZARRITAKO TASA

70. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da helduei euskara irakasteko programen oinarritzko curriculumeko mailaren bati dagozkion espedienteak eta inprimakiak egitea eta arlo horretako bai ziurtagiriak bai ziurtagirion ale bikoiztuak ematea (guztiak ere euskararen ezagutza egiaztatzeakoak). Kultura arloan eskumena duen sailari dagokio jarduketa horiek egitea.

71. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira ziurtagiri horiek eta haien bikoiztuak eskatzen dituztenak.

72. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena tituluen ziurtagiriak egitean izango da. Hala ere, agirion eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da tasa ordaintzea.

73. artikulua. Kuota.

Hona tasaren zenbatekoa (eurotan):

1	Jatorrizko ziurtagiriak	22,77
2	Bikoiztuak	2,12

III. KAPITULUA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZETAKO ATZERRIKO TITULU ETA IKASKETAK HOMOLOGATU ETA BALIOZKOTZEAGATIK EZARRITAKO TASA

74. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da interesdunak eskaturik hasiera ematea atzerriko goi-mailako hezkuntza-sistemen esparruan lortutako titulu bat homologatzeko edo baliokide deklaratzeko espediente bati, edo unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako atzerriko tituluak edo ikasketak homologatu edo baliozkotzeko espediente bati.

75. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena eskabidea aurkezten denean izango da. Tasa ordaindu izana frogatu beharko da espedienteak izapidetzeko.

76. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira atzerriko tituluak homologatzeko, baliozkotzeko edo baliokide deklaratzeko eskatzen duten pertsona fisikoak.

77. artikulua. Kuota.

1. Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

	Jatorrizkoa	Kopiak
a) Atzerriko goi-mailako hezkuntza-sistemen esparruan lortutako unibertsitate-titulua Espainiako unibertsitate-titulu batekin homologatzeko titulua, lanbide arautuan jarduteko:	169,83	7,23
b) Atzerriko goi-mailako hezkuntza-sistemen esparruan lortutako unibertsitate-titulu baten eta Espainiako unibertsitate-gradu eta -masterreko maila akademiko ofizial baten arteko baliokidetzak deklaratzeko eskabidea:	169,83	7,23
c) Goi-mailako Arte-ikasketetako Graduaren tituluarekin homologatzeko eskabidea:	111,07	7,23
d) Espainiako titulu hauekin homologatzeko eskabidea: Batxilergoa, Lanbide Heziketako goi-mailako teknikaria, Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikaria, Kiroletako goi-mailako teknikaria eta Musika edo Dantzako titulu profesionala:	54,40	7,23
e) Espainiako titulu hauekin homologatzeko eskabidea: Lanbide Heziketako teknikaria, Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikaria edo Kiroletako teknikaria:	54,40	7,23
f) Goi-mailako Arte-ikasketetako Masterraren tituluarekin homologatzeko eskabidea:	111,07	7,23
g) Unibertsitate-mailakoak ez diren Espainiako ikastaro edo moduluak baliozkotzeko eskabidea:	27,17	7,23

2. Aurreko letretan berariaz aipatu gabeko titulu edo ikasketen kasuan, ondorioei edo maila akademikoari dagokienez baliokideak diren titulu edo ikasketen zenbatekoa aplikatuko da.

3. Ez da tasarik eskatuko Bigarren Hezkuntzako Graduaren Espainiako tituluarekin homologatzeko eskabideagatik.

IV. KAPITULUA. AISIAKO ONTZIAK MANEIAITZEKO TITULUENGATIK EZARRITAKO TASA

78. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da zerbitzuak ematea aisiako ontziak maneiatzeko behar diren tituluak egiteko, berritzeko, baliozkotzeko eta haien ale bikoiztuak egiteko, bai eta tituluok lortzeko azterketetan parte hartzeko ere.

79. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak eskatzen edo jasotzen dituztenak.

80. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren administrazio-jarduketak gauzatzen direnean izango da. Halere, eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

81. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1.	Azterketa teorikorako eskubideak.	
1.1	Yateko kapitaina:	68,18
1.2	Yateko patroia:	56,09
1.3	Aisiako ontziko patroia:	44,10
1.4	Oinarrizko nabigazioko patroia:	36,08
2.	Azterketa praktikorako eskubideak.	
2.1	Yateko kapitaina:	68,18
2.2	Yateko patroia:	56,09
2.3	Aisiako ontziko patroia:	44,10
2.4	Oinarrizko nabigazioko patroia:	36,08
3.	Kirol-arloko tituluak egitea.	
3.1	Yateko kapitaina:	48,10
3.2	Yateko patroia:	32,07
3.3	Aisiako ontziko patroia:	24,07
3.4	Oinarrizko nabigazioko patroia:	20,07
3.5	Lehen mailako kirol-urpekaria:	24,07
3.6	Bigarren mailako kirol-urpekaria:	24,07
3.7	Kirol-urpekaritzako irakaslea:	24,07
4.	Kirol-arloko tituluak berritzea.	
4.1	Yateko kapitaina:	4,03
4.2	Yateko patroia:	4,03
4.3	Aisiako ontziko patroia:	4,03
4.4	Oinarrizko nabigazioko patroia:	4,03
5.	Administrazio-zerbitzuak.	
5.1	Baliozkotze bakoitza:	4,85
5.2	Tituluaren ale bikoitza bakoitza:	4,03
5.3	Ziurtagiri bakoitza:	4,03

V. KAPITULUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN NAZIOARTEKO AITORTZA DUTEN ATERPEKIDE-TXARTELAK EGITEAGATIK EZARRITAKO TASA

82. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da interesdunak eskaturik nazioarteko aterpekide-txartel eta ongietorri-zigilu hauek egiteko behar diren zerbitzuak ematea:

- a) Aterpekide gazteen nazioarteko txartela.
- b) Aterpekide helduen nazioarteko txartela .
- c) Familiako nazioarteko aterpekide txartela.
- d) Taldeentzako nazioarteko aterpekide-txartela.

83. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira txartel mota bakoitzaren onuradun izateko adinaren edo gizataldearen baldintzak bete eta txartela beren izenean egin dakiela eskatzen duten pertsona fisikoak.

84. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren administrazio-jarduketak gauzatzen direnean izango da. Halere, eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

85. artikulua. Kuota.

Tasa tarifa honen arabera eskatuko da (eurotan):

1.	Aterpekide gazteen nazioarteko txartela:	5,00
2.	Aterpekide helduen nazioarteko txartela:	10,00
3.	Familiako nazioarteko aterpekide txartela:	18,00
4.	Taldeentzako nazioarteko aterpekide-txartela:	16,00

86. artikulua. Hobariak.

Taldeentzako nazioarteko aterpekide-txartela emateko kuotaren % 100eko hobaria izango dute formalki eratutako eta dagokion erregistroan inskribatutako irabazi-asmorik gabeko elkarte edo erakundeek, baldin eta helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriaren edo gizarte-ekintzaren eremuan jardutea badute.

VI. KAPITULUA. UNIBASQ-EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAK EBALUAZIORAKO ESKAERAK IZAPIDETZEAGATIK EZARRITAKO TASA

87. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ebaluaziorako eskabide normalizatuak izapidetzeko behar diren zerbitzuak ematea.

88. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak eskatzen dituzten edo jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

89. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen denean izango da. Hala ere, aurretiaz ordaindu beharko da, eskaera egiten den unean.

90. artikulua. Kuota.

1. Irakasleak akreditatzeko zerbitzuak emateko tasa 50,69 eurokoa izango da.
2. Ordainsari osagarriak esleitze aldera irakasleen eta ikerlarien ikerketa-merezimendu indibidualak ebaluatzeako zerbitzuak emateko tasa 50,69 eurokoa izango da.
3. Unibertsitate berriak sortzeko proposamenak ebaluatzeako zerbitzuak emateko tasaren zenbatekoa 8.895,90 eurokoa izango da.

VII. KAPITULUA. POLIZIA ETA LARRIALDETA KO EUSKAL AKADEMIAK ZIURTAGIRI AKADEMIKOAK ETA BALIOZKOTZEAK EGITEAGATIK EZARRITAKO TASA

91. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da beharrezkoak diren zerbitzuak ematea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ziurtagiri akademikoak eta ziurtagirion ale bikoiztuak, homologazioak, baliozkotzeak eta aitortpenak egiteko bai, orobat, kopia autentikoak edo autentifikatuak eta aipatutako dokumentuen konpultsa egiteko ere.

92. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasibo dira agiri horiek eskatzen dituztenak (hots, ziurtagiri akademikoak eta ziurtagirion ale bikoiztuak, homologazioak, baliozkotzeak eta aitordenak, kopia autentikoak edo autentifikatuak eta aipatutako dokumentuen konpultsa).

93. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena behar diren ziurtagiri edo dokumentuak egiten direnean izango da. Hala ere, agirion eskaera egiten denean exijitu ahal izango da tasa ordaintzea.

Ziurtagiri akademikoak ofizioz egiten direnean, agiriok egiteko eskaera egiteaz batera izango da tasaren sortzapena, eta une horretan eskatuko da ordainketa.

94. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

- a) Homologazioak: 141,30 euro.
- b) Ziurtagiri akademikoak egitea: 27,40 euro.
- c) Baliozkotze- eta aitorden-eskabideak: 57,45 euro.
- d) Ale bikoiztuak, kopia autentikoak edo autentifikatuak egitea eta dokumentuak konpultsatzea: 5,39 euro. Konpultsatu beharreko dokumentuaren orri gehigarria: 0,54 euro.

95. artikulua. Salbuespenak.

Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak zerbitzuak ematea ziurtagiri akademikoak eta agirion ale bikoiztuak, homologazioak, baliozkotzeak eta aitordenak eta kopia autentikoak edo autentifikatuak eta aipatutako dokumentuen konpultsa egiteko, betiere jarduketa horiek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Kontseiluak onartutako Jardueren Urteko Planaren barruko jardueri badagozkie eta arlo hauei lotuta badaude: Ertzaintzako, Udaltzaingotako eta EAEko foru- eta toki-administrazioetako larrialdietako zerbitzuetako langileak eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari dauden Euskadiko boluntarioen antolakundeetako langileak.

VIII. KAPITULUA. LANEKO ESPERIENTZIAREN BIDEZ EDO PRESTAKUNTZA-BIDE EZ-FORMALEN BITARTEZ LORTUTAKO KONPETENTZIA PROFESIONALAK EGIAZTATZEAGATIK EZARRITAKO TASA

96. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da aholkularitzako eta konpetentziak ebaluatzeko zerbitzu teknikoak ematea lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez lortutako konpetentzia profesionalak egiaztatze probetan, baldin eta zerbitzu horiek ez badituzte osorik finantzatzen edo diruz laguntzen Europar Batasunaren edo Estatuko Administrazioaren funts espezifikoek.

97. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira aurreko artikuluan zehaztutako prozeduran parte hartzeko aurreinskripzioa eta inskripzioa egitea eskatzen duten pertsona fisikoak.

98. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitatea gauzatzen denean izango da. Prozeduraren fase bakoitzean aurreinskripzioa eta inskripzioa egiteko unean eskatuko da ordainketa egitea, subjektu pasiboaren autolikidazioaren bidez.

99. artikulua. Zenbatekoa.

Hauek dira tasaren kuotak:

1. Lan-esperientziari eta ikaskuntza ez-formalei esker lortutako konpetentzia profesionalak

aitortzeko prozesuan aurreinskribatzea: 10,87 euro.

2. Aholkularitza fasean inskribatzea:

- 1. maila: 65,27 euro.
- 2. maila: 76,15 euro.
- 3. maila: 97,90 euro.
- I. mailako titulu osoak: 97,90 euro.
- II. mailako titulu osoak: 108,79 euro.
- III. mailako titulu osoak: 119,67 euro.

3. Ebaluazio fasean inskribatzea:

- Lehen mailako kualifikazioen konpetentzia-unitate bakoitza: 13,05 euro.
- Bigarren mailako kualifikazioen konpetentzia-unitate bakoitza: 16,32 euro.
- Hirugarren mailako kualifikazioen konpetentzia-unitate bakoitza: 19,58 euro.

100. artikulua. Salbuespenak eta hobariak

1. Prozeduran onartutako pertsona fisikoak tasa ordaintzetik erabat salbuetsita egongo dira, baldin eta honako inguruabarren bat egiaztatzen badute:

- a) Langabezian daudela eta Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko bulegoetan izena emana dutela enplegua eskatzeko.
- b) Izena eman aurreko urte naturalean guztira izan dituzten diru-sarrerak lanbide arteko urteko gutxieneko soldataren parekoak edo txikiagoak direla.
- c) Bizikidetza-unitatearen gutxieneko diru-sarrerak ez direla iristen lanbide arteko gutxieneko soldataren 1,5era.
- d) Indarrean dagoen araudiaren arabera zehaztutako kategoria bereziko familia ugariko kide direla.
- e) Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen dutela.
- f) Terrorismoaren biktima direla, legez hala onartuta.
- g) Genero-indarkeriaren biktima direla edo izan direla.
- h) Ehuneko 33ko edo hortik gorako desgaitasunen bat dutela tasaren sortzapen-unean.
- i) Iraupen luzeko langabeak direla.

2. Prozeduran onartutako pertsona fisikoek % 50eko hobaria izango dute tasan -ezin metatuzkoa, betiere-, baldin eta honako inguruabarren bat egiaztatzen badute:

- a) Indarrean dagoen araudiaren arabera zehaztutako kategoria orokorreko familia ugariko kide direla.
- b) Izena eman aurreko urte naturalean guztira izan dituzten diru-sarrerak lanbide arteko urteko gutxieneko soldataren % 150aren parekoak edo txikiagoak direla.

V.TITULUA. TRAFIKO, JOKO, IKUSKIZUN, LARRIALDI ETA SEGURTASUN ARLOETAKO TASAK

I. KAPITULUA. TRAFIKOAREN INGURUKO JARDUERA ETA ZERBITZUEI DAGOKIEN TASA

101. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da Trafiko Zuzendaritzak jarduerak egitea edo zerbitzuak ematea arlo hauetan:

- a) Gidariak prestatzeko zentroak.
- b) Trafiko-zerbitzu askotarikoak.

102. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren administrazio-jarduerak edo -zerbitzuak eskatu

edo jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

103. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren zerbitzuak ematen direnean izango da. Halere, eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

104. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1.	Gidariak prestatzeko zentroak:		
	1.1	Gidari-eskola pribatuak edo gidariak prestatzeko bestelako zentroak irekitzeko baimena:	487,63
	1.2	Gidari-eskola pribatuak edo gidariak prestatzeko bestelako zentroak irekitzeko baimena aldatzea, ikuskapena eginda edo egin gabe:	28,45
	1.3	Gidariak prestatzeko irakaslearen edo gidari-eskola pribatuetakozuzendariaren gaitasun-agiria lortzeko ikastaro eta probetan izena ematea eta azterketa-eskubideak izatea:	48,78
	1.4	Gidari-eskola pribatuetakozuzendari eta irakasle izateko gaitasun-agiriak eta Trafiko Zuzendaritzaren eskumenekoak diren beste titulazio batzuk eta haien guztien kopiak egitea:	109,97
	1.5	Prestakuntza-zentro batean erregelamendu-manu baten arabera egindako ikuskatzea:	73,15
2.	Askotariko zerbitzuak.		
	2.1	Espedienteetan edozein motatako oharra jasotzea, datuak ematea, ziurtagiriak egitea, dokumentuak erkatzea eta banakatzea eta edozein motatako plaka edo liburuak zigilatzea:	3,91
	2.2	Zirkulazio-baimen berezia, garraio bereziaren araubideko ibilgailuetarako eta ibilgailu berezietarako:	139,39
	2.3	Garraio bereziaren araubideko ibilgailuetako eta ibilgailu berezietako zirkulazio-baimen berezia aldatzea:	16,74
	2.4	Poliziaren konpainia-zerbitzua, garraio bereziaren araubideko ibilgailuetarako eta ibilgailu berezietarako (euroak, agente eta ordu bakoitzeko):	34,58
	2.5	Kirol-probak, bizikleta-ibilaldiak eta beste ekitaldi batzuk egiteko baimena:	15,78
	2.6	Poliziaren konpainia-zerbitzua, kirol-probak, bizikleta-ibilaldiak eta bestelako ekitaldiak kontrolatzeko eta ordenatzeko (euroak, agente eta ordu bakoitzeko):	34,58
	2.7	Trafiko Zuzendaritzaren eskumeneko beste baimen berezi batzuk:	15,78

105. artikulua. Salbuespenak.

1. Antolatzaileak administrazio publikoak, irabazi-asmorik gabeko entitateak eta emakumeen kirol-ekitaldietako arduradunak badira, horiek denek ez dute ordaindu beharko kirol-probak, bizikleta-ibilaldiak eta beste ekitaldi batzuk kontrolatzeko eta ordenatzeko poliziaren konpainia-zerbitzuagatik ezarritako tasa.

2. Aurreko apartatuaren ondorioetarako, irabazi-asmorik gabeko entitatetzat hartuko dira fundazioak, onura publikoaren deklarazioa duten elkarteak eta formalki eratuta eta erregistratuta dauden boluntarioen antolakundeak, baldin eta interes orokorreko helburuak badituzte eta ekitaldia antolatuz lortzen dituzten diru-sarrerak entitatearen estatutuetakoz helburuak edo entitatearen xedea betetzeko erabiltzen badituzte.

3. Kirol-federazioak, kirol-elkarteak eta kirol-klubak salbuetsita egongo dira tasa ordaintzetik, baldin eta, haien arauen arabera, irabazi-asmorik ez badute, antolatzen den ekitaldia doakoa bada joaten den jendearentzat eta ekitaldia antolatzeaz gastuak baino diru-sarrera handiagorik lortzen ez badute babesleen bidez edo beste kontzeptu batzuen bidez. Aldez aurretik, egiaztatuko da ekitaldia antolatzeaz egindako gastuak egokiak direla.

II. KAPITULUA. JOKO-BAIMENENGATIK EZARRITAKO TASA

106. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da zerbitzu hauek ematea:

- a) Jokorako materiala homologatzeko saiakuntza teknikoak egitea
- b) Jolas- eta zori-makinen joko-sistemen eta unitate zentrala duten joko-sistemen erregistroan inskribatzea.
- c) Joko-enpresen erregistroan inskribatzea.
- d) Agiri profesionalak egitea eta berritzea.
- e) Jolas- eta zori-makinen arloko administrazio-baimena ematea.
- f) Makina horien enpresa operadore izateko baimena ematea eta baimen hori aldatzea.
- g) Joko-aretoak edo jolas-aretoak ustiatzeko administrazio-baimena ematea.
- h) Bingo-aretoak instalatzeko eta irekitzeko administrazio-baimena ematea eta baimen hori aldatzea.
- i) Areto horiek kudeatzeko joko-enpresa izateko administrazio-baimena ematea eta baimen hori aldatzea.
- j) Joko-kasinoak instalatzeko eta irekitzeko administrazio-baimena ematea eta baimen hori aldatzea.
- k) Jarduera horietarako beste joko-enpresa edo -lokal batzuk jarri eta irekitzeko baimena ematea (jokoek Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoan egon behar dute sartuta).
- l) Erregelamendu bidez eskatzen diren liburuak eginbidetzea eta dokumentuak konpultsatzea.
- m) Instalatze-baimenak eskatzea.
- n) Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak joko-prozeduretan peritu-txostenak edo txosten teknikoak egitea.

107. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisika edo juridikoak.

108. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren zerbitzuak ematen direnean izango da. Halere, eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

109. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

- 1. Joko-materiala homologatzeko saiakuntza tekniko bakoitza:
 - 1.1. Bingoetako eta kasinoetako joko-materiala: 392,62
 - 1.2. Joko-makinak edo joko-makinen programak: 104,55
 - 1.3. Bingo-jokorako informatika-sistemak: 392,62
 - 1.4. Joko-makinen interkonexio-sistemak. Makina bakoitza: 117,80
 - 1.5. Joko-materialen edo -sistemen bestelako homologazioak: 392,62
- 2. Joko-sistemen erregistroan inskribatzea:
 - 2.1. «B» motako makinak edo jolas-makina saridunak: 554,04
 - 2.2. «P» motako makinak edo apustu-makina lagungarriak: 261,38
 - 2.3. «C» motako makinak edo zori-makinak: 313,65
 - 2.4. Bestelako joko-makinak: 104,55
 - 2.5. Unitate zentrala duten joko-sistemak: 554,04
 - 2.6. Joko-makinen interkonexio-sistemak: 554,04
- 3. Joko-enpresen erregistroan inskribatzea:
 - 3.1. Enpresa operadoreak, fabrikatzaileak, banatzaileak, merkaturatzaileak, laguntza

teknikokoak, inportatzaileak eta interkonexioen eta aretoen hornitzaileak:	196,33
3.2. Bingo-jokoen enpresak, txartel-ustiatzaileak, apustu-ustiatzaileak eta bestelako joko-enpresak:	392,62
3.3. Joko-kasinoen enpresak:	588,96
3.4. Inskripzioa berritzea, ebazpena eskatzen duenean: inskripziorako tarifaren % 50	
4. Baimenak, hauetarako:	
4.1. Joko-kasinoak:	1.963,12
4.2. Bingo-aretoak:	981,56
4.3. Joko-aretoak, apustu-lokalak eta Jokoen Katalogoan dauden jokoetarako beste lokal espezifiko batzuk:	471,15
4.4. Errifak eta tonbolak:	133,10
4.5. «C» motako makinak edo zori-makinak ustiatzeko baimenak:	62,12
4.6. Beste joko-makina batzuk ustiatzeko baimenak:	62,12
4.7. Bingo metatu interkonektatua:	78,53
4.8. Joko-lokalak instalatzeko eta jarduteko baimena eskualdatzea:	157,04
4.9. Kasinoko joko propioetako txapelketak:	181,06
4.10. Zuzendaritzaren jarduna eskatzen duten beste izapide batzuk:	78,53
5. Baimenak berritzea edo aldatzea:	
5.1. Joko-kasinoen baimenak berritzea edo aldatzea:	667,47
5.2. Bingo-aretoen baimenak berritzea edo aldatzea:	314,09
5.3. Apustu-lokalen edo joko-aretoen baimenak berritzea edo aldatzea:	157,04
6. Ebazpena eskatzen duten beste baimen batzuk:	104,55
7. Joko-makinei dagozkien beste izapide batzuk:	
7.1. Makinak ustiatzeko baimenak eskualdatzea. Makina bakoitza:	26,14
7.2. Establezimendu-aldaketak edo makina-aldaketak. Makina bakoitza:	26,14
7.3. Ustiatzeko baimenaren edo kokatze-buletinaren ale bikoiztua:	78,42
8. Erregelamendu bidez eskatzen diren liburuak eginbidetzea eta dokumentuak konpultsatzea:	
8.1. Liburuak eginbidetzea. 100 orriko multzo edo frakzio bakoitza:	19,65
8.2. Dokumentuak konpultsatzea. Lehenengo 10 orriak:	3,93
8.3. Enpresei, baimenei edo joko-makinei buruzko ziurtagiriak:	52,28
Gainerakoak, 0,41 euro konpultsatutako orri bakoitzeko	
9. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak joko-prozeduretan peritu-txostenak edo txosten teknikoak egitea:	209,10

III. KAPITULUA. IKUSKIZUNEI DAGOKIEN TASA

110. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasaren sortzapena zerga-e Tasa honen zerga-egitatea da zerbitzu hauek ematea:

- Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunak baimena ematea jendaurreko ikuskizunak eta, oro har, aisialdiko jarduerak egiteko.
- Establezimendu publikoak ireki eta ixteko ordutegiak luzatzeko baimena ematea.
- Sarrerak komisioren saltzeko edo birsaltzeko baimena ematea.
- Erregelamendu bidez eskatzen diren liburuak eginbidetzea eta dokumentuak konpultsatzea.
- Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak ikuskizun-prozeduretan peritu-txostenak edo txosten

teknikoak egitea.

- f) Baimenik behar ez duten jendaurreko ikuskizun edo aisialdiko jardueren kasuan, indarrean dagoen araudiak ezarritako betekizunak betetzen ote diren egiaztatzea.

111. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

112. artikulua. Sortzapena.

1. Tasaren sortzapena zerga-egitate diren zerbitzuak ematen direnean izango da. Halere, eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, baimenen kasuan, baimendutako ikuskizun bakoitzagatik izango da tasaren sortzapena, edozein dela ere ebazpen berean baimendutako ikuskizunen kopurua.

113. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1. Ikuskizunak eta aisialdiko jarduerak baimentzea.
 - 1.1 Ikuskizunak eta aisialdiko jarduerak baimentzea:

- 700 pertsonara arteko edukiera:	62,73
- 701 pertsonatik 1.999ra bitarteko edukiera:	156,83
- 2.000 pertsonatik 5.000ra bitarteko edukiera:	313,65
- 5.001 pertsonatik 10.000ra bitarteko edukiera:	627,30
- 10.000 pertsonatik gorako edukiera:	1.568,25
 - 1.2 Pirotekniazko lehergailuak jaurtitzea 157,05
2. Zezen-ikuskizunetarako baimena.
 - 2.1 Zezen-ikuskizunak, oro har: 314,09
 - 2.2 Zezen-ikuskizun tradizionalak: 58,91
 - 2.3 Beste Zezen-ikuskizun batzuk: 58,91
 - 2.4 Zezen-plaza finkoak berriz irekitzeko baimena 522,75
3. Ordutegiak eta ikuskatzeak.
 - 3.1 Ordutegia luzatzea:
 - 3.1.1 Kasu eta data zehatzetarako: 78,77
 - 3.1.2 Hiru hilabetetik gorako aldietarako: 196,33
4. Sarrerek birsaltzeko baimena: 78,53
5. Erregelamendu bidez eskatzen diren liburuak eginbidetzea eta dokumentuak konpultsatzea.
 - 5.1 Liburuak eginbidetzea. 100 orriko multzo edo frakzio bakoitza: 19,64
 - 5.2 Dokumentuak konpultsatzea. Lehenengo 10 orriak: 3,93

Hortik aurrera, 0,387567 euro konpultsatutako orri bakoitzeko.
6. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak ikuskizun-prozeduretan perituxostenak edo txosten teknikoak egitea: 104,55

7. Baimenik behar ez duten jendaurreko ikuskizun edo aisialdiko jardueren kasuan, indarrean dagoen araudiak ezarritako betekizunak betetzen ote diren egiaztatzea: 58,30

114. artikulua. Salbuespenak.

Zerga-egitate diren zerbitzuen hartzaileak udalak direnean, salbuetsita egongo dira tasa ordaintzetik.

IV. KAPITULUA. SEGURTASUN PRIBATUAREN ARLOKO JARDUERAK ETA ZERBITZUAK EMATEAGATIK EZARRITAKO TASA

115. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da Segurtasun Sailburuordetzak segurtasun pribatuaren arloan zerbitzuak ematea eta jarduerak egitea. Hauek zehazki:

- a) Segurtasun-enpresak baimentzea, haien erantzukizunpeko adierazpena jasotzea eta enpresok Euskadiko Segurtasun Pribatuaren Erregistroan inskribatzea.
- b) Inskripzioan aldaketak egitea.
- c) Segurtasun-enpresen ordezkariak irekitzeko baimena ematea.
- d) Detektibe-bulegoen erantzukizunpeko adierazpena jasotzea, bulegoak inskribatzea eta sukurtsalak baimentzea.
- e) Segurtasun pribatuko langileak prestatzeko eta eguneratzeko zentroen erantzukizunpeko adierazpena jasotzea eta zentroak inskribatzea.
- f) Baimentzea, batetik, eskolta pribatuen zerbitzuak eta, bestetik, segurtasun-zaindarien eta landazainek armekin egin beharreko zaintza-zerbitzuak.
- g) Segurtasun-zerbitzuak baimentzea industrialde edo urbanizazioetan, merkataritza- eta aisialdi-gune edo -parkeetan, kirol- eta kultura-arloko ekitaldietan edo oihartzun soziala duen beste edozein ekitalditan, baldin eta bide edo espazio publikoak edo erabilera erkideko guneak erabiltzen badira edo mugatuta dauden esparru eta espazio irekiak erabiltzen badira.
- h) Segurtasun-zaindariak ordezkatzeko zerbitzua ezartzeko baimena.
- i) Ibilgailuen giltzak zaintzeko zerbitzuak emateko baimena.
- j) Segurtasun-neurriak eduki behar dituzten establezimenduak eta instalazioak irekitzeko baimena ematea edo egiaztatu behar diren erreformak jakinaraztea, segurtasun-neurriak hartzetik dispentsatzea eta, oro har, beste edozein baimentze edo egiaztatze, beharrezkoa duten heinean Administrazioako langileak bertaratzea edo txostena egitea.
- k) Ziurtagiriak egitea.
- l) Dokumentuak konpultsatzea eta liburuak eginbidetzea.

116. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira segurtasun pribatuaren arloko administrazio-zerbitzuak eta -jarduerak eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, edo, Administrazioak ofizioz jardunez gero, zerbitzu eta jardueren hartzaileak.

117. artikulua. Sortzapena.

1. Zerga-egitate den administrazio-zerbitzua ematen edo -jarduketa gauzatzen denean izango da tasaren sortzapena.

Hala ere, eskaera aldeztu aurretik egiten den kasuetan, eskaera egiten den unean eskatuko da ordainketa, eta, ordaintzen ez bada, ez da egingo edo izapidetuko administrazio-zerbitzua edo -jarduketa.

2. Tasaren zerga-egitatea den administrazio-zerbitzua edo -jarduketa Administrazioak ofizioz egiten duen kasuetan, zenbateko zenbatetsia aurretiaz gordailutzeko eska daiteke, gerora egingo den

likidazioaren kontura.

118. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1.	Segurtasun-enpresak baimentzea, haien erantzukizunpeko adierazpena jasotzea eta enpresok inskribatzea.	390,84
2.	Aldaketak egitea honako inskripzio-idazpen hauetan: egoitza soziala, forma juridikoa, jarduteko lurralde-eremua eta jardueren hedapena, barnean hartuta Administrazioako langileak bertaratzea eta txostena egitea.	274,59
3.	Aldaketak egitea honako inskripzio-idazpen hauetan: kapital soziala, akzioen eta partaidetzen titulartasuna, estatutuen aldaketak, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaeran izandako aldaketak eta segurtasuneko langileen uniformetasun-aldaketak.	118,26
4.	Segurtasun-enpresen ordezkariak irekitzeko baimena.	148,35
5.	Detektibe-bulegoen erantzukizunpeko adierazpena jasotzea, bulegoak inskribatzea eta sukurtsalak baimentzea.	357,42
6.	Segurtasun pribatuko langileak prestatzeko eta eguneratzeko zentroen erantzukizunpeko adierazpena jasotzea eta zentroak inskribatzea.	357,42
7.	Eskolta pribatuen zerbitzuak ematea baimentzea.	220,50
8.	Segurtasun-zaindarien eta landazainek armekin egin beharreko zaintza-zerbitzuak baimentzea.	220,50
9.	Segurtasun-zerbitzuak baimentzea industrialde edo urbanizazioetan, merkataritza- eta aisialdi-gune edo -parkeetan, kirol- eta kultura-arloko ekitaldietan edo oihartzun soziala duen beste edozein ekitalditan, baldin eta bide edo espazio publikoak edo erabilera erkideko guneak erabiltzen badira edo mugatuta dauden esparru eta espazio irekiak erabiltzen badira.	220,50
10.	Segurtasun-zaindariak ordezkatzeko zerbitzua ezartzeko baimena ematea.	220,50
11.	Ibilgailuen giltzak zaintzeko zerbitzuak emateko baimena ematea.	220,50
12.	Segurtasun-neurriak eduki behar dituzten establezimenduak eta instalazioak irekitzeko baimena ematea edo egiaztatu behar diren erreformak jakinaraztea, segurtasun-neurriak hartzetik dispentsatzea eta, oro har, beste edozein baimentze edo egiaztatze, beharrezkoa duten heinean Administrazioako langileak bertaratzea edo txostena egitea.	220,50
13.	Ziurtagiriak egitea.	24,07
14.	Dokumentuak konpultsatzea eta liburuak eginbidetzea.	4,50

V. KAPITULUA. BILAKETA-, ERRESKATE- EDO SALBAMENDU-ZERBITZUENGATIK EZARRITAKO TASA

119. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Tasa honen zerga-egitea da segurtasun-arloan eskumena duen sailaren koordinazioko eta esku-hartzeko taldeek —sailarenak berarenak izan zein hitzartutakoak—, segurtasun publikoko arrazoiengatik, egoera zailean dauden pertsonak bilatzeko, erreskatatzeko edo salbatzeko zerbitzuak ematea, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, betiere ematen den zerbitzua subjektu pasibotzat jotako horren onerako den heinean eta inguruabar hauetakoren batean gertatzen bada:

- a) Pertsonentzat arriskutsuak diren aisialdi- edo kirol-jardueren ondorioz egiten badira bilaketa-erreskate- edo salbamendu-lanak.

Tasa hau aplikatzeari dagokionez, aisialdi- eta kirol-jarduera hauek joko dira pertsonentzat arriskutsutzat, modalitate eta estilo guztietan: urpekaritza, igeriketa-zeharkaldiak, windsurfa, flysurfa, uretako eskia, wakeboarda, wakesurfa, skurferra, uretako motorrak, bodyboarda, surfa, raftinga, hydrospeeda, piraguismoa, arraunketa, arroilen eta troken jaitsiera, zubi-jauzia, gominga, kite buggya, quadak, eskalada, kirol-espeleologia edo "espeleismoa", mendiko bizikleta babes-kaskorik gabe, moto-krosa, mendiko motordun ibilgailuak, raid eta trec diziplinetako hipika, zaldizko turismo eta ibilaldiak, eskia, snowboarda, elurretako motorrak, paraskia, snowbikea, mushinga, skibikea, aerostazioa, parakaidismoa, base-jauzia, hegaldiak ultrarinetan, hegaldiak motordun eta motorrik gabeko aparatuetan, parapentea, delta hegala eta parasailinga.

Pertsonentzat arriskutsuak diren beste aisialdi- eta kirol-jarduera batzuk ere ezarri ahal izango dira erregelamendu bidez.

- b) Arriskutsutzat seinalizatuta dauden lekuetan edo sarbidea mugatua edo debekatua dutenetan egiten badira bilaketa-, erreskate- edo salbamendu-lanak.
- c) Bilaketa-, erreskate- edo salbamendu-lanak egiteko orduan, fenomeno meteorologiko gogorren ondorioz alerta laranja edo gorria ezarrita badago (herritarrei hala jakinarazita) eta egoera meteorologiko horrek jarduera jakin batzuk egiteko arriskua handitzen badu.
- d) Objektiboki justifikatutako arrazoirik gabe eskatzen bada zerbitzua, edo arriskua dagoelako itxurak egiten badira.

2. Pertsonen bilaketa-, erreskate- edo salbamendu-zerbitzuak emateagatik ezarritako tasa ez da ordaindu behar izango katastrofe edo hondamendi publikoko egoeretan, edota zerbitzu horiek interes orokorreko arrazoiengatik ematen direnean eta ez partikularren edo ondasun jakinen mesedetan.

Era berean, ez da tasa ordaindu beharrik izango itsasoan pertsonak salbatzeagatik edo ontziak erreskatatzeagatik, legeria espezifikoa eta nazioarteko hitzarmenetan aurreikusita dauden kasuetan.

120. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Tasa honen subjektu pasibo dira zerbitzuaren onuradun diren pertsona fisikoak edo juridikoak eta Tributuen Lege Orokorraren 35.4 artikuluan aipatutako entitateak —horiek ere zerbitzuaren onuradun diren heinean—.

2. Tasa honen subjektu pasibo dira, halaber, tasari lotutako zerbitzua emanarazi duten aisialdi- eta kirol-jarduerak antolatu dituztenak.

Kasu horretan, tasa ordaintzeko erantzukizun subsidiarioa izango dute artikulua honetako 1. apartatuan adierazitako subjektu pasiboak.

3. Subjektu pasiboak aseguru-poliza bat kontratatuta badauka tasa honi lotutako kasuak estaltzeko, aseguru-entitate edo -sozietateak izango dira ordezeko subjektu pasiboak. Tasaren kuotaren muga polizan kontzeptu horretarako aseguraturako zenbatekoa izango da, eta, halakorik ez badago, prestazio osorako aseguru-zenbatekoa.

121. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen hasten denean izango da, hau da, zerbitzu-emaileak zerbitzua ematera irteten diren unean.

122. artikulua. Kuota.

1. Kuota zehazteko, bi faktore hartuko dira kontuan: batetik, zerbitzua emateko erabilitako profesionalen eta baliabide materialen kopurua, eta, bestetik, profesional edo baliabide material bakoitzak zerbitzua ematen igarotako denbora.

2. Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (euroak orduko):

- 1. Giza baliabideak (pertsona bakoitzeko)

42,61

2. Baliabide materialak:

2.1. Ibilgailu bakoitza	44,97
2.2. Helikoptero bakoitza	2.476,83
2.3. Ontzi bakoitza:	
- 18 metroko edo gutxiagoko luzera dutenak	453,24
- 18 metrotik gorako luzera dutenak	2.386,86

Ordu-frakzioen kasuan, proportzionalki aplikatuko dira tarifaren zenbatekoak. Gehienez ere lau orduko tarteak likidatuko da.

3. Tasa hau likidatzean, 19. artikuluan ezarritakoaz gain, esku hartu duten pertsonak eta baliabideak adieraziko dira, baita unitate kopurua eta erabilitako denbora eta kontzeptu bakoitzari dagokion indarreko tarifaren zenbatekoa ere.

Zerbitzu berari subjektu pasibo bat baino gehiago badagozkio, denen artean hainbanatuko da kuota.

123. artikulua. Salbuespenak eta hobariak.

1. Subjektu pasiboek kuotaren % 80ko hobaria izango dute.
2. Tasa hau ordaintzetik salbuetsita egongo dira subjektu pasibo hauek:
 - a) Edozein eratako anomalia, urritasun edo asaldurik psikikoa dutenak.
 - b) 16 urtez azpikoak.
 - c) Erreskatean edo aurreko fasean hildakoak, edo ondorengo fase batean hildakoak baldin eta bilaketa, erreskatea edo salbamendua eragin zuten arrazoiengatik hil badira.
3. Aurreko 120. artikuluan 2. eta 3. apartatuetan aipatzen diren tributu-betebeharpekoak ez zaie inolako salbuespenik ezta hobaririk aplikatuko.

VI. KAPITULUA. ERTZAINZAREN ZERBITZU BEREZIENGATIK EZARRITAKO TASA

124. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da Ertzaintzak zerbitzuak ematea, zerbitzu horiek bereziki onuragarriak badira pertsona edo entitate jakinentzat edo, onuragarriak izan gabe ere, zuzenean eragiten badiete pertsona edo entitateei, eta, betiere, azkeneko kasu horretan, Ertzaintzaren lana pertsona edo entitate horiek eragindakoa bada, zuzenean edo zeharka, unean-unean pertsona eta ondasunentzako benetako arriskua dagoelako zaintza eta babes bereziko aparteko zerbitzuak eman behar direnean, berritu ahal izateko irabazi-asmoarekin antolatutako jendaurreko ikuskizun jendetsu bat —kiroletakoa edo bestelakoa— behar bezala gauzatu ahal izango dela, bai ekitaldian bertan, bai ekitaldiaren aurretik edo ondoren, ezinbesteko denboraz, ekitaldiaren esparruan edo lekuan bertan zein inguruetan. Halaber, kirolzaleei eta kirol-klubei eskolta- eta konpainia-zerbitzuak ematea.

125. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasibo zergadunak dira zerbitzua behar duten ekitaldiak antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak edo zerbitzu hori jasotzeko eskaria egiten dutenak.

126. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen hasten denean izango da, hau da, zerbitzu-emaileak zerbitzua ematera irteten diren unean.

127. artikulua. Kuota.

1. Erabiltzaileen sarbide-kontrola duten instalazioetan egindako kirol-lehiaketa profesional edo

profesionalizatueta, kuota zehazteko, ezaugarri hauek hartuko dira kontuan: zenbatekoa den instalazio horien edukiera eta zer kirol-mailatakoa den lehiaketa, bai, halaber, kirol-ekitaldia arrisku handikotzat jotzen den ala ez.

Tasaren zenbatekoa zehazteko, 0,1 koefizientea aplikatuko zaio instalazio horietan une bakoitzean baimendutako gehieneko edukierari, eta horren emaitzari honako faktore hauek aplikatuko zaizkio:

a) Lehiaketa ofiziala bada eta nazioartekoa edo Europa-mailakoa, edo mailarik gorenekoa bada Estatuan antolatutako lehiaketen artean (besteak beste, ohorezko ligak, lehen maila, kopak edo superkopak): 1,00.

b) Lehiaketa ofiziala bada baina ez bada nazioartekoa edo Europa-mailakoa, edo bigarren mailakoa bada Estatuan antolatutako lehiaketen artean: 0,60.

c) Lehiaketa ofiziala bada baina ez bada nazioarteko edo Europa-mailakoa, edo hirugarren mailakoa bada (edo maila baxuagokoa) Estatuan antolatutako lehiaketen artean: 0,30.

d) Kirol-ekitaldia lagunartekoa bada edo erakustaldia bada: 0,30.

Eragiketa horien ondoriozko tasaren zenbatekoa bikoiztu egingo da kirol-ekitaldia arrisku handikotzat jotzen bada.

Halaber, tasaren zenbatekoa, oro har, ezingo da izan 500,00 eurotik beherakoa. Arrisku handikotzat jotako kirol-ekitaldien kasuan, berriz, ezingo da izan 1.000,00 eurotik beherakoa.

Futbola ez den kirol-ekitaldietan, tasaren zenbatekoa ezingo da 1.500,00 eurotik gorakoa izan, eta, ekitaldia arrisku handikotzat jotzen bada, ezingo da 3.000,00 eurotik gorakoa izan.

Kuota hori aplikatuko da —1. apartatu honetan jasotako zehaztapenen arabera kalkulatua—, baldin eta kuotaren zenbatekoak ez badu gainditzen artikulu honen beraren 2. apartatuan jasotzen den kalkulu-prozeduraren arabera lortutako zenbatekoa.

2. Gainerako ekitaldietan, kuota zehazteko, bi aldagai hartuko dira kontuan: batetik, zenbat funtzionariok ematen duten zerbitzua, eta, bestetik, zenbat denbora erabiltzen duen funtzionario bakoitzak zerbitzu hori emateko.

Tarifa hau aplikatuko da tasa ezartzeko: 34,58 euro funtzionario eta orduko.

Ordu-frakzioen kasuan, proportzionalki aplikatuko dira tarifaren zenbatekoak. Hau izango da ekitaldi-egun bakoitzean likidatu beharreko gehieneko denbora: ekitaldiak irauten duen denbora osoa eta, hala badagokio, ekitaldia hasi aurreko eta bukatu ondorengo ordua. Kirolzaleei eta kirol-klubei emandako eskolta- eta laguntza-zerbitzuen likidazioan ez da muga hori aplikatuko.

Tasa honen likidazioan, 19. artikuluak ezartzen duenaz gain, datu hauek zehaztu beharko dira: parte hartu duten funtzionarioen kopurua, erabilitako denbora eta indarrean dagoen tarifaren zenbatekoa.

128. artikulua. Salbuespenak.

Antolatzaileak administrazio publikoak edo irabazi-asmorik gabeko entitateak badira, tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira. Salbuetsita geratuko dira, halaber, emakumeen kirol-ekitaldiak.

Ondorio horietarako, irabazi-asmorik gabeko entitatetzat joko dira fundazioak, onura publikoaren deklarazioa duen elkarteak eta formalki eratuta eta erregistratuta dauden boluntarioen antolakundeak, baldin eta interes orokorreko helburuak badituzte eta ekitaldia antolatuz lortzen dituzten diru-sarrerak entitatearen estatutuetako helburuak edo entitatearen xedea betetzeko erabiltzen badituzte.

Kirol-federazioak, kirol-elkarteak eta kirol-klubak salbuetsita egongo dira tasa ordaintzetik, baldin eta, haien arauen arabera, irabazi-asmorik ez badute, antolatzen den ekitaldia doakoa bada joaten den jendearentzat eta ekitaldia antolatzeko gastuak baino diru-sarrera handiagorik lortzen ez badute babesleen bidez edo beste kontzeptu batzuen bidez. Aldez aurretik, egiaztatuko da ekitaldia antolatzeko egindako gastuak egokiak direla.

VI. TITULUA. INDUSTRIA- ETA NEKAZARITZA-ARLOETAKO TASAK

I. KAPITULUA. INDUSTRIA, INDUSTRIA-SEGURTASUN, ENERGIA ETA MEATEGIEN ARLOETAKO ZERBITZU KOMUNAK EMATEAGATIK EZARRITAKO TASA

129. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da industria, industria-segurtasun, energia eta meategien arloetako zerbitzu komunak ematea, hala ofizioz, nola interesdunak eskaturik. Hona hemen zerbitzu horiek:

- a) Egiaztagiri profesionalak eta enpresa baimenduaren ziurtagiriak.
- b) Desjabetze-prozedurak.
- c) Abian jartzeko administrazio-baimena behar duten jarduerak.
- d) Beste tarifetan jasota ez dauden ziurtagiriak egitea.

130. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak.

131. artikulua. Sortzapena.

- 1. Tasaren sortzapena, oro har, zerga-egitate diren zerbitzuak ematen diren unean izango da. Halere, eskaera egiten edo espedientearen hasten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.
- 2. Desjabetze-prozeduretan, okupazio-beharra deklaratzeko batera eskatuko da aldeaz aurreko ordainketa.

132. artikulua. Tasaren elementu kuantitatiboak.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

- 1. Oinarritzko tarifa.
Oinarritzko tarifa bat ezartzen da aplikatzeko izango dena zerbitzuaren tasa makineria, tresneria, instalazio eta abarren aurrekontuaren arabera finkatzen den kasuetarako. Horretarako, portzentajezko koefiziente zuzentzaile batzuk aplikatzen dira, zerbitzuak kostuaren arabera bereizteko:

600.000 euroraino:	128,10
Gainerakoa 100.000 euro edo frakzio bakoitzeko:	76,86
Gehieneko kopurua:	787,77
- 2. Profesionalen egiaztagiriak eta enpresa baimenduaren ziurtagiriak.

2.1 Azterketa-eskubideak:	15,71
2.2 Txartela, enpresa-ziurtagiriak edo Enpresa Kalifikazioko Agiria (EKA) egitea eta berritzea:	19,21
- 3. Desjabetze-prozedura.
Nahitaezko desjabetzea eskatzen duten administrazio-izapideak egiteagatik: 768,54
- 4. Abian jartzeko administrazio-baimena behar duten jarduerak.
Oinarritzko tarifa aplikatzea.
- 5. Beste tarifetan jasota ez dauden ziurtagiriak egitea:

5.1 Ikuskapenik gabe:	15,37
5.2 Ikuskapenarekin:	102,47

II. KAPITULUA. INDUSTRIAREN ETA INDUSTRIA-SEGURTASUNAREN ARLOETAKO ZERBITZUAK EMATEAGATIK EZARRITAKO TASA

133. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da honako zerbitzu hauek ematea:

- a) Kontrol metrologikoa egitea.
- b) Ibilgailuen azterketa teknikoak eta horiei dagozkien agiriak egitea.
- c) X izpien instalazioak erregistroan inskribatzea.
- d) Substantzia arriskutsuak tarteko gertatzen diren istripuei lotutako arriskuak ebaluatzea.

134. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak.

135. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren zerbitzuak ematen diren unean izango da. Halere, eskaera egiten edo espedientea hasten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

136. artikulua. Tasaren elementu kuantitatiboak.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1.	Metrologia.		
	1.1	Modeloa onartzea:	
		Onartzeko aurkeztutako modelo bakoitza:	128,10
		Onartutako modelo batean funtsezkoak ez diren aldaketak egitea:	64,04
		Lehenago emandako onarpenak luzatzea:	64,04
	1.2	Neurtzeko tresnen jatorrizko egiaztapenak.	
		Egiaztatutako unitate bakoitzagatik, taula honen arabera eskatuko da tasa:	
		Publikoarentzako salmenta-prezioa:	
		6,01 arte	publikoarentzako salmenta-prezioaren gaineko % 5
		6,14tik 300,51ra	0,41 + 6,01etik gorako soberakoaren % 2
		300,52tik 601,01era	7,93 + 300,51tik gorako soberakoaren % 1
		601,02tik 1.502,53ra	11,79 + 601,01etik gorako soberakoaren % 0,8
		1.502,54tik 3.005,06ra	21,03 + 1.502,53tik gorako soberakoaren % 0,6
		3.005,07tik 6.010,12ra	33,86 + 3.005,06tik gorako soberakoaren % 0,4
		6.010,13tik 30.050,61era	47,98 + 6.010,12tik gorako soberakoaren % 0,2
		30.050,62tik aurrera	109,56 + 30.050,61etik gorako soberakoaren % 0,1
		Jatorrizko egiaztapena laginketa bidez egiten bada, tasaren zenbatekoa laginaren unitate kopuruaren arabera izango da, eta unitate bakoitzaren prezioari 1.2 tarifa honen taulan dagokiona aplikatuz kalkulatu da.	
	1.3	Metrologia-egiaztapena:	
		Metrologia-egiaztapenaren ziurtagiri bakoitzeko: 132. artikuluen 5. tarifa aplikatuko da.	
2.	Ibilgailuak.		
	2.1	Ibilgailuen aldizkako ikuskapenak.	
		2.1.1 Motozikletak eta ziklomotorrak:	23,05
		2.1.2 Ibilgailu arinak:	42,27
		2.1.3 Ibilgailu astunak:	56,39
		2.1.4 Atoiak eta nekazaritzako ibilgailuak:	35,85

	2.2	Taximetroen ikuskapenak:	25,62
	2.3	Ikuskapen-lerrotik pasa beharrik gabeko gainerako ikuskapenak:	25,62
	2.4	Ikuskapen-lerrotik pasa beharreko gainerako ikuskapenak: 24,62 euro gehi 2.1 puntuan adierazitakoa.	
	2.5	Etkez etxeko ikuskapenak: Dagokion tasa gehi 0,66 euro kilometroko.	
3.		X izpien instalazioak.	
	3.1	Mediku-diagnostikoak egiteko X izpien instalazioen erregistro-inskripzio bakoitza	25,62
4.		Arriskuen ebaluazioa.	
	4.1	Arriskuen analisisa ebaluatzea.	
		4.1.1. Kuota finkoa: espedientea hastea:	2.971,31
		4.1.2. Kuota aldakorra (hurrengo a eta b letrak aplikatuta ateratako zenbatekoen batura):	
		a) Establezimenduaren mugetatik kanpo ondorioak sortzen dituen eta kuantifikatuta dagoen istripu-kasu bakoitza :	424,47
		b) Establezimenduaren mugetatik kanpo ondorioak sortzen dituen eta kuantifikatuta dagoen istripu-kasu bakoitza, baldin eta, gainera, arriskuen analisi kuantitatiboaren ebaluazioa beharrezkoa bada:	424,47
		4.1.3. Kanpoko larrialdietako plana egiteko oinarrizko informazioa ebaluatzea:	185,71
	4.2	Jada ebaluatutako segurtasun-txostenak berrikustea: Aurreko 4.1 apartatuan aurreikusitako tarifa aplikatuta lortutako zenbatekoen % 50.	

III. KAPITULUA. MEATZE-ZERBITZUENGATIK EZARRITAKO TASA

137. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da meatzaritza-baliabideak esploratzeko eta ikertzeko baimenak, meatzaritza-baliabideak ustiatzeko emakidak eta meatze-antolamenduarekin zerikusia duten gainerako zerbitzuak ematea; halaber, jabari publikoaren erabilera pribatiboa egitea, bat etorrita meatzaritza erregulatzen duen araubidearekin.

138. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta aurreko artikuluan aipatzen diren baimenen eta emakiden titularrak ere.

139. artikulua. Sortzapena.

1. Tasaren sortzapena, oro har, zerga-egitate diren zerbitzuak ematen diren unean izango da. Halere, eskaera egiten edo espedientea hasten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

2. Baimen eta emakidetan, jabari publikoaren erabilera pribatiboari dagokion tasaren (azalera-kanona) sortzapen-unea, oro har, hau izango da: baimena edo emakida emateko erabakiak aipatzen duen eskubidea sortzen den eguna, hau da, emakidadunak emakidaren titulua hartu izanaren agiria sinatzen duen eguna.

3. Ikertze-baimenetan edo ustiatze-emakidetan, esleipenaren osteko hurrengo urteetan, urte naturaleko lehenbiziko egunean izango da jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik ezarritako tasaren (azalera-kanona) sortzapena, data horretan indarrean diren baimen eta emakida guztietarako.

4. Ikertze-baimenak edo ustiatze-baimenak urtarilaren 1a baino geroago ematen badira, esleitu diren urtean ordaindu beharreko tasa ez da osoa izango, dagokion heinekoa baizik, hau da, esleitu diren egunetik urte naturala amaitu arteko aldiari dagozkion kuoten zati proportzionala.

Aurreko paragrafoko irizpide bera erabiliko da ikertze-baimenei uko egiten zaienean edo iraungitzen direnean; kasu horietan, ukoa onartzen den edo baimena iraungia dela adierazten den egunaz

geroztik, ez da tasaren sortzapenik izango.

5. 140. artikulua 2. apartatua esplorazio-baimenetarako zehazten diren tarifak baimenaren iraupen-aldi osoari dagozkio, hots, urte osoari, eta berriro ordaindu beharko dira baimenaren iraupen-epea beste urtebetez luzatzen bada.

140. artikulua. Tasaren elementu kuantitatiboak.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1.	Meatze-antolamendua.	
1.1.	Esplorazio-baimena.	
1.1.1.	1.000 lauki-sarerraino:	2.487,91
1.1.2.	Lauki-sare gehigarri bakoitza, 1.000 lauki-saretik aurrera:	2,35
1.2.	Ikertze-baimena.	
1.2.1.	Lehenengo lauki-sarea:	2.526,82
1.2.2.	Lauki-sare gehigarri bakoitza:	11,68
1.3.	Meatzaritza-legerian aurreikusitako A eta B ataletako meatzaritza-baliabideak aprobetxatzeko baimena eta leheneratze-proiektuak egiteko baimena.	
1.3.1.	20 hektarearaino:	3.615,26
1.3.2.	Hektarea gehigarri bakoitza, 20 hektareatik aurrera:	46,69
1.4.	Meategiak ustiatzeko emakidak.	
1.4.1.	Ikertze-baimenetatik eratorriak.	
1.4.1.1.	50 lauki-sarerraino:	2.487,91
1.4.1.2.	Lauki-sare gehigarri bakoitza, 50 lauki-saretik aurrera:	46,69
1.4.2.	Zuzeneko ustiatze-emakidak.	
1.4.2.1.	50 lauki-sarerraino:	3.615,26
1.4.2.2.	Lauki-sare gehigarri bakoitza, 50 lauki-saretik aurrera:	46,69
1.5.	Meatzaritzako eskubide eta baimenen transmisio-, errentamendu- edo karga-eskaera.	
1.5.1.	Meatzaritza-legerian aurreikusitako A eta B atalak: artikulua honen 1.3 apartatuko tarifaren % 50.	
1.5.2.	Meatzaritza-legerian aurreikusitako C eta D atalak: artikulua honen 1.4 apartatuko tarifaren % 50.	
1.6.	Meatzaritzako baimen eta emakiden iraungitze-eskabidea.	
1.6.1.	Meatzaritza-legerian aurreikusitako A eta B atalak: artikulua honen 1.3 apartatuko tarifaren % 50.	
1.6.2.	Meatzaritza-legerian aurreikusitako C eta D atalak: artikulua honen 1.4 apartatuko tarifaren % 50.	
1.7.	Meategiak ustiatzeko emakiden eta baimenen aldaketak: artikulua honen 1.3 eta 1.4 apartatuetako tasaren % 50.	
2.	Meatzaritzako baimen eta emakiden bitartez jabari publikoaren erabilera pribatiboa egitea (azalera-kanona).	
2.1.	Esplorazio-baimenak.	
2.1.1.	Lauki-sare bakoitza, 1.000raino:	0,33

2.1.2.	Lauki-sare bakoitza, 1.001etik 2.000ra bitarte:	0,41
2.1.3.	Lauki-sare bakoitza, 2.000tik aurrera:	0,51
2.2.	Ikertze-baimenak.	
2.2.1.	Lauki-sare bakoitza:	19,03
2.3.	Ustiatze-emakidak.	
2.3.1.	22/1973 Legea baino lehenagoko legerien arabera emandakoak.	
2.3.1.1.	Hamar hektareako multzo bakoitza edo frakzioa eta urte bakoitza, 280 hektarearaino:	273,94
2.3.1.2.	Hamar hektareako multzo bakoitza edo frakzioa eta urte bakoitza, 280 hektareatik aurrera:	68,47
2.3.2.	22/1973 Legeari jarraituz emandakoak.	
2.3.2.1.	Lauki-sare eta urte bakoitza, 10 lauki-sareraino:	760,94
2.3.2.2.	Lauki-sare eta urte bakoitza, 10 lauki-saretik aurrera:	190,22
2.4.	A ataleko meategiak ustiatzeko baimenak.	
2.4.1.	Urte bakoitzeko eta 5 hektarearaino:	3.804,65
2.4.2.	Hektarea gehigarri eta urte bakoitza, 5 hektareatik aurrera:	19,01
2.5.	B ataleko meategiak ustiatzeko baimenak. Babes-perimetro bakoitza.	
2.5.1.	20 hektarearaino:	3.804,65
2.5.2.	Hektarea gehigarri eta urte bakoitza, 20 hektareatik aurrera eta 70 hektarearaino:	19,01
2.5.3.	Hektarea gehigarri eta urte bakoitza, 70 hektareatik aurrera:	9,51
3.	Meatzaritzarekin lotutako beste zerbitzu batzuk.	
3.1.	Meatzaritzako ustiategietako urteko lehergai-kontsumorako baimena edo obra zibileko leherketetarako ereduazko proiektua onartzea.	
3.1.1.	1.000 kg lehergai arte:	31,08
3.1.2.	Hortik gora, 1.000 kg lehergaiko multzo bakoitza edo frakzio bakoitza:	3,09
3.2.	Meatze-baliabideen lan-planak onartzea: 132. artikulua oinarritzko tarifaren % 50, urteko ustiapen-aurrekontuari aplikatuta, 381,13 euroko mugarekin.	
3.3.	A, B, C eta D ataleko baliabideei buruz, arauak agindutako txostenak, demarkazioak, mugaketak eta ikuskapenak, eta Meatzaritzako Segurtasunaren Oinarritzko Arauei buruzko Araubide Orokorrean ezarritakoa: aurreko 132. artikuluko 5. tarifa.	

141. artikulua. Eratorritako emakidak.

Jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik ezarritako tasa aplikatzean, ustiatze-emakida ikertze-baimen batetik badator, likidazio osagarria egin beharko da, emakida esleitzeko erabakia irimo bihurtzen denetik urte naturala amaitu artekoa, hartatik kenduta emakidaren sorburu den ikertze-baimenaren aldi berari dagokion tasa.

142. artikulua. Ez ordaintzeagatik iraungitzea.

Lege honetako 22. artikuluan xedatutakoa gorabehera eta alde batera utzita meatzaritzari buruzko indarreko legeriaren arabera izan daitezkeen bestelako arrazoiak, jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik ezarritako tasa borondatez ordaintzeko epean ordaintzen ez bada eta bi hilabete igaro badira tributu-zorren ordainketa gauzatu edo bermatu gabe, iraungitzat joko dira meategiak ustiatzeko emakidak, baita meategiak esploratzeko eta ikertzeko baimenak ere; hargatik eragotzi gabe beste zehapen batzuk ere metatzea, bat etorrita arau-hauste eta zehapenen araubide

orokorrarekin.

IV. KAPITULUA. MAHASTIZAINZA- ETA ARDOGINZA-SEKTOREKO ERREGISTRO-LIBURUAK EGITEAGATIK EZARRITAKO TASA

143. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da mahastizaintza eta ardogintzaren arloan nahitaez bete beharreko erregistro-liburuak egitea, eredu hauen arabera:

- a) 1. eredua. Produktu hauen sarrerak eta irteerak erregistratzeko liburuak: mahaiko ardoa, eskualde jakin batean produzitutako kalitateko ardoa, ardoak elaboratzeko produktuak eta amaierako produktuak.
- b) 2. eredua. Produktu hauen sarrerak eta irteerak erregistratzeko liburua: elaborazio-prozesuak dituzten mahastizaintza eta ardogintzako produktuak (ardo aparduna, ardo apardun gasduna, eskualde jakin batean produzitutako kalitateko likore-ardoa, eskualde jakin batean produzitutako kalitateko ardo aparduna, eskualde jakin batean produzitutako ardo txinpartaduna, ardo aromatizatuak, sangria, mahats-zukuak eta bestelakoak).
- c) 3. eredua. Jarduera hauek erregistratzeko liburuak: praktika enologikoak, produktuak elaboratzeko prozesuak eta erregistratu beharreko prozesu eta praktiketarako produktuen mugimendua.

144. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren mahastizaintza eta ardogintzako produktuak elaboratu, biltegitatu eta ontziratze jardueretan aritzen diren nekazaritza-industrien titularrak-pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan-, betiere zerga-egitatean aipatzen diren erregistro-liburuak betetzeko betebeharra baldin badute.

145. artikulua. Sortzapena.

Zerga-egitatean aipatzen diren erregistro-liburuak eginbidetuta ematen direnean izango da tasaren sortzapena.

146. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1.	Lehenengo eredua, ale bakoitza:	23,55
2.	Bigarren eredua, ale bakoitza:	51,04
3.	Hirugarren eredua, ale bakoitza:	19,65

147. artikulua. Tasa likidatzea.

Subjektu pasiboek autolikidazioaren bitartez zehaztu eta ordaindu beharko dute tributu-zorra, erregelamenduz adierazitako tokian, moduan eta epeen barruan.

V. KAPITULUA. AISIALDIKO ITSAS ARRANTZARAKO LIZENTZIA EGITEAGATIK EZARRITAKO TASA

148. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da administrazio-zerbitzuak ematea, Itsas Arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legearen arabera aisialdiko itsas arrantzarako edo itsasertzean eta itsasadarretan itsas belarrak biltzeko behar diren lizentzietarako.

149. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira aisialdiko itsas arrantzarako lizentzia eskatzen duten pertsona fisikoak.

150. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren administrazio-jarduketak gauzatzen direnean izango da. Hala ere, dagokion lizentzia egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

151. artikulua. Kuota.

Hona tasaren zenbatekoa:

- Ur-azaleko arrantzarako lizentzia egitea (bost urteko balioa): 18,68 euro.
- Urpeko arrantzarako lizentzia egitea (urtebeteko balioa): 18,68 euro.

VI. KAPITULUA. ANGULA ARRANTZATZEKO LIZENTZIA EGITEAGATIK EZARRITAKO TASA**152. artikulua. Zerga-egitatea.**

Tasa honen zerga-egitatea da administrazio-zerbitzuak ematea, araudiaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko barne-uretan angulak lehorretik nahiz ontzitik arrantzatze lizentziak egin, berritu eta emateko.

153. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira angula arrantzatze lizentzia egitea, berritzea eta ematea eskatzen duten pertsona fisikoak.

154. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren administrazio-jarduketak gauzatzen direnean izango da. Halere, lizentzia egiteko eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

155. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1.	Angula lehorretik arrantzatze:	19,21
2.	Angula ontzitik arrantzatze:	76,86

VII. KAPITULUA. EHIZAN JARDUTEKO GAITASUNA EGIAZTATZEKO AZTERKETAGATIK EZARRITAKO TASA**156. artikulua. Zerga-egitatea.**

Tasa honen zerga-egitatea da Administrazioak behar diren zerbitzuak ematea ehizan jarduteko gaitasuna egiaztatze azterketarako.

157. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira ehizan jarduteko gaitasuna egiaztatze azterketa egiten dutenak.

158. artikulua. Sortzapena.

Ehizan jarduteko gaitasuna egiaztatze azterketa egiteko eskabideak aurkezten direnean izango da tasaren sortzapena.

159. artikulua. Kuota.

Tasa 11,84 eurokoa izango da.

VII. TITULUA. OSASUN-ARLOKO TASAK

I. KAPITULUA. HILOTZ-OSASUNARI DAGOKION TASA

160. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da osasun-arloan eskumena duen sailak hilotz-osasuneko zerbitzuak ematea.

161. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak eta haien kausadunak.

162. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren zerbitzuak ematen direnean izango da. Halere, zerbitzua interesdunak eskaturik ematen denean, eskaera egiten den momentuan exijituko da ordainketa.

163. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1.	Hilotzak eta gorpuzkiak hobitik ateratzea, berriro hobiratzea eta erraustea:	
1.1.	Hilotzak eta giza gorpuzkiak hobitik ateratzea, berriro hobiratzea eta erraustea:	107,64
1.2.	Gorpuzkiak hobitik ateratzea, berriro hobiratzea eta erraustea:	10,74
2.	Beilatzea eta hilotza eraikin publiko batean ikusgai edukitze:	135,78
3.	Lekuz aldatzea I. eta 11. multzoetako hilotz hobiratu gabeak:	102,47
4.	Hilotzetarako establezimenduak eta gorputegiak:	
4.1.	Beilatokiak eraiki eta jardunean jartzea:	397,09
4.2.	Errausketa-labeak eraiki eta jardunean jartzea:	397,09
4.3.	Hilerriak eraiki eta jardunean jartzea:	627,67
4.4.	Hilerriak ixtea:	102,47

II. KAPITULUA. ELIKADURA-LEGERIA APLIKATZEKO EGINDAKO KONTROL OFIZIALEN ETA BESTELAKO JARDUERA OFIZIALEN TASA.

164. artikulua. Xedea.

Tasa honen helburua da:

– Hiltegietan, zatikatze-geletan, ehiza prozesatzeko geletan, arrantzako eta akuikulturako produktuak merkaturan sartzean, ziurtagiri ofizialak egitean eta irailaren 26ko 1487/2009 Errege Dekretuan jasotako elikadura-osagarriak eta abenduaren 3ko 1412/2018 Errege Dekretuan jasotako zenbait produktu merkaturatzeari buruzko jakinarazpenean kontrol ofizialengatiko jarduketak zergapetzea.

– 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 79.2 artikulua c) letran aurreikusitakoaren arabera, kontrol ofizial batean ez-betetze kasu bat detektatu ondoren, hasieran aurreikusi gabeko kontrol ofizialetan egiten diren kostuak berreskuratzea.

– Jarduerak zergapetzea kontrol ofizialengatik eta beste jarduera ofizial batzuegatik, beste herrialde batzuetara esportatzeko Europar Batasuneko betekizunen osagarri diren aldebiko akordioetan eska

daitezkeen programak gauzatzeko esku-hartze sistematikoagatik.

Horretarako, honako tasa hauek bereiziko dira:

a) Hiltegieta kontrol ofizialengatiko tasa.

b) Zatikatzeko-geletako kontrol ofizialengatiko tasa.

c) Ehiza prozesatzeko geletako kontrol ofizialengatiko tasa.

d) Arrantzako eta akuikulturako produktuak ekoizteko eta merkatuan sartzeko kontrol ofizialengatiko tasa.

e) Ziurtagiri ofizialak emateagatiko tasa.

f) Irailaren 26ko 1487/2009 Errege Dekretuan aurreikusitako elikadura-osagarriak eta abenduaren 3ko 1412/2018 Errege Dekretuan jasotako zenbait produktu merkaturatzeko jakinarazpenagatiko tasa.

g) 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 79.2 artikulua c) apartatuaren arabera, hasiera batean aurreikusi gabeko kostuak berreskuratu behar diren jardueretarako kontrol ofizialengatiko tasa.

h) Europar Batasuneko betekizunez gain, beste herrialde batzuetara esportatzeko aldeko akordioetan eska daitezkeen programak gauzatzeko esku-hartze sistematikoak eragindako kontrol ofizialen eta bestelako jardura ofizialen kostuak estaltzeko tasa.

165. artikulua. Zergapeko egitatea.

1. Tasa honen zergapeko egitatea osasun publikoa zaintzera bideratutako jarduketak dira. Osasun arloan eskumena duen saileko fakultatiboek egiten dituzte jardura horiek, kontsumorako animalien eta haien haragi freskoen kontrol ofizialak eginez, bai eta hilketak-lokaletan edo -establezimenduetan, ehiza prozesatzeko geletan, arrantzako eta akuikulturako produktuen ekoizpenaren eta merkatuan sartzearen kontrol ofizialetan, ziurtagiri ofizialak igorri eta irailaren 26ko 1487/2009 Errege Dekretuan jasotako elikadura- osagarriak eta abenduaren 3ko 1412/2018 Errege Dekretuan jasotako zenbait produktu merkaturatzearen jakinaraziz ere. Halaber, tasa honen zergapeko egitatea honako hauek dira: osasunaren arloan eskumena duen saileko langile fakultatiboek hasieran aurreikusi gabeko kontrol ofizialetan egindako jarduketak, horien kostuak 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 79.2 artikulua c) apartatuaren arabera berreskuratu behar direnean, eta egindako kontrol ofizial batean ez-betetze kasu bat detektatu ondoren beharrezkoak izan direnean, edo ez-betetze kasuaren irismena eta inpaktua ebaluatzeko egin direnean, edo ez-betetzea konpondu dela egiaztatze egin direnean, bai eta kontrol ofizialetako jarduketak eta beste jardura ofizial batzuk ere, hirugarren herrialdeetara esportatzeko aldeko akordioetan eska daitezkeen programak egikaritzeko esku-hartze sistematikoaren ondorioz, Erkidegoko betekizunez gain.

2. Zerga ordainarazteko, aurreko paragrafoan zehaztutako zergapeko egitatearen barruan sartzen diren osasun-kontrol ofizialen jarduerak honela katalogatzen dira:

a) Behi, txerri, ardi, ahuntz eta bestelako hausnarkarien, untxi eta lumadun eta iledun ehiza xeheko abereen eta solipedo/ekidoen eta eskortako hegaztien haragi freskoak lortzeko ante mortem egindako ikuskapenak eta osasun-kontrolak.

b) Hildako animaliei post mortem egindako osasun-ikuskapenak eta -kontrolak, haragi fresko berberak lortzeko.

c) Establezimenduan egindako eragiketen dokumentu-kontrola.

d) Giza kontsumorako diren kanalak, erraiak eta hondakinak kontrolatzea eta zigilatzea, bai eta ehiza-haragia prozesatzeko eta zatikatze geletan lortutako piezak markatzea edo etiketatzea ere.

e) Arrantzako eta akuikulturako produktuen ekoizpena eta merkaturatzea dokumentuetan ikuskatzea eta kontrolatzea.

f) Esportazio-ziurtagiriak, salmenta askeko ziurtagiriak eta osasun-atestazioak ematea.

g) Irailaren 26ko 1487/2009 Errege Dekretuan jasotako elikadura-osagarriak merkaturatzeko

komunikazioei eta abenduaren 3ko 1412/2018 Errege Dekretuan jasotako zenbait produkturi buruzko azterlana.

h) 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 79.2 artikulua c) apartatuaren arabera kostuak berreskuratu behar zaizkien jardueretarako kontrol ofizialak, hasiera batean aurreikusi ez zirenak, baldin eta beharrezkoak izan badira 2017/625 (EB) Erregelamendua aplikatuz egindako kontrol ofizial batean ez-betetze kasu bat detektatu delako, edo ez-betetze kasuaren irismena eta inpaktua ebaluatzeko egin badira, edo ez-betetzea zuzendu dela egiaztatzeko.

i) Kontrol ofizialak eta beste jarduera ofizial batzuk, Europar Batasuneko betekizunez gain, beste herrialde batzuetara esportatzeko aldeko akordioetan eska daitezkeen programak gauzatzeko esku-hartze sistematikoak eragindakoak.

166. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Tasa hauen subjektu pasiboak tasaren zergapeko egitate diren eragiketak egiten diren establezimenduetako pertsona fisiko edo juridiko titularrak dira.

2. Subjektu pasiboek zerbitzuaren prestazioa eskatu duten pertsonen edo tasaren xede diren eragiketak egin dituztenei jasanarazi beharko diete tasaren zenbatekoa, fakturan kargatuz, eta, ondoren, Administrazio orokorrari ordaindu beharko diote, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

167. artikulua. Erantzule subsidiarioak.

Erantzule subsidiarioak sozietateak administratzen dituzten pertsonak edo erakundeak izango dira, bai eta porroten, konkurtsoen, sozietateen eta, oro har, tasen sortzapena eragiten duten ikuskapen- eta kontrol-jardueretan aritzen diren sindikoak, kontu-hartzaileak edo likidatzaileak ere.

168. artikulua. Tasaren sortzapena.

1. 170. artikulua arabera jasotako tasak edo kargak honela sortuko dira:

a) Aldez aurretik ordainduta, zerbitzuak subjektu pasiboak edo interesdunak eskatuta ematen direnean, 170. artikuluko 1. paragrafoko e) eta f) apartatuen kasuan.

b) Hiru hilean behin, 170. artikuluko 1. paragrafoko a), b), c), d) eta h) apartatuen kasuan.

c) 170. artikuluko 1. paragrafoko g) apartatuen kasuan, zergapeko egitate diren administrazio-jarduerak egiten diren unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Ordainketa egingo da osasun-arloan eskumena duen sailak egindako likidazioa jasotzen denean, 173. artikuluekin bat etorriz.

2. Establezimendu berean eta interesdunak eskatuta hiltze- eta zatikatzeko-eragiketak ondoz ondo egiten direnean, tasaren zenbateko osoa prozesuaren hasieran zehaztuko da, metatuta, dagozkion kuotak noiz sortzen diren kontuan hartu gabe, betiere kapitulu honetako artikuluan likidazioen metaketari buruzko arauari buruz aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

169. artikulua. Zerga-egitatea gauzatzeko lekua.

1. Zergapeko egitatea euskal lurraldean gauzatu dela ulertuko da, baldin eta bertan badaude animaliak hiltzeko establezimendua edo instalazioa, kanalak zatikatzen badira, ehiza prozesatzen bada, eta horren bidez arrantzako edo akuikulturako produktuak ekoizten eta merkatuan sartzen badira, bai eta osasun-arloan eskumena duen saileko zerbitzuek emandako merkaturatze-ziurtagiri ofizialak eta komunikazioen ziurtagiriak ematen badira, edo Europar Batasuneko 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 79.2 artikulua arabera hasiera batean aurreikusita ez zeuden kontrol ofizialen kostuak berreskuratzeko jarduerak egiten badira, edo Europar Batasuneko betekizunez gain, beste herrialde batzuetara esportatzeko aldeko akordioetan eska daitezkeen programak gauzatzeko sistematikoki esku hartzeko kontrol ofizialak eta bestelako jarduera ofizialak egiten badira.

2. Eskortako hegazti bizien osasun-ikuskapena jatorrizko ustiatze egiten denean, ikuskapen horri dagokion zerga-kuotaren zatia ustiatze berean jasoko da, eta hurrengo artikuluan f inkatutako

kuotaren % 20ra igoko da.

170. artikulua. Zerga-kuota.

1. Pertsona edo erakunde zergadunari tributu-kuota eskatuko zaio honako eragiketa hauengatik:

a) Animaliak hiltzea.

b) Zatikatzeko-eragiketak.

c) Ehiza-haragia prozesatzea.

d) Arrantzako eta akuikulturako produktuak ekoiztea eta merkatuan sartzea.

e) Ziurtagiri ofizialak ematea.

f) Irailaren 26ko 1487/2009 Errege Dekretuan jasotako elikadura-osagarriak eta abenduaren 3ko 1412/2018 Errege Dekretuan jasotako zenbait produktu merkaturatzeari buruzko jakinarazpena.

g) Hasiera batean aurreikusi ez ziren eta 2017/625 (EB) Erregelamenduaren arabera egindako kontrol ofizial batean operadore berak ez-betetze kasu bat detektatu ondoren beharrezkoak izan diren edo ez-betetze kasuaren irismena eta inpaktua ebaluatzeko edo ez-betetzea zuzendu dela egiaztatzeko egin diren jardueren kontrol ofizialak.

h) Kontrol ofizialak eta beste jarduera ofizial batzuk, Europar Batasuneko betekizunez gain, beste herrialde batzuetara esportatzeko aldebiko akordioetan eska daitezkeen programak gauzatzeko esku-hartze sistematikoak eragindakoak. Hala ere, hilketa- eta zatikatzeko-eragiketak establezimendu berean gertatzen direnean, jaso beharreko tasaren zenbateko osoak metatutako bi faseetako kuota hartuko du, 172. artikuluan aurreikusitako moduan.

2. Hiltegietan egindako hilketa-eragiketetan, hildako abere-kopuruaren arabera likidatuko dira subjektu pasiboari eska dakizkiokeen kuotak.

3. Ante mortem eta post mortem ikuskapen eta osasun-kontroleko, egindako eragiketen dokumentu-kontroleko eta kanalak, erraiak eta hondakinak zigilatze baterako jardueri dagozkien tributu-kuotak, behar bezala baimendutako establezimendu edo instalazioetan hildako animalia bakoitzarentzat, honako zenbateko hauetan zifratzen dira (eurotan):

Azienda mota			Animalia bakoitza hiltzeagatik ezarritako kuota euro/animalia
a)	Behi-haragiak:		
	a.1	24 hilabete edo gehiago:	5,13
	a.2	24 hilabetetik beherakoa:	2,05
	a.3	Premiazko hilketetatik eta zezen-ikuskizunetatik datozen behi-haragiak:	
		i) Lanorduetatik kanpo:	60,00
		ii) Jai-ordutegian:	80,00
b)	Solipedoak/ekidoak:		3,08
c)	Txerri-haragia:		
	c.1	25 kilogramoko edo gutxiagoko pisua kanalean:	0,51
	c.2	25 kilogramotik gorako pisua kanalean:	1,03
d)	Ardi- eta ahuntz-haragia:		
	d.1	12 kilogramoko edo gutxiagoko pisua kanalean:	0,15
	d.2	12 kilogramotik gorako pisua kanalean:	0,26
e)	Hegazti-haragia:		
	e.1	Gallus generoko hegaztiak eta pintadak:	0,005
	e.2	Ahateak eta antzarak:	0,010
	e.3	Indioilarrak:	0,026
	e.4	Galeperrak eta eperrak:	0,002

f)	Baserriko untxi-haragia:	0,005
----	--------------------------	-------

4. Zatikatze-eragiketetarako, kuota zehaztuko da zatikatze-eragiketari atxikitako tona-kopuruaren arabera, dagokion animalia-espeziearen arabera. Azken ondorio horietarako, zatikatze-eragiketetarako, haragiaren benetako pisua hartuko da erreferentziazat, zatikatu aurretik, hezurak barne.

5. Zatikatze-geletako osasun-kontrol ofizialei dagokien kuota, kanaletatik lortutako piezen etiketatzea eta markatzea barne, honako honetan finkatzen da:

Abere-mota		Hildako animalia bakoitzeko kuota euro/tona
a)	Behi, txerri, solipedo/ekido, ardi eta ahuntz-azienda:	2,05
b)	Eskortako hegaztiak eta baserriko untxiak:	1,54
c)	Lumadun eta iledun ehiza xehea:	1,54
d)	Ratiteak (ostruka, emua, ñandua):	3,08
e)	Basurdea eta hausnarkariak:	2,05

6. Ehiza prozesatzeko geletako kontrol ofizialei dagokien kuota, kanaletatik lortutako piezak etiketatzea eta markatzea barne, honako honetan finkatzen da:

Abere-mota		Kuota hildako animalia bakoitzeko, euro/abere bakoitzeko
a)	Lumadun ehiza xehea:	0,005
b)	iledun ehiza xehea:	0,010
c)	Ratiteak:	0,51
d)	Basurdea:	1,54
e)	Ehiza-hausnarkariak:	0,51

7. Arrantzako eta akuikulturako produktuak merkatuan sartzeari buruzko kuota:

a) Arrantzako eta akuikulturako produktuen lehen merkaturatzea:

- 1,03 euro, tona bakoitzeko edo tona-zati bakoitzeko, hilabete bakoitzeko lehen 50 tonetarako.
- 0,51 euro, tona edo tona-zati bakoitzeko, hilabete bakoitzeko hurrengo tonetarako.

b) Lehengo salmenta lonjan:

- 1,03 euro, tona bakoitzeko edo tona-zati bakoitzeko, hilabete bakoitzeko lehen 50 tonetarako.
- 0,26 euro, tona edo tona-zati bakoitzeko, hilabete bakoitzeko hurrengo tonetarako.

8. Esportazio-ziurtagiriak, salmenta askekoak eta osasun-atestaziokoak emateari dagokion kuota 41,00 eurokoa da ziurtagiri bakoitzeko..

9. Irailaren 26ko 1487/2009 Errege Dekretuan jasotako elikadura-osagarriak eta abenduaren 3ko 1412/2018 Errege Dekretuan jasotako zenbait produktu merkaturatzeko jakinarazpenari dagokion kuota 328,00 eurokoa da enpresek egindako komunikazio bakoitzeko.

10. Kostuak berreskuratu behar diren jarduerengatiko kuota 95,81 eurokoa izango da hobekuntza-ikuskapenen kasuan, 383,23 eurokoa jarraipen-auditoretzen kasuan eta 47,90 eurokoa beste edozein kontrol ofizialetarako.

11. Kontrol ofizialen eta beste jarduera ofizial batzuen jardueri dagokien zerga-kuota 47,90 euro/ordukoa da, Europar Batasuneko betekizunez gain, beste herrialde batzuetara esportatzeko

aldebiko akordioetan eska daitezkeen programak gauzatzeko esku-hartze sistematikoak eraginda.

171. artikulua. Kenkariak.

1. Abereak hiltzera, zatikatze-geletara, ehizakia prozesatzeko geletara eta arrantzako eta akuikulturako produktuak merkaturatzera bideratutako establezimenduen titularrek honako kenkari hauek aplikatu ahal izango dituzte tributu-kuoten zenbatekoen gainean, eta kontzeptu guztien baturagatik kendu beharreko zenbateko osoak ezingo du gainditu tributu-kuoten zenbatekoaren % 50:

a) Negozio-bolumen txikia duten operadoreak.

Hiltegien kasuan, hiltegi txiki bat bada eta urtean 2.000 abere-unitate edo gutxiago hiltzen badira, kenkaria % 30ekoa izango da.

Gainerako industrietan (zatikatze-aretoak, ehiza prozesatzeko gelak, arrantzako eta akuikulturako produktuak merkatuari sartzeko enpresak), operadore horiek enpresa txikiagoak direnean, Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako definizioen arabera, kenkaria honako hau izango da:

- Enpresa ertainak: % 10.

- Enpresa txikiak: % 20.

- Mikroenpresak: % 30.

Enpresa ertaina 250 langile baino gutxiago dituen da, eta urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra 50 milioi eurotik beherakoa duena; txikia, 50 langile baino gutxiago dituen eta urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik beherakoa duena; eta mikroenpresa, 10 langile baino gutxiago dituen eta urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra 2 milioi eurotik beherakoa duena.

b) Operadoreen historia, 2017/625 (EB) Erregelamenduen 1. artikuluen 2. apartatuan jasotako arauak betetzeari dagokionez.

Operadorearen betetze-historia kontrol ofizialen bidez egiaztatzen denean, hau da, araua betetzearen historia ona dutenean.

2017/625 (EB) Erregelamenduen 1. artikuluen 2. apartatuan jasotako arauak betetzeko historia ona duten operadoreek ez-betetzeen historia dutenak baino kostu global txikiagoak hartuko dituzte beren gain, kontrol ofizial ez hain sarriaren mende egongo baitira. Honako kenkari hauek aplikatuko dira, azken bi urteetako kontrol ofizialen emaitzen arabera, dela ikuskapenaren bidez, dela kontrol ofizialaren auditoretzaren bidez:

i) Ikuskapenaren ondorioz lortutako higie- eta osasun-baldintzen arabera, kenkaria honako hau izango da:

- Oso onak: % 30.

- Onak: % 15.

ii) Ikuskapenaren emaitzaren arabera, kenkaria honelakoa izango da:

- Goi-mailako aldekoa: % 30.

- Oinarrizko mailako aldekoa: % 15.

Nolanahi ere, kontzeptu horrengatik gehieneko kenkaria ez da % 30etik gorakoa izango.

Artikulu honetan araututako kenkariak aplikatzeko, beharrezkoa izango da osasun-arloan eskumena duen saileko zerbitzuei aldeztu aurretik errekonozimendua eskatzea. Horretarako, kasu bakoitzean aurreikusitako baldintzak eta betekizunak betetzen direla frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da eskabidean.

172. artikulua. Likidazioak metatzeari buruzko arauak.

Kasu bakoitzean sortutako tributu-kuotak metatu egin beharko dira sortzapen-fase guztiak edo

batzuk establezimendu berean txertatzen direnean, arau hauen arabera:

a) Establezimendu berean animaliak hiltzeko eta zatikatzeko eragiketak egiten direnean, animaliak hiltzeagatiko osasun-ikuskapenei eta -kontrolei dagokien kuota baino ez da sortuko.

b) Establezimendu berean zatikatzeko eragiketak bakarrik egiten direnean, haragien ikuskapenei eta osasun-kontrolei dagokien kuota bakarrik sortuko da zatikatzeko eragiketarik.

173. artikulua. Tasak likidatzea eta ordaintzea.

Tasen kuotak subjektu pasiboaren autolikidazioaren bidez ordainduko dira, erregelamenduz ezarritako moduan eta epeetan.

Hala ere, 170. artikuluan 1. paragrafoaren g) apartatuaren kasuan, osasun-arloan eskumena duen sailak dagokion likidazioa egingo du sortzen den unean, eta hori subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, eta hark borondatezko epean egin beharko du ordainketa.

174. artikulua. Salbuespenak eta hobariak.

Aurreko artikuluetan jasotako arauen arabera egindako likidazioen ondoriozko kuoten gainean, ez da inolako salbuespenik, murrizketarik edo hobaririk emango, ustategien titularra edo ustategiak kokatuta dauden lurraldea edozein dela ere.

175. artikulua. Arau gehigarriak.

Dagokion tasaren zenbatekoa ezin izango zaie hirugarrenei itzuli haragia esportatzeagatik, ez zuzenean, ez zeharka.

III. KAPITULUA. OSASUN PUBLIKOKO LABORATEGIAREN ZERBITZUENGATIK EZARRITAKO TASA

176. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da osasun-arloan eskumena duen sailak osasun publikoko laborategiaren zerbitzuak ematea.

177. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak.

178. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen denean izango da. Halere, zerbitzua interesdunak eskaturik ematen denean, eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

179. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1.	Mikrobiologia			
	1.1	Mikroorganismo markatzaileen zenbaketa. Parametro bakoitza:		13,34
	1.2.	Patogenoak aberastea eta identifikatzea. Haietako bakoitza:		33,79
	1.3.	Mikroorganismoen serotipoa zehaztea. Haietako bakoitza:		13,45
	1.4.	Mikroskopia bidezko behaketak.		
		1.4.1	Lagin freskoa aztertzea:	4,22
		1.4.2	Tindatu eta aztertzea:	6,22
		1.4.3	Eremu ilunean egindako azterketa:	5,39
	1.5.	Berariazko parasitologia-teknikak:		

		1.5.1	Elementu parasitarioen kontzentrazioa:	12,64
		1.5.2	Elementu parasitarioen zenbaketa:	12,64
		1.5.3	Bestelako identifikazio-teknika bakoitza:	18,86
	1.6.		Antibiograma:	18,86
	1.7.		Immunologia-teknikak:	
		1.7.1	Elektroforetikoak:	43,20
		1.7.2	Immunofluoreszentzia:	18,86
		1.7.3	Analisi immunoentzimatiko heterogeneoa (ELISA):	24,35
		1.7.4	Analisi immunoentzimatiko homogeneoa:	5,39
		1.7.5	Zehaztu gabeko beste tekniketako bakoitza:	48,41
	1.8.		Proba biologikoak:	
		1.8.1	<i>In vivo</i> saiakuntza:	60,60
2.			Fisika-kimika:	
	2.1.		Teknika ez-instrumentalak:	
		2.1.1	Destilazioa:	14,76
		2.1.2	Lurrungailu birakariaren bidezko destilazio:	19,65
		2.1.3	Dekantazio-inbutuarekin erauztea:	18,86
		2.1.4	Soxhlet bidez erauztea:	38,04
		2.1.5	Solido/likido erauzketa:	21,14
		2.1.6	Fase solidoko matrize-dispersioa:	43,20
		2.1.7	Mineralizazioa:	22,23
		2.1.8	Geruza fineko kromatografia edo paper-kromatografia:	27,42
		2.1.9	Zutabe-kromatografia:	31,64
		2.1.10	Grabimetria:	18,86
		2.1.11	Bolumetria:	7,86
	2.2.		Teknika instrumentalak.	
		2.2.1	Errefraktometria:	7,86
		2.2.2	Erreflektometria:	7,86
		2.2.3	Potentziometria:	12,64
		2.2.4	Turbidimetria:	7,86
		2.2.5	Konduktimetria:	7,86
		2.2.6	Ultramore-ikusgai espektrofotometria:	15,78
		2.2.7	Gasen kromatografia. Detektatzeko sistema bakoitza, masa-espektrometria salbu:	52,69
		2.2.8	Gas-kromatografia / masa-espektrometria:	125,65
		2.2.9	Absortzio atomiko bidezko espektrofotometria:	35,51
		2.2.10	Absortzio atomiko bidezko espektrofotometria / Zeeman efektua:	52,69
		2.2.11	Proper infragorrian (NIRA) absortzio bidez egindako analisi automatizatua. Parametro bakoitza:	21,14
		2.2.12	Geruza mehean egindako bereizmen handiko kromatologia (HPTLC):	62,81
		2.2.13	Detektagailu arruntarekin egindako kromatologia likidoa:	89,77
		2.2.14	Diodo-detektagailuarekin egindako kromatografia likidoa:	141,35
		2.2.15	Kromatografia ionikoa:	52,69
		2.2.16	Infragorriaren espektrofotometria:	42,20
		2.2.17	ICP-Masak:	80,64
3.			Analisi multzoak. Urak:	
	3.1.		Uraren analisi fisiko-kimiko eta bakteriologiko osoa, salbu eta pestizidak, erradioaktibitatea, hidrokarburoak eta trihalometanoak:	559,92
	3.2.		Uraren kontrol analisi fisiko-kimiko eta bakteriologikoa:	47,39

3.3.	Uraren analisi fisiko-kimiko eta bakteriologikoa, edateko uren araztegiaren irteeran:	175,74
3.4.	Uraren analisi fisiko-kimiko eta bakteriologikoa, iturrian:	136,11
3.5.	Hondakin-uren analisi, oinarritzko multzoa, hona: materia esekia, OEBa, OEKa, pHa, eroankortasuna, anioi bat eta katioi bat:	60,13
3.6.	OEBa, OEKa. Haietako bakoitza:	21,14
3.7.	Uraren analisi fisiko-kimiko osoa, salbu eta pestizidak, erradioaktibitatea, hidrokarburo aromatiko poliziklikoak eta trihalometanoak:	518,94
3.8.	Uretan dauden pestizida, organofosforatu, organokloratu eta triazinen analisi:	245,81
3.9.	Uretan dagoen erradioaktibitatearen analisi, guztizko alfa eta beta:	163,88
3.10.	Uretan dauden hidrokarburo aromatiko poliziklikoen analisi:	182,09
3.11.	Uraren kontrol-analisi fisiko-kimikoa:	26,30
3.12.	Uraren analisi fisiko-kimikoa, edateko uren araztegiaren irteeran:	106,92
3.13.	Uraren analisi fisiko-kimiko, iturrian:	114,99
3.14.	Uraren kontrol-analisi bakteriologikoa:	21,14
3.15.	Uraren analisi bakteriologikoa, edateko uren araztegiaren irteeran:	68,82
3.16.	Uraren analisi bakteriologikoa, iturrian:	21,14
3.17.	Hemodialisi-uraren gutxieneko analisi (aluminioa, fluorra, heterotrofoen eta <i>Pseudomonas aeruginosa</i> ren zenbaketa):	102,09
3.18.	Hemodialisi-uraren analisi osoa:	455,45
3.19.	Igerileku kloratuen analisi:	94,22
3.20.	Igerileku elektrofisikoen analisi:	117,80
3.21.	Detergente anioniko, kationiko eta ez-ionikoak:	235,57
3.22.	Halogeno organiko purgarriak (AOX, POX, TOX):	117,80
3.23.	Trihalometanoak:	94,22
3.24.	N-metilkarbamatoak:	180,60
3.25.	Ditiokarbamatoak:	86,37

Interesdunak eskaturik egin beharreko analisi osatu ahal izateko laginak *in situ* hartu behar izanez gero, 31,47 euro gehituko zaio tasaren zenbatekoari.

IV. KAPITULUA. FARMAZIA-ARRETAKE ESTABLEZIMENDU ETA ZERBITZUEI BURUZKO ESPEDIENTEEI DAGOKIEN TASA

180. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da ofizioz edo interesdunak eskaturik zerbitzu hauek ematea:

- Farmazia-arretako establezimenduak eta zerbitzuak sortu, abian izan, lekualdatu, aldatu, eskualdatu eta ixteko izapideak egitea eta baimenak ematea, arau hauetan aurreikusitakoaren arabera: Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikorako ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 3. artikulua; Giza erabilerarako botiken banaketari buruzko urriaren 11ko 782/2013 Errege Dekretuaren 1. artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoan albaitari-sendagaiak banatzen eta saltzen dituzten tokiak zabaltzeko, pentsu sendagarriak banatzeko eta ekoizteko eta albaitariak erabiliko dituzten autotxertoak egiteko baimena ematen duen eta jarduera horiek guztiak kontrolatzen dituen uztailaren 30eko 156/2001 Dekretuaren 2. artikulua.
- Giza erabilerarako botiken banaketari buruzko urriaren 11ko 782/2013 Errege Dekretuaren

20. artikuluan aurreikusitako banaketa-praktika onei buruzko ziurtagiria egiteko ikuskapena.

- c) Albaitaritzako medikamentuei buruzko urtarilaren 27ko 109/1995 Errege Dekretuaren 39. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, albaitaritzako autotxertoak zuzenki fabrikatzeko arauen betetze-ziurtagiria emateko ikuskapena.

181. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak.

182. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen denean izango da. Halere, ordainketa aurretiaz exijituko da, eskaera egiten den unean.

183. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1.	Farmazia-bulegoak.	
1.1	Sortzeko eskabidea:	117,80
1.2	Lekualdatzeko eskabidea:	314,09
1.3	Eskualdatzea.	
1.3.1	Eskualdatzailearen eskabidea:	549,67
1.3.2	Erosteko aukera izateko eskabidea:	274,81
1.3.3	Amortizazio-eskabidea:	510,42
1.4	Obrak egiteko baimenaren eskabidea, obrak farmazia-bulegoan sekzioa sortzeko ez badira:	314,09
1.5	Arduraduna, ordezkoa edo laguntzailea izendatzea:	62,81
1.6	Jarraitzeko erreserbaren eskabidea:	274,81
1.7	Farmazia-bulegoa behin betiko ixteko eskabidea:	392,62
2.	Botikategiak.	
2.1	Sortzeko edo ixteko eskabidea:	235,57
2.2	Lekualdatzeko edo obrak egiteko eskabidea:	274,81
3.	Lehen mailako arreta emateko farmazia-zerbitzuak, ospitaleetako eta zentro soziosanitarioetako farmazia-zerbitzuak eta ospitaleetako eta zentro soziosanitarioetako medikamentu-biltegiak.	
3.1	Sortzeko edo ixteko eskabidea:	392,62
3.2	Lekualdatzeko edo obrak egiteko eskabidea:	274,81
3.3	Izendatzeak:	62,81
3.4	Funtzionamendurako osasun-baimena berritzeko eskaera:	192,46
4.	Medikamentuak (gizakientzakoak, albaitaritzakoak), sendagaiak eta bestelako farmaziako produktuak banatzeko entitateak.	
4.1	Sortzeko edo ixteko eskabidea:	392,62
4.2	Lekualdatzeko edo obrak egiteko eskabidea:	274,81
4.3	Izendatzeak:	62,81
4.4	Banaketa ikuskatzea eta praktika onei lotzen zaiela egiaztatzea:	501,85
5.	Albaitaritzarako medikamentuak txikizka saltzen dituzten abelazkuntzako entitate edo elkarteak eta dendak.	
5.1	Farmazia-zerbitzua sortzeko edo ixteko eskabidea:	392,62
5.2	Farmazia-zerbitzua lekualdatzeko edo obrak egiteko eskabidea:	274,81
5.3	Izendatzeak:	62,81
6.	Farmazia-bulegoetako sekzioak.	
6.1	Sortzeko eskabidea:	392,62
7.	Pentsu sendagarria fabrikatzeko unitateak.	
7.1	Sortzeko edo ixteko eskabidea:	392,62

	7.2	Lekualdatzeko edo obrak egiteko eskabidea:	274,81
8.		Albaitaritzan erabiltzeko autotxertoak egiten dituzten zentroak.	
	8.1	Sortzeko edo ixteko eskabidea:	392,62
	8.2	Lekualdatzeko edo obrak egiteko eskabidea:	274,81
	8.3	Zuzenki fabrikatzeko arauak ikuskatzea eta egiaztatzea:	501,85

V. KAPITULUA. OSASUN-ZENTRO, -ZERBITZU ETA -ESTABLEZIMENDUEI BURUZKO ESPEDIENTEENGATIK EZARRITAKO TASA

184. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da ofizioz edo interesdunak eskaturik zerbitzuak ematea Autonomia Erkidegoko osasun-araudian aintzat hartutako osasun-zentroak, -zerbitzuak eta -establezimenduak instalatzeko osasun-baimenak izapidetzeko, funtsezko aldaketak egiteko eta funtzionamenduko osasun-baimenak berritzeko.

185. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak.

186. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren administrazio-jarduketak egiten direnean izango da. Halere, zerbitzua interesdunak eskaturik ematen denean, eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

187. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1. Instalaziorako osasun-baimena eskatzea

1.C.1	Ospitaleak	1.760,65
1.C.2	Ospitalean barneratu gabe osasun-asistentzia emateko hornitzaileak	
	1.C.2.1 Mediku-kontsultak	352,27
	1.C.2.2 Osasun-arloko beste profesional batzuen kontsultak	352,27
	1.C.2.3 Lehen mailako arretako zentroak	704,49
	1.C.2.4 Zentro balioaniztunak	704,49
	1.C.2.5 Zentro espezializatuak	
	1.C.2.5.1 Hortz-klinikak	1.056,78
	1.C.2.5.2 Giza ugalketa lagunduko zentroak	1.056,78
	1.C.2.5.3 Haurdunaldia borondatez eteteko zentroak	704,49
	1.C.2.5.4 Kirurgia handi anbulatorioko zentroak	1.056,78
	1.C.2.5.5 Dialisi-zentroak	1.056,78
	1.C.2.5.6 Diagnosi-zentroak	704,49
	1.C.2.5.7 Osasun-asistentziako zentro ibiltariak	704,49
	1.C.2.5.8 Odol-transfusioko zentroak	1.056,78
	1.C.2.5.9 Ehun-bankuak	1.056,78
	1.C.2.5.10 Osasun-azterketak egiteko zentroak	704,49
	1.C.2.5.11 Osasun mentaleko zentroak	704,49
	1.C.2.5.90 Beste zentro espezializatu batzuk	1.056,78
	1.C.2.90 Ospitalean barneratu gabe osasun-asistentzia emateko beste hornitzaile batzuk	704,49
1.C.3	Osasungintzaz kanpoko antolakunde batean integratutako zerbitzuak	704,49
1.E.3	Optikak	1.056,78

1.E.4	Ortopediak	1.056,78
1.E.5	Entzumen-protetikoko establezimenduak	1.056,78

2. Funtzionamenduko osasun-baimenean funtsezko aldaketak egiteko eta baimena berritzeko osasun-baimenaren eskabidea: aurreko 1. tarifyan ezarritako zenbatekoaren % 50.

VI. KAPITULUA. OSASUN-ARLOKO PUBLIZITATEARI BURUZKO ESPEDIENTEENGATIK EZARRITAKO TASA

188. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da urriaren 15eko 550/1991 Dekretuan —osasun-arloko publizitatea arautzekoa bera— zehaztutako osasun-arloko publizitateari buruzko izapideak eta baimenak egiteko zerbitzuak ematea, ofizioz edo interesdunak eskaturik.

189. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak.

190. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren administrazio-jarduketak egiten direnean izango da. Halere, zerbitzua interesdunak eskaturik ematen denean, eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

191. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1. Baimena eskatzea publizitatea egiteko eta baimenean funtsezko aldaketak egiteko: 115,29
2. Baimena berritzea edo funtsezkoak ez diren aldaketak egitea: aurreko 1. tarifyan ezarritako zenbatekoaren % 50.

VII. KAPITULUA. OSASUN-PRODUKTUAK NEURRIRA FABRIKATZEKO LIZENTZIA LORTZEAGATIK EZARRITAKO TASA

192. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da osasun-produktuak neurrira fabrikatzeko lizentzia lortzeko izapideak egiteko zerbitzuak ematea, ofizioz edo interesdunak eskaturik. Produktu horiek mediku espezialista batek idatziz eginiko preskripzioari jarraituz fabrikatutakoak dira, berariaz; hala, idatzizko preskripzio horretan, medikuak, ardura bere gain harturik, diseinuaren berariazko ezaugarriak zehazten ditu, eta produktuak gaixo jakin batentzat baizik ez dira.

193. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

194. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren administrazio-jarduketak gauzatzen direnean izango da. Halere, zerbitzua interesdunak eskaturik ematen denean, eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

195. artikulua. Kuota.

Tasa 644,31 eurokoa izango da.

Funtsezko aldaketak egiten direnean edo baimena berritzen denean, aurreko paragrafoan ezarritako

zenbatekoaren % 50 izango da tasaren zenbatekoa.

VIII. KAPITULUA. MEDIKAMENTUEN, OSASUN- ETA KOSMETIKA-PRODUKTUEN ETA NORBERAREN ZAINKETAKO PRODUKTUEN ARLOAN ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK EZARRITAKO TASA

196. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da 199. artikuluan aipatzen diren zerbitzuak edo jarduerak ematea edo egitea, zehazki elementu hauei dagokienez: legez aitortutako medikamentuak, osasun- eta kosmetika-produktuak eta norberaren zainketako produktuak, farmazia-laborategiak eta banaketa-entitateak.

197. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

198. artikulua. Sortzapena.

Zerga-egitate den zerbitzua eman edo jarduera egiten denean izango da tasaren sortzapena, eta subjektu pasiboak eskaera egiten duenean exijituko da tasaren ordainketa. Eskabidea ez da izapidetuko harik eta dagokion tasa ordaindu dela egiaztatu arte.

Aurrekoa gorabehera, administrazio-zerbitzua edo -jarduketa ofiziozkoa bada, jarduketa horien hasiera jakinarazten denean izango da tasaren sortzapena, eta tasaren zenbatekoa beti ordaindu beharko da zerbitzua eman edo jarduera egin aurretik.

199. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

1. Farmazia-industria.
 - 1.1. Zuzenki fabrikatzeko arauak (ZFA) ikuskatzea eta egiaztatzea, egun bakoitza: 466,94
 - 1.2. Zuzenki fabrikatzeko arauak (ZFA) buruzko ziurtagiria egitea: 233,45
 - 1.3. Laginak hartzea: 318,35
 - 1.4. Beste ikuskapen batzuk: 93,40
 - 1.5. Medikamentuen behaketa baimen ondoko azterlanak baimentzeko ebaluazioa: 466,94
2. Laborategiak, medikamentuak kontrolatu edo garatzeko zentroak.
 - 2.1. Laborategiko praktika onak (LPO) ikuskatzea eta egiaztatzea, egun bakoitza: 466,94
 - 2.2. Laborategiko praktika onei buruzko ziurtagiria (LPO) egitea: 233,45
 - 2.3. Beste ikuskapen batzuk: 93,40
 - 2.4. Giza erabilerarako medikamentuak merkaturatzeko baimenaren titularren eta farmakozaintzako jarduerak egiteko azpikontrataturako zerbitzu-enpresen farmakozaintza-sistemaren ikuskapen-zerbitzua, egun bakoitza: 466,94
 - 2.5. Saiakuntza klinikoak: praktika kliniko onak ikuskatzea eta egiaztatzea, egun

bakoitza:	466,94
3. Kosmetikoak.	
3.1. Zuzenki fabrikatzeko arauak (ZFA) ikuskatzea eta egiaztatzea, egun bakoitza:	466,94
3.2. Zuzenki fabrikatzeko arauari (ZFA) buruzko ziurtagiria egitea:	233,45
3.3. Ikuskapen arautua edo interesdunak eskatua:	79,59

**IX. KAPITULUA. MEDIKUNTZA NUKLEARREKO, ERRADIOTERAPIAKO ETA
ERRADIODIAGNOSTIKOKO UNITATE ASISTENTZIALEN KALITATEA ETA
SEGURTASUNA BERMATZEKO PROGRAMAK BALIOZKOTZEAGATIK EZARRITAKO
TASA**

200. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da medikuntza nuklearreko, erradioterapiako eta erradiodiagnostikoko unitate asistentzialen kalitatea eta segurtasuna bermatzeko programa ebaluatzea eta, hala badagokio, programaren onspen-ziurtagiria egitea.

201. artikulua. Kuota.

Kuotaren zenbatekoa (eurotan):

	Zentro mota	
	Ospitaleak	Beste zentro batzuk
MEDIKUNTZA NUKLEARREKO UNITATE ASISTENTZIALAK (U.87)	146,72	88,07
ERRADIOTERAPIAKO UNITATE ASISTENTZIALAK (U.86)	146,72	88,07
ERRADIODIAGNOSTIKOKO UNITATE ASISTENTZIALAK (U.88)	146,72	88,07

	Unitate mota	
	Konplexua	Sinplea
X IZPIEN EKIPOAK DITUZTEN UNITATEAK, ERRADIODIAGNOSTIKOKO ASISTENTZIA-ESKAINTZARIK EZ DUTENAK.	88,07	58,71

202. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira pertsona fisiko eta juridikoak eta Tributuen Lege Orokorraren 33. artikuluan aipatutako entitateak, tasaren zerga-egitatea osatzen duten administrazio-jarduerak gauzatzeko eskatzen duten heinean.

203. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena izango da administrazio-jarduketa hasteko eskaera aurkezten denean, eta jarduketa ez da gauzatuko edo izapidetuko harik eta dagokion ordainketa egiten den arte.

204. artikulua. Likidazioa.

Tarifak subjektu pasiboek autolikidatuko dituzte kasuan kasuko administrazio-jarduketak hasteko eskaera egiten duten unean.

X. KAPITULUA. PRESTAKUNTZA-JARDUEREN GAINEN TASA

204 bis artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea da osasun arloko sailak Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide sanitarioetako prestakuntza-jarduerak egiaztatze, berregiaztatze edo editatzeko zerbitzuak ematea.

204 ter artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak dira zergapeko egitate diren zerbitzuak eskatzen edo jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, bai eta Zergei buruzko Lege Orokorraren 35.4 artikuluan aipatzen diren erakundeak ere.

204 quater artikulua. Sortzapena.

Zergapeko egitate diren administrazio-zerbitzuak ematen diren unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Hala ere, eskabidea egiten den unean eskatu ahal izango da ordainketa.

204 quinquies artikulua. Kuota.

Tasa tarifa honen arabera eskatuko da (eurotan):

- | | |
|--|--------|
| 1. Etengabeko prestakuntzako jardura berri bat egiaztatze eskaera: | 77,82. |
| 2. Prestakuntza-jardura bat berriz egiaztatze eskaera: | 77,82. |
| 3. Egiaztatutako etengabeko prestakuntzako jardura bat editatzeko eskaera: | 77,82. |

204 sexies artikulua. Salbuespenak.

Tasa ordaintzetik salbuetsita daude Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeak, baldin eta zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen badituzte.

VIII. TITULUA. ETXEBIZITZA- ETA ERAIKUNTZA-ARLOETAKO TASAK

I. KAPITULUA. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETAN KALIFIKAZIOAK ETA ZIURTAGIRIAK EMATEKO ZERBITZUENGATIK EZARRITAKO TASA

205. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da babes ofizialaren kategoriara atxikitako etxebizitza mota guztiek babes ofizialeko kalifikazioa eta ziurtagiria jasotzeko bete beharreko izapideen gaineko zerbitzuak ematea: hain zuzen ere, proiektuak aztertzea, ziurtagiriak egiaztatzea eta obrak ikuskatzea.

206. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza sustatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak, babes ofizialeko etxebizitzaren alde ezarritako onurak eskatzen dituzten heinean edo etxebizitzak ikuskatu edo behin betiko babes ofizialekotzat kalifika ditzatela eskatzen duten heinean.

207. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerga-egitate diren administrazio-jarduketak egitean izango da. Hala ere, etxebizitzak behin-behineko babes ofizialekotzat jotzeko eskaera aurkeztu den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

208. artikulua. Tasaren elementu kuantitatiboak.

Babes ofizialeko etxebizitza guztietarako karga-tasa aurrekontu babesgarri osoaren % 0,07koa izango da -aurrekontu babesgarritzat ulertuta Babes Ofizialeko Etxebizitzari buruzko Legea aplikatzeko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 24ko 2114/1968 Dekretuaren 5.h) artikuluan

zehaztutakoa-, kanpoan utzita tasa bera.

Lurzoruen eta egin beharreko urbanizatzeko lanen balioaren egiaztapenik eduki ezean, lege zilegi den handiena hartuko da zerga-oinarritzat.

Prezio-aldakuntzak, obra-unitateen ordezkapenak edo aurrekontu gehigarriak direla-eta aurrekontu babesgarri osoak gora egiten badu, behar diren likidazio osagarriak egingo dira, gorabehera horien ondoriozko gehikuntza oinarri hartuta.

209. artikulua. Salbuespenak.

Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzaileak salbuetsita egongo dira tasa honetatik.

II. KAPITULUA. ERAIKINGINTZAREN KALITATEAREN KONTROLEKO LABORATEGIAREN ZERBITZUENGATIK EZARRITAKO TASA

210. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da zerbitzuak ematea Eraikingintzaren Kalitatearen Kontroleko Laborategiak lanak eta saiakuntzak egiteko, bai interesdunek eskaturik, bai Administrazioak ofizioz emanda.

211. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak edo lanak jasotzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

212. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen denean izango da. Hala ere, eskaera egiten den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

213. artikulua. Kuota.

Lege honen eranskinean jasotako tarifaren arabera eskatuko da tasa.

IX. TITULUA INGURUMEN-ARLOKO TASAK

I. KAPITULUA. EB-REN ETIKETA EKOLOGIKOA EMATEAGATIK EZARRITAKO TASA

214. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da EBren etiketa ekologikoa eman, aldatu, luzatu eta berritzeko eskabidea izapidetzeko behar diren zerbitzuak ematea.

215. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira EBren etiketa ekologikoa eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

216. artikulua. Sortzapena.

EBren etiketa ekologikoa eman, aldatu, luzatu eta berritzeko zerbitzuak ematen direnean izango da tasaren sortzapena. Halere, eskaera egiten den unean exijituko da ordainketa.

217. artikulua. Kuota.

EBren etiketa ekologikoa eman, aldatu, luzatu eta berritzeko eskabide bakoitzagatik 355,00 euroko kuota ordaintzeko eskatuko da.

Enpresa txiki eta ertainen eta mikroenpresen kasuan (Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioaren arabera definituta) eta garapen-bidean dauden herrialdeetako operadoreen kasuan, 232,03 eurokoa izango da kuota.

218. artikulua. Hobariak.

Kuotaren % 30eko hobaria aplikatuko zaie eskatzaileei, baldin eta egiaztatzen badute izena emanda daudela Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemari (EMAS), edo % 15ekoa, ISO 14001 arauarekin bat datorren ziurtagiria badute. Hobariak ez dira metatzen. Bi sistemak betetzen badira, hobaririk altuena soilik ezarriko da.

Murritzapen hori lortzeko, eskatzaileak berariazko konpromisoa hartu behar du bermatzeko ezen etiketa ekologikoko bere produktuek erabat betetzen dituztela EBren etiketa ekologikoaren irizpideak kontratua baliozkoa den aldian, eta konpromiso hori modu egokian sartzen dela zehaztutako ingurumen-helburuetan.

219. artikulua. Autolikidazioa.

EBren etiketa ekologikoa eman, aldatu, luzatu eta berritzeko eskabideagatik ezarritako kuota eskabide hori entregatzeko unean autolikidatuko dute subjektu pasiboek.

II. KAPITULUA. LURZORUAREN KUTSADURA SAIHESTU ETA KUTSATUTAKOAK GARBITZEKO JARDUKETENGATIK EZARRITAKO TASA

220. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da ingurumen-organismoak zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea lurzoruen kutsadura saihestu eta kutsatutakoak garbitzeko. Hona zerbitzu eta jarduerak horiek:

1. Lurzoruen kalitatearen deklarazioaren prozeduran, ingurumen-organismoak honako erabaki hauek ematea:

- a) Lurzoruen kalitatearen ikerketa-lanei buruzko balioztatze-txostenak, aurkeztutako ikerketa-txostenak nahikoa ez izateagatik.
- b) Hondeaketa baimentzen duten ebazpenak.
- e) Lurzoruen kalitatearen deklarazioak.
- d) Leheneratze-plana onartzeko ebazpenak.
- e) Lurzorua leheneratu dela egiaztatzen duten ebazpenak.

2. Lurzorua erabiltzeko gaitasunaren deklarazioaren ebazpena egitea.

3. Salbuespenaren ebazpena egitea.

4. Lurzoruen kalitatea ikertu eta leheneratzeko entitate izateko akreditazioa ematea.

5. Lurzoruen kalitatea ikertu eta leheneratzeko entitate izateko emandako akreditazioak aldatzeko eskaerak izapidetzea, akreditazioaren irismena handitu delako edo proiektuaren buruak eta arrisku-aztertzaileak gehitu direlako, haien gaikuntza aldeztu aurretik balioztatu ez bada.

6. Lurzoruen Kalitatearen Administrazio Erregistroan egindako kontsulten inguruko erabakia ematea.

221. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasibo dira zerga-egitate diren zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

222. artikulua. Sortzapena.

Zerga-egitate den zerbitzua eman edo jarduera egiten denean izango da tasaren sortzapena. Hala ere, dagokion jarduketa eskatzen den unean exijitu ahal izango da ordainketa.

223. artikulua. Kuota.

1. Tarifa honen arabera eskatuko da tasaren kuota (eurotan):

a) Lurzoruaren kalitatearen deklarazioaren prozeduran:

– Lurzoruaren kalitatearen ikerketa-lanei buruzko balioztatze-txostenak egitea:	167,28
– Hondeaketa baimentzen duten ebazpenak egitea:	223,04
– Lurzoruaren kalitatearen deklarazioak egitea:	223,04
– Lurzorua leheneratzeko plana onartzeko ebazpena egitea:	223,04
– Lurzorua leheneratu dela egiaztatzen duten ebazpenak egitea:	167,28

b) Lurzorua erabiltzeko gaitasunaren deklarazioaren ebazpena egitea: 167,28

c) Salbuespenaren ebazpena egitea: 111,54

d) Lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko entitate izateko akreditazioa ematea: 446,10

e) Lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko entitate izateko akreditazioa aldatzea: 111,54

f) Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroan kontsulta egitea: 55,76

2. Lurzoruaren kalitatearen deklarazioaren prozeduretan, prozeduraren barruan ematen diren erabakien kopuruaren arabera kalkulatu da likidatu beharreko tasaren kuota zenbatekoa.

224. artikulua. Hobariak.

1. Aurreko artikuluan oinarrituta kalkulatuak kuotei hobari hauek aplikatuko zaizkie, eta metatu egin ahal izango dira:

- kuotaren % 10, enpresa txiki eta ertainei (Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioko definizioaren arabera).
- kuotaren % 20, mikroenpresei (Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioko definizioaren arabera).
- kuotaren % 50, subjektu pasiboek Europako EMAS erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen badute.

2. Aurreko apartatuan ezarritako hobariren bat aplikatzeko baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek baldintza horiek betetzen dituztela dioen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute prozedura hasteko eskaerarekin batera.

225. artikulua. Tasa likidatzea.

1. Subjektu pasiboek dagokion jarduketa eskatzen duten unean zehaztu eta ordaindu beharko dute tributu-zorra, autolikidazioaren bitartez.

2. Hala ere, lurzoruaren kalitatearen deklarazioaren prozeduretan, ingurumenaren arloan eskumenak dituen organoak erabakiko du tasa zenbatekoa den, eta prozedura amaitzen duen ebazpena egindakoan likidatu da tasa.

X TITULUA. GARRAIO-, KONTSUMO-ETA MERKATARITZA-ARLOETAKO TASAK

I. KAPITULUA. PORTUKO TASAK

226. artikulua. T-1 tasa. Itsasontziak.

1. Tasa honen zerga-egitatea da itsasontziek portuko zerbitzuguneko urak eta itsas seinaleen eta balizen instalazioak baliatzea, eta itsasotik portura iristeko eta esleitu zaien atrakaleku, amarraleku edo ainguralekuan egoteko portuko obrak eta instalazio finkoak erabiltzea.

2. Tasaren subjektu pasibo zergadun solidarioak izango dira itsasontziaren enpresa armadorea eta ontzi-konpainia.

Itsasontzia kontsignatuta badago, ordezeko subjektu pasiboa izango da itsasontziaren enpresa kontsignataria.

Emakida edo baimen bidez utzitako kaietan, pantalanetan eta atrakatzeko portu-instalazioetan, emakidaduna edo baimenduna izango da ordezeko subjektu pasiboa.

Manu honetan izendatutako ordezeko subjektu pasibo guztiak solidarioki behartuta geratuko dira tributu-betebeharretik ondorioztatzen diren prestazio materialak eta formalak betetzera; nolanahi ere, Portuko Administrazioak, lehenengo, emakidaren edo baimenaren titularrengana jotzea izango du. Ordezko subjektu pasiboek beren betebeharrak konplitu ezean -bereziki tasa ordaindu ezean-, Portuko Administrazioak subjektu pasibo zergadunei exijitu ahal izango die betebehar horiek betetzeko.

3. Tasaren sortzapena itsasontzia portuko zerbitzuguneko uretan sartzen denean izango da, kontuan hartu gabe atrakatu duen edo ainguraleku bat esleitu zaion. Tasaren likidazioa hilabete bakoitza amaitu ondoren egingo da.

4. Tasa honen zerga-oinarria dira erregistroko tonaje gordinoko (ETG) unitatea edo frakzioa, eta hiru orduko aldiak edo frakzioak; gehienez ere lau aldi egin ahal izango dira 24 orduko epe bakoitzeko.

5. Hauek dira tasaren kuotak:

5.1.Oro har:

Itsasontziak 0,056067 euro ordaindu behar du erregistroko tonaje gordinoko (ETG) unitateko edo haren frakzioko, hiru orduko aldi edo frakzio bakoitzeko; gehienez ere lau aldi egin daitezke 24 orduko epe bakoitzeko.

Nahitaez porturatu behar izan duten itsasontziei kuota orokorraren % 50eko murrizketa aplikatuko zaie.

5.2.Urte naturalean hamabi bider baino gehiagotan porturatzen diren itsasontziei murrizketa hauek aplikatuko zaizkie:

- 13. porturatzetik 24.era arte: kuota orokorraren % 15.
- 25. porturatzetik 40.era arte: kuota orokorraren % 30.
- 41. porturatzean eta hurrengoetan: kuota orokorraren % 50.

5.3.Nabigazio-linea erregularretako itsasontziei murrizketa hauek aplikatuko zaizkie, baldin eta erregular izatearen kalifikazioa urte bakoitzaren urtarrilaren 1a baino lehen dokumentatzen eta baimentzen bada Portuko Administrazioan:

- 13. porturatzetik 24.era arte: kuota orokorraren % 10.
- 25. porturatzetik 50.era arte: kuota orokorraren % 20.
- 51. porturatzetik aurrera: kuota orokorraren % 30.

5.4.Itsas bidaia turistikoak egiten dituzten bidaiari-itsasontziei kuota orokorraren % 30eko murrizketa aplikatuko zaie.

5.5. Jardunik gabeko itsasontziei kuota orokorraren % 50eko murrizketa ezarriko zaie. Ondorio horietarako, jardunik gabeko itsasontzitzat joko dira dotazio gisa zaintza-langileak baino ez dituztenak, eta eraikitzen, konpontzen edo desegiten ari diren itsasontziak edo desegiteko zain daudenak, egoera hori egiaztatuta badago.

Jardunik gabeko itsasontziaren egonaldia bi hilabetekoa baino luzeagoa bada, ez du murrizketarik izateko eskubiderik izango.

Lau hilabetez jardunik gabe egon ondoren, kuotek hileko % 5eko gehikuntza metagarria izango dute.

5.6. Bidaiari-itsasontziak izan ez eta barneko, badiako edo tokiko trafikorako erabiltzen diren itsasontziei, portuetan basea duten atoiontziei, dragei, tanga-ontziei, gangilei, gabarrei, pontoiei eta antzeko makinei kuota orokorraren % 75eko murrizketa aplikatuko zaie.

5.7. Bandaz banda jarrita dauden itsasontziei -dela kaian saiheska atrakaturiko beste baten albean, dela bandaz banda jarrita dauden beste itsasontzi batzuen albean- kuota orokorraren % 50eko murrizketa aplikatuko zaie.

Kaian puntatik atrakatutako itsasontziei eta zerbitzuko buiei amarratutakoei kuota orokorraren % 50eko murrizketa aplikatuko zaie.

5.8. Desatrakatzeko edo atrakalekuz aldatzeko agindua jaso duen itsasontziak maniobra horiek atzeratzen baditu, agintaritza eskudunak ezartzen dizkion zehapenez gain -halakorik bada-, beste zenbateko hauek ere ordaindu beharko ditu:

- Lehenengo bi orduetako bakoitzagatik edo frakzioagatik: hogeita lau orduko kuotari dagokion zenbatekoa.
- Gainerako ordu bakoitzagatik: hogeita lau orduko kuotari dagokion zenbatekoa halako bost.

5.9. Edozein arrazoi dela-eta itsasontzi batek baimenik gabe atrakatzen badu, aurreko azpiapartatuan adierazitako kuota berbera ordaindu beharko du; horrek, hala ere, ez dio eskubiderik emango han irauteko, eta desatrakatu egin beharko du hala agintzen diotenean, baita zehapenak ordaindu ere, izan duen jokabideari hala badagokio.

5.10. Ostiraleko 20:00etatik asteleheneko 08:00ak arte (biak barne) atrakatzen duten itsasontziei eta jai-bezperako 20:00etatik jai ondoko egun balioduneko 08:00ak arte (biak barne) atrakatzen dutenei kuota orokorrari hiru ordurengatik dagokion zenbatekoaren % 35eko murrizketa ezarriko zaie, baldin eta lanaldia jai osteko egunean hastea aurreikusia badute.

Murrizketa horri heltzeko nahia Portuko Administrazioari jakinarazi behar zaio idatziz, itsasontzia portuan sartu baino lehen.

227. artikulua. T-2 tasa. Bidaiariak.

1. Tasa honen zerga-egitatea da bidaiariak instalazio hauek erabiltzea: atrakalekuak, lehorreko sarbideak, zirkulazio-bideak eta portuko beste instalazio finko batzuk.

2. Tasaren subjektu pasibo zergadun solidarioak izango dira itsasontziaren enpresa armadorea eta ontzi-konpainia.

Itsasontzia kontsignatuta badago, ordezeko subjektu pasiboa izango da itsasontziaren enpresa kontsignataria.

Manu honetan izendatutako ordezeko subjektu pasiboak solidarioki behartuta geratuko dira tributu-betebeharretik ondorioztatzen diren prestazio materialak eta formalak betetzera; nolana ere, Portuko Administrazioak, lehenengo, emakidaren edo baimenaren titularrarengana jotzea izango du. Ordezko subjektu pasiboak bere betebeharrak konplitu ezean -bereziki tasa ordaindu ezean-, Portuko Administrazioak subjektu pasibo zergadunei exijitu ahal izango die betebehar horiek betetzeko.

3. Tasaren sortzapena bidaiariak pasatzeko, ontziratzeke, lehorreratzeko edo portutik iragateko operazioak hasten direnean izango da. Likidazioa hilabete bakoitza amaitu ondoren egingo da.

4. Tasa honen zerga-oinarria dira bidaiari kopurua, bidaiari modalitatea eta trafiko eta operazio

motak.

5. Hauek dira tasaren kuotak:

5.1. Bidaiari bakoitza (eurotan):

Trafiko mota	Bidaiari-kategoria		
	III. blokea	II. blokea	I. blokea
Badiakoa edo tokikoa:	0,032990	0,065979	0,065979
Europako edo Europatik kanpoko kabotajea:	1,661694	4,271336	7,940447

Badiako edo tokiko trafikoan, ontziratzean bakarrik ordainduko da kuota.

Lagun bakarrarentzako edo birentzako kabinetako bidaiariei I. blokeko kuota ezarriko zaie; 11. blokekoa, hirurentzako edo gehiagorentzako kabinetan edo aretoko besaulkietan doazenei, eta 111. blokekoa, berriz, ontzigaineko bidaiariei.

5.2. Itsas bidaia turistikoen araubideko bidaiariei aurreko taulako kuota ezarriko zaie, % 30eko murrizketarekin.

5.3. Bidaiari kopurua, bidaiari mota edo trafiko mota modu zehaztugabea emanaz gero edo ezkutatzuz gero, aurreko taulako kuota halako bi ezarriko zaio gaizki aitortutako edo aitortu gabe utzitako partidari.

228. artikulua. T-3 tasa. Salgaiak.

1. Tasa honen zerga-egitatea da ontziratzen, lehorreratzen, ontzi batetik bestera aldatzen edo itsasotik edo lehorretik iragaten diren salgaiak instalazio hauek erabiltzea: atrakalekua, itsasontziaren zamalanekin zerikusia duten merkataritza-erabilerako guneak, lehorreko sarbideak, zirkulazio-bideak, manipulazio-guneak (biltegitratzeko edo gordetzeko espazioak izan ezik) eta portuko beste instalazio finko batzuk.

Zerga-egitatean sartzen da, halaber, portuko zerbitzugunera lehorretik sartu eta lehorretik ateratzen diren salgaiak -hau da, itsasoa erabiltzen ez dutenek- aipatu diren instalazioak erabiltzea, kasu hauetan izan ezik: helmuga edo jatorria portuko zerbitzugunean kokatutako fabrika-instalazioak, eraldaketa-instalazioak, instalazio logistikoak edo biltegitratzekoak direnean.

2. Hauek dira tasaren subjektu pasiboak:

- a) Ontziratzen diren, lehorreratzen diren, ontzi batetik bestera aldatzen diren edo itsasoko iragaitzaren araubidean dauden salgaiak izanez gero, enpresa armadorea, ontzi-konpainia eta salgaien jabea izango dira subjektu pasibo zergadun solidarioak.

Itsasontzia eta salgaiak kontsignatuta baldin badaude, hauek izango dira ordezkoko subjektu pasiboak: itsasontziaren enpresa kontsignataria eta salgaien ordezkari-lanetan dabilen enpresa kontsignataria, bitartekaria edo logistikako operadorea.

- b) Lehorretik iragaten diren salgaiak izanez gero, edo portuko zerbitzugunera sartzeko edo handik ateratzeko itsasoa erabiltzen ez duten salgaiak izanez gero, subjektu pasibo zergadun solidarioak izango dira salgaien jabeak edo, halakorik egonez gero, salgaien ordezkari-lanak egiten dituen enpresa bitartekaria edo logistikako operadorea.

Salgaien helmuga emakida edo baimen bidez emandako instalazio bat baldin bada, ordezkoko subjektu pasiboa izango da salgaiak bidaltzen edo jasotzen dituen emakidaren edo baimenaren titularra.

Manu honetan izendatutako ordezkoko subjektu pasibo guztiak solidarioki behartuta geratuko dira tributu-betebeharretik ondorioztatzen diren prestazio materialak eta formalak betetzera; nolana ere, Portuko Administrazioak, lehenengo, emakidaren edo baimenaren titularrarengana jotzea izango du. Ordezko subjektu pasiboek beren betebeharrak konplitu ezean -bereziki tasa ordaindu ezean-, Portuko Administrazioak subjektu pasibo zergadunei exijitu ahal izango die betebehar horiek betetzeko.

3. Tasaren sortzapena salgaiak portuko zerbitzugunetik pasatzeko operazioak hasten direnean izango da. Likidazioa hilabete bakoitza amaitu ondoren egingo da.

4. Tasa honen zerga-oinarria dira salgai mota eta salgaien pisua, trafiko mota eta operazio mota.

5. Hauek dira tasaren kuotak:

5.1. Salgai-partida bakoitzari ezarri beharreko kuotak taula honetan jasotzen dira (eurotan), pisu gordinaren tona metriko edo haren frakzio bakoitzeko eta indarrean dagoen salgaien sailkapenari jarraikiz dagokien multzoaren arabera:

Salgai multzoa	Tokikoa edo badiakoa	Ontziratzea	Lehorreratzea
Lehenengoa:	0,136163	0,464552	0,752897
Bigarrena:	0,184219	0,672801	1,081291
Hirugarrena:	0,272326	1,001193	1,601910
Laugarrena:	0,384457	1,473755	2,362815
Bosgarrena:	0,544651	2,002388	3,203817

Salgaien artean, petrolio-produktuak eta haien eratorriak honela sailkatuko dira, T-3 tasa likidatze aldera:

Produktua	Salgai multzoa
Petrolio gordina:	Lehenengoa
Gasolioa eta fuel-olioa:	Bigarrena
Asfaltoa, mundruna eta petroliotik ateratako break:	Hirugarrena
Gasolinak, naftak eta petrolio findua:	Laugarrena
Baselina eta labaingarriak:	Bosgarrena

Salbuespenez, kabotaje-araubideko gasolioari eta fuel-olioari 0,368440 euroko kuota aplikatuko zaie.

Itsasontziak eta ontziak hornitzearren portura lehorretik sartzen diren petrolio-produktuei ezarriko zaien kuotak % 50eko murrizketa izango du ontziratze-operazioan produktu berberei aplikatzen zaien kuotaren gainean.

Ez dute T-3 tasa ordaindu beharko arrantza-kaietan edo berariaz egokitutako beste kai batzuetan kontsumo propiorako ontziratzen dituzten hornidurengatik, ontzi- eta arrantza-tresnengatik, izotzarengatik eta gatzarengatik.

Tona metriko batetik beherako guztizko pisua duten partidei ezarriko zaien zenbatekoa (200 kg-ko edo hortik gorako frakzio bakoitzeko) tona bakoitzeko ordaindu beharko litzatekeenaren bostena izango da.

5.2. Lehorretik iragateko operazioetan salgai-partida bakoitzari ezarri beharreko kuotak taula honetan jasotzen dira (eurotan), pisu gordinaren tona metriko edo haren frakzio bakoitzeko eta indarrean dagoen salgaien sailkapenari jarraikiz dagokien multzoaren arabera:

Lehenengoa:	0,202840 euro.
Bigarrena:	0,272326 euro.
Hirugarrena:	0,400478 euro.
Laugarrena:	0,592707 euro.
Bosgarrena:	0,800955 euro.

5.3. Kabotaje-araubideko ontziak urez hornitzeko aplikatzekoa den kuotak % 80ko murrizketa izango du 5.1 apartatuan lehenengo multzorako aurreikusitakoaren gainean.

5.4. Nazioarteko iragaitzaren araubideko trafikoan, hots, salgaiak atzerriko portu batetik etorri eta, berriz ere, atzerriko beste portu baterantz ateratzen direnean, Portuko Administrazioak 5.1 apartatuko taulako zenbatekoei koefiziente zuzentzaileak ezarri ahal izango dizkie urtero, erabiltzaile bakoitzak daukan trafiko-bolumenaren arabera.

Edukiontzien trafikoan, gainera, kalkuluak errazteko, edukiontzian garraiatzen diren salgai guztiak batez beste dagokien multzokoak balira bezala hartu ahal izango dira, salgaien sailkapena kontuan harturik, eta zama-unitate bakoitzeko batez besteko pisua izango balute bezala. Portuko Administrazioan bereziki egiaztatu eta frogatu beharko da garraiatutako salgaien artean bosgarrena ez den beste multzorik dagoen; hor sartzen dira, esaterako, edukiontzi hutsak edo zama garbiaren batez besteko pisua, **TEU** bakoitzeko, 10 tona baino gutxiagokoa dutenak. Edonola ere, administrazio horrek onartu beharko ditu araubide bereziak, aintzat hartuz T-3 tasaren zenbatekoak zehaztearren erregelamendu bidez ezartzen diren irizpideak, eta haien ondoriozko murrizketa ezingo da izan 5.1 apartatuko taula aplikatuz legokiokoen kuota baino % 50 handiagoa.

5.5. Bide laburreko itsas garraio bidez garraiatzen diren siderometalurgiako produktuei % 35eko murrizketarekin aplikatuko zaie tasa honen kuota.

Murrizketa hori aplikatzeari dagokionez, bide laburreko itsas garraiotzat hartuko da salgaien edo bidaiarien trafikorako itsasontzi bidezko itsas zerbitzua, Europako uretan soilik egiten dena, geografikoki Europan dauden portu batzuetatik besteetara edo portu horietatik Europakoak izan ez baina Europa inguratzen duten itsaso itxietan itsasertza duten herrialdeetako portuetara, barne hartuta leku horietako guztietako uharteak eta subiranotasuneko lurralde ez-kontinentalak. Kontzeptu horren barruan sartuko da, era berean, Europar Batasuneko estatuen eta Norvegia eta Islandiaren arteko itsas garraioa, bai eta Europar Batasuneko estatuen eta Itsaso Baltikoko, Itsaso Beltzeko eta Mediterraneo itsasoko beste herrialde batzuen arteko itsas garraioa ere.

5.6. Portuko zerbitzugunetik trenbidez sartzen edo ateratzen diren salgaiei eta salgaiak garraiatzeko elementuei -itsasotik sartu edo ateratzekoei- % 25eko kuota-murrizketa aplikatuko zaie.

5.7. Dena den, aurreko bi apartatuetan aipatzen diren egoerak batera gertatzen direnean, kuotan guztira egingo den murrizketa ezingo da izan % 40tik gorakoa.

229. artikulua. T-4 tasa. Arrain freskoa.

1. Tasaren zerga-egitatea da jardunean diren arrantza-itsasontziek edo -ontziek portuko zerbitzuguneko urak baliatzea, eta itsasotik atrakalekura eta ainguralekura iristeko eta han egoteko portuko obrak eta instalazioak erabiltzea.

Zerga-egitatea da, era berean, portu-esparrura itsasotik arrantza- nahiz merkataritza-itsasontzian sartzen den edo lehorretik heltzen den arrain freskoak eta haren produktuek instalazio hauek erabiltzea: atrakalekuak, manipulazio-guneak eta salmenta-guneak, sarbideak, zirkulazio-bideak, aparkalekuak eta portuko beste instalazio finko batzuk.

2. Hauek dira tasaren subjektu pasiboak:

- a) Arrain freskoa portura itsasotik heltzen bada, arrantza-itsasontziaren enpresa armadorea izango da tasa honen subjektu pasibo zergaduna.

Arraina portuan saltzen denean, ordezeko subjektu pasiboa izango da, halaber, arrainaren jabea ordezkatzuz lehenengo salmenta egiten duena.

Arraina salmenta publikorako aretoan saltzen denean, ordezeko subjektu pasiboa arrainaren emakidaduna izango da, edo bestela, titularra, non eta Portuko Administrazioa ez den.

- b) Arrain freskoa portura lehorretik heltzen bada, arrainaren jabea izango da subjektu pasibo zergaduna.

Ordezko subjektu pasiboa, berriz, arrainaren jabea ordezkatzuz salmenta egiten duena izango da.

Arraina salmenta publikorako aretoan saltzen denean, ordezeko subjektu pasiboa arrainaren emakidaduna izango da, edo bestela, titularra, non eta Portuko Administrazioa ez den.

- c) Manu honetan izendatutako subjektu pasiboak solidarioki behartuta geratuko dira tributu-betebeharretik ondorioztatzen diren prestazio materialak eta formalak betetzera; nolana ere, Portuko Administrazioak, lehenengo, 2.a) apartatuko hiru garren tartekian eta 2.b) apartatuko hiru garren tartekian adierazten diren ordezeko subjektu pasiboengana jotzea izango du.

Ordezko subjektu pasiboek beren betebeharrak konplitu ezean -bereziki tasa ordaindu ezea-, Portuko Administrazioak subjektu pasibo zergadunei exijitu ahal izango die betebeharrak horiek betetzeko.

Tasa honen subjektu pasiboak arrainaren erosleari jasanaraziko dio tasaren zenbatekoa. Horretarako, faktura edo antzeko agiriren bat egin beharko da, non subjektu pasiboak adierazpen hau jasoko baitu: «Arrain freskoari dagokion tasaren ehunekoa:....».

3. Tasaren sortzapena izango da arrantza-itsasontzia edo -ontzia, arrain freskoa edo haren produktuak portuko zerbitzugunetik pasatzen hasten direnean. Likidazioa hilabete bakoitza amaitu ondoren egingo da.

4. Tasa honen zerga-oinarria da arrainaren edo haren produktuen merkatu-balioa, portuko lonjan enkantean salduta lortutakoa; enkantean edo bestela saldu ez bada, Portuko Administrazioak zehaztuko du merkatu-balioa, kontuan izanik zein den espezie horien batez besteko balioa tasa likidatzen den egunean edo aurre-aurreko egunetan.

5. Hauek dira tasaren kuotak:

5.1. Oro har, zerga-oinarriaren % 2.

5.2. Portuko Administrazioak baimena ematen badu lehorretik portura arrain freskoaren produktuak sartzeko, portuko instalazioak erabiltzearen edo arraina enkantean saltzearen, kuota orokorraren % 50eko murrizketa izango da produktu horiengatik, betiere frogatzen badute T-4 tasa edo haren balioidea beste portu batean ordaindu dutela. Osterantzean, kuota osoa ordaindu beharko dute.

5.3. Arraina sailkatzeko, lehenengoz saltzeko eta merkaturatzeko manipulazio-gune publikorik ez duten portuetan, baldin eta lan horietarako instalazio pribatuak erabili behar badituzte, T-4 tasarengatik ordaindu beharreko zenbatekoak artikulua honetan ezarrita dauden arauak aplikatuz ateratzen den kuotaren % 60ko murrizketa izango du.

5.4. Tasa hori ordaintzen duten arrantza-itsasontziak salbuetsita egongo dira I. kapitulu honetan ezarritako gainerako tasak ordaintzetik, gehienez hilabeteko epean, zama deskargatzen edo ontzi batetik bestera aldatzen hasi diren egunetik zenbatuta. Epe hori luzatu egin daiteke jardunik gabeko nahitaezko aldiak iraun bezainbeste (dela aldi baterako konponketa-lanengatik, dela kostaldeko debekualdiengatik edo ohiko jarduerari dagozkien lizentziengatik), baina agintaritza eskudunak emandako ziurtagirien bidez frogatu beharko dira egoera horiek, berariaz eta banan-banan.

Jardunik gabeko nahitaezko aldia luzea baldin bada, agintaritza eskudunak zehaztuko du non geratuko diren ainguratuta edo atrakatuta barkuak, betiere kontuan izanda atrakaleku erabilgarriak eta portua ustiatzeko beharrianak.

Edonola ere, jardunik gabeko aldia sei hilabete baino luzeagoa denean, epe hori igarotzen denetik aurrera T-1 tasaren % 100 ordainduko dute. Jardunik gabeko aldia hamabi hilabete baino luzeagoa bada, hamahirugarren hilabetetik aurrera hileko % 2ko gehikuntza metagarria aplikatuko da.

5.5. Halaber, arrantza-ontziek, aurreko apartatuan zehazturiko kasuetan dauden artean, ez dute T-3 tasa ordaindu beharko arrantza-kaietan edo berariaz egokitutako beste kai batzuetan kontsumo propiorako ontziratzen dituzten hornidurengatik, ontzi- eta arrantza-tresnengatik, izotzarengatik eta gatzarengatik. Era berean, arrantza-ontziak hornitzearren portura lehorretik sartzeko diren petrolio-produktuei ezarriko zaizkien tasak % 50eko murrizketa izango du ontziratze-operazioan produktu berberei aplikatzen zaizkien kuotaren gainean.

5.6. Portuko Administrazioak ahalmena izango du arrainen pisua, kalitatea eta espezieak egiaztatzeko, eta egiaztatze horren gastuak tasa ordaindu behar duen subjektu pasiboaren kontura izango dira.

6. Autolikidazioa aurkeztuko dute artikulua honen 2.a) apartatuko hirugarren tartekian eta 2.b) apartatuko hirugarren tartekian adierazten diren ordezko subjektu pasiboek, eta autolikidazio horretan Portuko Administrazioari jakinaraziko dizkiote tasa likidatzeko beharrezkoak diren datuak eta bestelako informazio-datuak; gainera, beren kabuz egingo dituzte tributu-zorren zenbatekoa zehazteko eta ordaintzeko beharrezkoak diren kalifikazio- eta kuantifikazio-eragiketak.

Informazio-datuaren artean sartuko dira, kasu guztietan, honako hauek:

- a) Enpresa armadorearen izena.
- b) Arrantza-itsasontziaren edo -ontziaren izena eta matrikula.
- e) Saldutako edo erretiratutako arrain kopurua, espeziearen arabera.
- d) Salmenta-prezioa, espeziearen arabera.
- e) Eroslearen izena.

Ordezko subjektu pasibo horiek eskubidea izango dute informazio-jarduketak egiteagatik zenbateko bat jasotzeko; zenbateko hori zerga-oinarriaren % 0,5 izango da, eta tasa honetan aurreikusitako deskontu berberak aplikatuko zaizkio.

230. artikulua. T-5 tasa. Seigarren eta zazpigarren zerrendetako ontziak.

1. Aisialdiko nabigazioko azpiegiturak honela katalogatzen dira T-5 amarratze-tasa likidatze aldera, kontuan hartuta nola ematen diren kirol-amarratzeen kudeaketa-zerbitzuak:

- 1. taldea: portuko zerbitzuetako langileak partekatzen dituzten aisialdiko nabigazioko azpiegiturak.
- 2. taldea: portuko zerbitzu eskusiboa 24 orduetik beherako txandetan ematen duten aisialdiko nabigazioko azpiegiturak; zerbitzu-orduak astean bi edo hiru lanaldi osaren parekoak izango dira, goi-denboraldian salbu, orduan egunero emango baitira.
- 3. taldea: portuko zerbitzuetako langileen zerbitzu eskusiboa 24 orduetik beherako txandetan ematen duten aisialdiko nabigazioko azpiegiturak; zerbitzu-orduak astean hiru lanaldi osaren baino gehiagoren parekoak izango dira, goi-denboraldian salbu, orduan egunero emango baitira.
- 4. taldea: portuko zerbitzuetako langileen zerbitzu eskusiboa urteko egun guztietan eta 24 orduetan ematen duten aisialdiko nabigazioko azpiegiturak.

2. Tasa honen zerga-egitatea da seigarren eta zazpigarren zerrendetako ontziek portuko zerbitzuguneko urak baliatzea, eta itsasotik portura iristeko eta esleitu zaien atrakaleku, amarraleku edo ainguralekuan egoteko portuko obrak eta instalazioak erabiltzea. Halaber, zerga-egitatea izango da eskifaia-kideek eta bidaiariek portuko kaiak, pantalanak, lehorreko sarbideak, zirkulazio-bideak eta, baleude, Portuko Agintaritzaren egonlekuak eta harrera-tokiak erabiltzea; halakoetan, eskatzen dituzten berariazko zerbitzuak ordaindu beharko dituzte.

Orobat, tasa honen zerga-egitatearen barruan sartuko dira portuko zerbitzuetako langileek emandako zerbitzuak (marineltza-, zaintza- edo administrazio- eta harrera-zerbitzuak), baldin eta dartsenen baldintzek hala egitea eskatzen badute.

3. Hauek izango dira tasaren subjektu pasibo zergadun solidarioak:

- a) Baimena izanez gero, baimenaren titularra.
- b) Titulurik gabeko okupazioetan, ontzi okupatzailearen jabea, enpresa kontsignataria eta ontziko kapitaina edo patroia.

4. Tasaren sortzapena ontzia portuko zerbitzuguneko uretan sartzen denean izango da. Baimena duten ontzien kasuan, tasaren sortzapena gaikuntza ematen duen titulua lortzean izango da.

Portuan pasaeran dauden ontziek portura iritsitakoan likidatu beharko dute tasa, deklaratzeko duten egonaldiaren iraupenaren arabera.

Portuan basea duten ontziek aurretiaz eta Portuko Administrazioak ezarritako aldien arabera likidatuko dute tasa, eta, Portuko Administrazioak hala eskatuz gero, banku-entitate batean helbideratu beharko dute ordainketa.

5. Tasa honen zerga-oinarria da ontziaren guztizko luzera eta gehieneko zabalera biderkatuta ateratzen den azalera (metro karratutan) bider ontziak ainguratuta edo atrakaturik igaro duen denbora.

6. Hauek dira tasaren kuotak:

6.1. Ontziek portuko zerbitzuguneko urak baliatzeagatik, eta itsasotik dagokien atrakalekura edo ainguralekura iristeko eta han egoteko portuko obrak eta instalazioak erabiltzeagatik:

6.1.1. Aisialdiko nabigazioko azpiegituretan atrakatzegatik ordaindu beharreko T-5 tasaren zenbatekoa honako hau izango da:

a) 1. taldea

Modalitatea	Euro/m2 eta egun
Administrazioaren ainguraketa-blokerik eta ainguraketa-trenik gabe:	0,041239
Administrazioaren ainguraketa-blokearekin edo ainguraketa-trenarekin:	0,082475
Kaietan atrakatuta:	0,098970
Pantalanetan atrakatuta:	
Urtebete edo urtebete baino gehiago kontratatuz gero:	0,123713
Urtebete baino gutxiago kontratatuz gero:	0,181443

b) 2. taldea

Modalitatea	Euro/m2 eta egun
Administrazioaren ainguraketa-blokerik eta ainguraketa-trenik gabe:	0,052696
Administrazioaren ainguraketa-blokearekin edo ainguraketa-trenarekin:	0,105389
Kaietan atrakatuta:	0,126466
Pantalanetan atrakatuta:	
Urtebete edo urtebete baino gehiago kontratatuz gero:	0,154987
Urtebete baino gutxiago kontratatuz gero:	
Goi-denboraldia (30 egun baino gehiago maiatzetik irailera)	0,264943
Behe-denboraldia (30 egun baino gehiago urritik apirilera)	0,197415

c) 3. taldea

Modalitatea	Euro/m2 eta egun
Administrazioaren ainguraketa-blokerik eta ainguraketa-trenik gabe:	0,056303
Administrazioaren ainguraketa-blokearekin edo ainguraketa-trenarekin:	0,112610
Kaietan atrakatuta:	0,135128
Pantalanetan atrakatuta:	
Urtebete edo urtebete baino gehiago kontratatuz gero:	0,165602
Urtebete baino gutxiago kontratatuz gero:	
Goi-denboraldia (30 egun baino gehiago maiatzetik irailera)	0,264943
Behe-denboraldia (30 egun baino gehiago urritik apirilera)	0,197415

d) 4. taldea

Modalitatea	Euro/m2 eta egun
Administrazioaren ainguraketa-blokerik eta ainguraketa-trenik gabe:	0,072077
Administrazioaren ainguraketa-blokearekin edo ainguraketa-trenarekin:	0,144167
Kaietan atrakatuta:	0,172986
Pantalanetan atrakatuta:	
Urtebete edo urtebete baino gehiago kontratatuz gero:	0,216237
Urtebete baino gutxiago kontratatuz gero:	
Goi-denboraldia (30 egun baino gehiago maiatzetik irailera)	0,339171
Behe-denboraldia (30 egun baino gehiago urritik apirilera)	0,252724

e) Iragaitzazko ontzietarako atrakalekuak:

Modalitatea	Euro eta egun
Gehienez 8 metroko luzera duten ontziak:	
Ekainetik irailera	13,71
Apiriletik maiatzera	13,71
Urritik martxora	13,71
8 metrotik gora hasita 10 metrora arteko luzera duten ontziak:	
Ekainetik irailera	22,53
Apiriletik maiatzera	17,97
Urritik martxora	14,17
10 metrotik gora hasita 12 metrora arteko luzera duten ontziak:	
Ekainetik irailera	31,71
Apiriletik maiatzera	25,31
Urritik martxora	19,94
12 metrotik gora hasita 14 metrora arteko luzera duten ontziak:	
Ekainetik irailera	41,35
Apiriletik maiatzera	33,00
Urritik martxora	26,00
14 metrotik gorako luzera duten ontziak:	
Ekainetik irailera	59,35
Apiriletik maiatzera	47,36
Urritik martxora	37,33
Modalitatea	Euro/m2/egun
Fingerrik gabeko pantalanetako atrakalekuak:	
Ekainetik irailera	0,7578
Apiriletik maiatzera	0,5631
Urritik martxora	0,3716

6.1.2. Ontzia instalazio finko batean (lehorrari atxikitako obra zibila) edo instalazio flotatzaile batean amarratzea edo atrakatzea kaian atrakatzearen pareko izango da, baldin eta instalazioak ontziak bereizteko fingerrik ez badu, eta ez badago ez ur- ez argindar-zerbitzurik.

6.1.3. Bandaz banda jarrita dauden ontziek —dela kaian edo pantalan flotatzailean saiheska atrakaturiko ontzien alboan, dela bandaz banda jarrita dauden beste barku batzuen alboan— 6.1.1 apartatuan ezarrita dagoen kuota orokorraren % 50eko murrizketa izango dute.

6.1.4. Ontzia ainguratuta edo atrakatuta dagoen guneak metro bat baino gutxiagoko zingoa badu —dagokion portuko gehieneko itsasbehera bizi ekinokzialetik (GIBE) neurtuta—, kuota orokorraren % 25eko murrizketa aplikatuko zaio ontziari.

Gainera, baldintza hauek bete behar dira:

– Ontziaren guztizko luzera 6 metro baino laburragoa izatea.

– Motorraren potentzia 25 HP baino txikiagoa izatea.

Murrizketa horiek ez zaizkie aplikatuko pantalanetan atrakatuta dauden ontziei, ezta seigarren edo zazpigarren zerrendako ontzi baten baino gehiagoren jabe direnei ere.

6.1.5. Portuaren kanpoaldea edo portuaren ondoko aldea erabiltzen duten ontziek, baldin eta portuko zerbitzuak hurbil izateagatik edo erabiltzeagatik onuraren bat ateratzen badute, 6.1.1 apartatuan ezarritako kuotaren % 60ko murrizketa izango dute, eta murrizketa hori bateraezina izango da artikulua honetan jasotzen den beste edozeinekin.

6.1.6. Ontzien jabeak pentsiodunak badira, tasa hau ordaintzetik salbuetsita egongo dira. Salbuespen hori aplikatzeari begira, pentsiodunak direla egiaztatzeko, kasuan kasuko organismo ofizialaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eta urteko guztizko diru-sarrerak lanbide arteko

gutxieneko soldata baino 1,5 bider txikiagoak direla justifikatu; horretarako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitortpenaren kopia erantsi beharko dute. Era berean, atrakatzea eskatu duten ontzian nabigatzeko legeaz eskatzen den titulua aurkeztu beharko dute.

Salbuespen hori ez zaie aplikatuko seigarren edo zazpigarren zerrendan erregistraturiko ontzi baten baino gehiagoren jabe direnei, 6 metrotik gorako gehieneko luzera duten ontzien jabeei, ez eta motorraren potentzia 50 HP baino handiagoa duten ontzien jabeei ere.

6.1.7. Bai ainguratzea eta bai atrakatzea Portuko Administrazioari eskatu behar zaizkio. Hala egin ezean, pantalanean atrakatzeko kuotarena izango da sortzapena, eta % 100eko gehikuntza izango du; horrez gain, zehapena jartzea ere egongo da, indarrean dauden xedapenak hausteagatik.

Kuota hori ordaintzeak ez du kentzen ontzia desatrakatzeko betebeharra, amarralekuz edo ainguralekuz aldatzekoa edo, areago, portutik ateratzekoa, agintaritza eskudunak beharrezkotzat jo eta hala agintzen badu.

6.1.8. Desatrakatzeko edo atrakalekuz aldatzeko agindua jaso duen barkuak maniobra horiek atzeratzen baditu, agintaritza eskudunak ezartzen dizkion zehapenez gain —halakorik bada—, beste zenbateko hauek ere ordaindu beharko ditu:

- Lehenengo hiru egunetako bakoitzagatik edo frakzioagatik: dagokion kuotaren zenbatekoa, % 50eko gehikuntzarekin.

- Gainerako egun bakoitzagatik: dagokion kuotaren zenbatekoa, % 100eko gehikuntzarekin.

6.1.9. Tasa hau ordaindu behar duten ontziak T-1 tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

6.1.10. Baimenaren titularrak Portuko Administrazioari jakinarazten badio aldi baterako ez duela okupatuko bere amarralekua, Portuko Administrazioak baimena eman ahal izango du plaza hori beste batek okupa dezan aldi batez.

Kasu horretan, amarratze-baimenaren titularrari hobari bat aplikatu ahal izango zaio, eta hobari hori dagokion ekitaldiaren amaieran ordainduko zaio, ordainketa bakar baten bidez. Berriz alokatzearen hobariagatik egingo den urteko ordainketak ezingo du gainditu amarratze-baimenaren titularrak ordaindutako T-5 amarratze-tasaren urteko zenbatekoaren % 80.

6.2. Uraren eta energia elektrikoaren zerbitzuak eskura izateagatik dorretxo adimendunen bidez:

6.2.1. Kuotaren zenbatekoa kalkulatzeko, koefiziente honekin biderkatuko da aurreko 6.1 apartatuan ezarritako tasa:

Uraren eta energia elektrikoaren hargunea: 0,007.

6.2.2. Urez eta energia elektrikoaren hornitzeko portu-instalazioen erabilera tasa honen likidazioa kontuan hartu gabe likidatuko da, eta 228. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6.3. Baimenaren titularrak jakinarazten badu ez duela bere amarralekua aldi batez okupatuko, Administrazioak baimena eman ahal izango du plaza hori beste ontzi batek okupa dezan.

Kasu horretan, amarralekuaren titularrari hobari bat aplikatuko zaio tasaren hurrengo likidazioan, bigarren okupazioagatik ordaindutako zenbatekoaren % 60koa.

231. artikulua. T-6 tasa. Altxatze-zerbitzuak.

1. Tasa honen zerga-egitatea da ontziek altxatze-zerbitzuak erabiltzea.

2. Tasaren subjektu pasibo zergadun solidarioak izango dira zerbitzuaren eskatzailea edo onuraduna eta ontziaren jabea.

3. Tasaren sortzapena zerbitzua eskuragarri jartzen den unetik aurrera izango da, eta tasa ordaindu izana nahitaez justifikatu beharko da zerbitzua jaso ahal izateko.

4. Tasa honen zerga-oinarria dira ekipamendua erabilgarri dagoen denbora, haren altxatze-ahalmena edo -potentzia, egingo den maniobra mota, garabi mota eta ontziaren dimentsioak.

5. Hau da T-6 tasaren kuota:

Portiko-garabi autopropultsatua, altxatzea eta uretaratzea, guztizko luzeraren metro lineal bakoitzeko:

- Gehienez 8 metroko ontziak: 11,34 euro.
- 8 metrotik gora hasita 12 metrora arteko ontziak: 14,59 euro.
- 12 metrotik gorako ontziak: 17,85 euro.

Beso-garabia, altxatzea eta uretaratzea: 44,63 euro.

Murrizketa hauek aplikatu ahal izango dira tasaren kuotaren zenbatekoan:

- a) Maniobra azkarrak egiten badira, bermatu gabe eta 30 minutu baino gutxiago erabilita, % 50eko murrizketa.
- b) Altxatzea edo uretaratzea soilik egiten bada, % 50eko murrizketa.
- c) Portiko-garabi autopropultsatuen maniobra bi hilabetetik laura bitarteko negualdirako egiten bada, % 20ko murrizketa.
- d) Portiko-garabi autopropultsatuen maniobra lau hilabetetik zortzira bitarteko negualdirako egiten bada, % 40ko murrizketa.

232. artikulua. T-7 tasa. Aparkatzea.

1. Tasa honen zerga-egitatea da ibilgailuak aparkatzeko portu-zerbitzua ematea EAEko portuen zerbitzuguneetan.

2. Tasaren subjektu pasibo zergadun solidarioak izango dira aparkatzeko zerbitzuaren onuraduna edo baimenaren erabiltzaile titularra eta ibilgailuaren jabea.

3. Tasaren sortzapena ibilgailua portuko aparkaleku-gunean sartzen denean izango da. Baimena duten pertsonen kasuan, tasaren sortzapena gaikuntza ematen duen titulua lortzean izango da.

4. Tasa honen zerga-oinarria da portuko aparkaleku-gunean igarotako denbora.

Baimena duten pertsonen kasuan, tasa honen zerga-oinarria izango da aparkaleku-zerbitzua erabiltzeko baimena bera.

5. Ibilgailuak aparkatzeko zerbitzua arautzen den portuetan, kuota hauek ordainduko dira:

5.1. Oro har:

5.1.1. Portuko jarduerekin zerikusia duten egoiliarren eta erabiltzaileen ibilgailuak:

- Donostia: 98,71 euro/urte.
- Beste portu batzuk: 70,32 euro/urte.

5.1.2. Portuko jarduerekin zerikusirik ez duten gainerako erabiltzaileen ibilgailuak:

- Ibilgailu arinak: 1,10 euro ordu bakoitzeko edo frakzioko, eta gehienez 10,87 euro egun bakoitzeko.
- Ibilgailu astunak: 3,27 euro ordu bakoitzeko edo frakzioko, eta gehienez 32,63 euro egun bakoitzeko.

5.1.3 Portuko amarratzaileek lehentasunez erabiltzeko aparkalekuak dituzten kirol-portuetan, diru kopuru hauek kobratuko dira aparkatzeko zerbitzua erabiltzeko baimenagatik:

- Getariako, Bermeoko eta Mutrikuko portuetan: 70,32 euro/urte.
- Donostiako, Hondarribiko eta Orioko portuetan: 98,71 euro/urte.
- Iragaitzazko edo pasaerako amarratzaileen ibilgailuetarako: 5,53 euro/egun.

5.2. Portura sartzeko txartela egiteagatik edo, hura galdu edo hondatuz gero, berria emateagatik:

- Txartel magnetikoa: 42,71 euro.

- Txartel ez-magnetikoa: 7,53 euro.

5.3. Gaizki aparkatutako ibilgailu bakoitza kentzeagatik: 59,38 euro.

233. artikulua. T-8 tasa. Uraren eta energia elektrikoaren hornidurari dagokion tasa.

1. Tasa honen zerga-egitatea da urez eta energia elektriko hornitzeko portu-instalazioak erabiltzea; izan ere, atrakatze- eta amarratze-zerbitzuak hartzeaz batera, nahitaezkoa da ura eta energia elektrikoa hartzea.

2. Tasaren subjektu pasibo zergadun solidarioak izango dira ontziaren jabea, baimenaren jabe titularra, itsasontziaren enpresa armadorea, ontzi-konpainia, eta ontziko kapitaina edo patroia.

Itsasontzia kontsignatuta badago, ordezeko subjektu pasiboa izango da itsasontziaren enpresa kontsignataria.

3. Tasaren sortzapena beste honen sortzapenaren une berean izango da: itsasontziek edo ontziek portuko zerbitzuguneko urak baliatzeagatik eta itsasotik atrakalekura eta ainguralekura iristeko eta han egoteko portuko obrak eta instalazioak erabiltzeagatik ezarritako tasa. Batera likidatuko dira bi tasa horiek.

4. Tasa honen zerga-oinarria da eskuratutako unitate kopurua, kontagailua dagoen kasuetan. Bestela, hau izango da zerga-oinarria: ontziaren guztizko luzera eta gehieneko zabalera biderkatuta ateratzen den azalera (metro karratutan) bider ontziak ainguratuta edo atrakatuta igaro duen denbora.

5. Hauek dira tasaren kuotak:

5.1. Ura: 1,92 euro, metro kubiko bakoitzeko.

Energia elektrikoa: 0,85 euro, kilowatt-ordu bakoitzeko.

5.2. Kontagailurik ez badago, ura eta energia elektrikoa kontsumitzeagatik ordaindu behar den kuota 0,032 euro/m² eta egun izango da.

Kontsumoa karenatze-eremuan egiten bada, 24,61 euro/egun izango da kuota.

234. artikulua. T-9. Askotariko zerbitzuak.

1. Tasa honen zerga-egitatea da baskulak, ontzitegi-orgak, garbiketa-makinak edo portuko beste edozein zerbitzu erabiltzea.

2. Tasaren subjektu pasibo zergadun solidarioak izango dira zerbitzuaren eskatzailea edo onuraduna eta ontziaren jabea.

3. Tasaren sortzapena zerbitzua eskuragarri jartzen den unetik aurrera izango da, eta tasa ordaindu izana nahitaez justifikatu beharko da zerbitzua jaso ahal izateko.

4. Hau da tasa honen zerga-oinarria:

4.1. Baskulak: zenbat aldiz erabili den baskula.

4.2. Ontzitegi-orgak: ontzia zenbat aldiz altxa eta jaitsi den, zenbat egunetan egon den ontzitegian, eta zenbatekoak diren ontziaren erregistroko tonaje gordina (ETG) eta luzera.

4.3. Garbiketa-makinak: zenbat denbora erabili diren.

5. Hauek dira tasaren kuotak:

5.1. Baskulak:

Pisaldi bakoitza: 1,73 euro.

5.2. Ontzitegi-orgak:

5.2.1. Altxaldi edo jaitsaldi bakoitza.

– Gehienez 50 ETG baditu, guztizko luzeraren metro bakoitza: 20,31 euro.

- 51-150 ETG baditu, tona bakoitza: 2,34 euro.
- 150 ETG baino gehiago baditu, tona bakoitza: 1,79 euro.

5.2.2. Egonaldi-egun bakoitza.

- Gehienez 50 ETG baditu, guztizko luzeraren metro bakoitza: 0,60 euro.
- 51-150 ETG baditu, tona bakoitza: 0,32 euro.
- 150 ETG baino gehiago baditu, tona bakoitza: 0,54 euro.

Seigarren eta zazpigarren zerrendetako ontziak direnean, kuota hauek ordainduko dituzte egunean, guztizko luzeraren metro lineal bakoitzeko eta egonaldi-egun bakoitzeko:

- 0-7 egun: 0,50 euro.
- 8-10 egun: 0,78 euro.
- 11-20 egun: 1,19 euro.
- 21-60 egun: 2,66 euro.
- 61. egunetik aurrera: 2,66 euro.

Irailaren 1etik apirilaren 30era egiten diren egonaldietan, bi egun horiek barne, murrizketa hauek egingo dira, 61. egunetik aurrera:

- 61-120 eguneko egonaldia: % 20.
- 121-240 eguneko egonaldia: % 40.

5.2.3. Lehorratze-arrapalak, erabilaldi bakoitzeko: 13,25 euro.

5.2.4. Sehaska-jokoa:

- Txikiak: 1,48 euro/egun.
- Ertainak: 2,74 euro/egun.
- Handiak: 3,98 euro/egun.

5.3. Garbiketa-makinak:

- 5.3.1. Ontzia harea-zurrustarekin garbitzea, egun bakoitzeko edo frakzioko: 82,48 euro.
- 5.3.2. Presioz garbitzeko makina, ordu-erdi bakoitzeko edo frakzioko: 7,81 euro.
- 5.3.3. Makina hidrogarbitzailea: 3,36 euro/12 minutu.

235. artikulua. Portuko jabari publikoaren okupazio pribatiboagatik eta erabileragatik ezarritako tasa.

1. Tasa honen zerga-egitatea dira portuko jabari publikoaren okupazioa eta erabilera, barnean hartuta haren lurgaina eta lurpea.

2. Hauek dira tasaren subjektu pasibo zergadunak:

- a) Emakida edo baimena izanez gero: emakidaduna edo baimenaren titularra, hurrenez hurren.
- b) Titulurik gabeko okupazioa izanez gero: okupatzailea.

3. Tasaren sortzapena une hauetan izango da:

- a) Artikulu honen 2.a) apartatuan aipatzen den kasuan, emakidaren edo baimenaren tituluak ematen direnean, eta urte bakoitzeko urtarilaren 1ean, emakidak edo baimenak urtez urte izango dituen indarraldietan.
- b) Artikulu honen 2.b) apartatuan aipatzen den kasuan, okupazioa gertatzen den unean.

Sortzapenaren unean likidatuko da tasa. Emakidak eta baimenak ostalaritza-jardueretarako (urtebete baino epe laburreragorako) edo kirol-probak egiteko ematen direnean, tasaren likidazioa

jabari publikoa okupatzeko edo erabiltzeko aldia amaitu eta hurrengo hilabetean egingo da. Emakidak eta baimenak urtebeterako edo gehiagorako ematen direnean, uztailean eta urtarrilean likidatuko da tasa, aurreko sei hilabetei dagokiena.

4. Tasa honen zerga-oinarria dira portuko jabari publikoan okupatu den azalera (metro karratutan neurtuta) eta okupazioaren iraupena.

5. Hauek dira tasaren kuotak:

5.1. Emakidak.

5.1.1. Oro har, hauek dira tasaren kuotak:

a) Azalera eraikigabea bada, 13,67 euro/m²/urte.

b) Azalera eraikia bada, 27,29 euro/m²/urte.

c) Aisialdiko nabigazioko erabilera duten portu-eremuetako azalera eraikia bada, 7,53 euro/m²/hilabete.

a) eta b) kasuetan, % 25eko koefiziente murriztailea ezarriko da portu hauetan:

- Armintza
- Deba
- Ea
- Elantxobe
- Lekeitio
- Mundaka
- Mutriku
- Orio
- Plentzia
- Zumaia

c) kasuan, berriz, % 65eko koefiziente murriztailea ezarriko da portu hauetan:

- Armintza
- Deba
- Ea
- Elantxobe
- Mundaka
- Mutriku
- Ondarroa
- Orio
- Plentzia

5.1.2. Emakidaren xede diren instalazioak lurpean egon eta eragozpenik sortzen ez badute lur gainean aske zirkulatzeko, azalera eraikigabearen okupazioari dagozkion kuotak aplikatuko dira, % 50eko murrizketarekin. Lurpeko kanalizazioetan, gutxienez 1 m² zenbatuko da kanalizazioko metro lineal bakoitzeko. Entitate publikoek ura hornitzeko eta saneatzeko lurperatutako kanalizazioetan, gutxienez 0,20 m² kuantifikatuko dira kanalizazioko metro lineal bakoitzeko.

5.1.3. Okupazioaren xedea bada portu-jardueraren prestazioarekin zuzeneko loturarik ez duten merkataritzako edo industriako jarduerak garatzea, 5.1.1 apartatuan ezarritako kuotak aplikatuko dira, % 50eko gehikuntzarekin.

Nolanahi ere, gehikuntza hori % 20koa izango da, Hondarribiko portuko kirol-nabigazioko eremuetako merkataritza-erabilera duten azalera eraikiak direnean.

5.1.4. Emakidaren xede den lokala hornituta dagoenean eta bertan gauzatuko den merkataritza- edo industria-jarduerarako beharrezkoak diren tresnak eta makinak barne hartzen dituenen, 5.1.1 apartatuan ezarritako kuota aplikatuko da, % 125eko gehikuntzarekin.

5.1.5. Okupazio berean 5.1.2 eta 5.1.3 apartatuetan aipatzen diren egoerak gertatzen badira, apartatu bakoitzari dagozkion kuoten batezbesteko aritmetikoa egingo da.

5.1.6. Emakidaren xedea ur-eremu jakin bat okupatzea denean, kuotak azalera eraikigabeari dagozkionak izango dira.

5.1.7. Emakidaren xedea sareak manipulatzeko eraikinak badira, edo tinak edo kutxak garbitzeko instalazioak, izotz-fabrikak, arraina jaso, erakutsi, manipulatu edo saltzeko lonjak edota izozteko instalazioak, azalera eraikiaren okupazioari dagozkion kuotak aplikatuko dira, % 50eko murrizketarekin.

5.1.8. Emakidaren lehenengo urtean, eskatzekoa den tasa-zenbatekoa proportziozkoa izango da urte horretako iraunaldiarekiko; hortaz, aurreko apartatuen arabera zenbatekoari dagokion hainbanaketa ezarriko zaio. Era berean, emakidak indarrean irauten duen azken urtean ere aplikatuko da hainbanaketaren irizpide hori.

5.2. Baimenak:

Baimena denean, kopuru hauek aplikatuko dira:

5.2.1. Merkataritza- edo industria-jarduera baterako denean:

a) Portuko jarduerekin zerikusia badu: 0,255669 euro/m²/egun.

b) Portuko jarduerekin zerikusirik ez badu: 0,501854 euro/m²/egun.

5.2.2. Merkataritza- edo industria-jarduera baterako ez denean: 0,255669 euro/m²/egun.

5.2.3. Zehaztuko diren biltegiatze-guneetako espazioak okupatu edo erabiltzeko baimena denean, tasaren zenbatekoak kuota orokorraren % 50eko murrizketa izango du. Biltegiatze-guneetan dauden espazioak arrainetarako bilgarriak edo arrantza-lanabesak uzteko okupatzen edo erabiltzen direnean, murrizketa % 80koa izango da.

5.3. Emakidei edo baimenei dagozkien tasen zenbatekoak urtero berrikusiko dira, lege bidez onartutako portuko tasen eguneraketaren arabera.

Lehenago esleitutako emakidak eta baimenak, baldin haien tituluan prezioak berrikusteko klausula badago, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera berrikusiko dira, klausula horrek lege hau aipatzen badu edo kontsumoko prezioen indizea ez beste adierazle bat aipatzen badu; aldiz, klausulak kontsumoko prezioen indizea aipatzen badu, indize horrek izandako aldakuntzen arabera berrikusiko dira.

5.4. Portuko Administrazioak emakidak edo baimenak esleitzeko lehiaketetarako deialdiak egiten baditu, aukera egongo da lizitatzailerek, tasa honetarako ezarritako zenbatekoez gain, zenbateko gehigarriak eskaintzeko, eta hori baldintza-agirietan jasoko da, ebazteko irizpideen artean. Eskaintako zenbateko gehigarriak, tributu izaerarik ez dutenez, ez daude aurreko 5.3 apartatuan aurreikusitako eguneratze-araubidearen menpe.

5.5. Baimenaren xedea kirol- eta jolas-ekitaldiak egitea denean, tasaren zenbatekoa proportziozkoa izango da ekitaldi-egunean benetan okupatutako orduekiko; hortaz, artikulua honen aurreko apartatuen arabera zenbatekoari dagokion hainbanaketa ezarriko zaio. Ondorio horietarako, lurralde-ordezkaritzako langileek bidalitako aktan zehaztuko dira benetako okupazioaren hasiera-ordua eta amaiera-ordua.

6. Toki-korporazioei salbuespena aplikatuko zaie emakidetan eta baimenetan, baldin eta ez badituzte irabazi-asmoz ustiatzen, ez beren kabuz, ez hirugarrenen bidez.

Arrantzaleen kofradiei eta ekoizleen antolakundeei salbuespena ezarriko zaie portuko jabari

publikoa okupatzeko emakidetan, baldin eta haien xedea bada eraikin hauetako bat eraikitzea eta ustiatzea: sareak manipulatzeko eraikinak; tinak edo kutxak garbitzeko instalazioak; izotz-fabrikak; arraina jaso, erakutsi, manipulatu edo saltzeko lonjak; arraina izozteko eta biltegitratzeko instalazioak, eta lanabesak biltegitratu eta konpontzeko sotoak. Emakida eskualdatzen bada edo eraikina eta instalazioak amortizatzeko aurreikusitako denbora amaitzen bada, ez da salbuespena aplikatuko.

Hala ere, portuko jabari publikoa okupatzeko eta erabiltzeko emakidak edo baimenak berekin baldin badakar baimena edo emakida eman duen administrazioak jarduera edo gastu batzuk egin behar izatea, emakidadunak edo baimenaren titularrak hartu beharko du bere gain, oso-osorik, jarduera edo gastu horien ondoriozko kostu ekonomikoa.

7. Onura publikoaren deklarazioa duten irabazi-asmorik gabeko entitateei salbuespena aplikatuko zaie, baldin eta portuko jabari publikoa okupatzeko eta erabiltzeko baimena baliatuz egiten dituzten jarduerak erabilera ekonomikorik ez badakarte.

Hala ere, portuko jabari publikoa okupatzeko eta erabiltzeko baimenak berekin baldin badakar baimena eman duen administrazioak jarduera edo gastu batzuk egin behar izatea, baimenaren titularrak hartu beharko du bere gain, oso-osorik, jarduera edo gastu horien ondoriozko kostu ekonomikoa.

8. Portuko jabari publikoa titulurik gabe okupatzen edo erabiltzen den kasuetan, aplikatu beharreko kuota baimenei dagokiena izango da, % 100eko gehikuntzarekin.

9. Portuko jabari publikoa okupatzeko edo erabiltzeko gaikuntza-titulua eman zaion merkataritza- edo industria-jarduera egun osotan eteten edo geldiarazten bada, eskatzekoa den tasaren kuota proportziozkoa izango da eten edo geldiarazi ez den jarduera-aldiarekiko, administrazio publikoek onartutako xedapen orokor eta nahitaez bete beharrekoen arabera.

II. KAPITULUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZERBITZUEN ERABILTZAILA ETA KONTSUMITZAILEENTZAKO ERREKLAMAZIO-ORRIAK ESKURATZEAGATIK EZARRITAKO TASA

236. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren zerbitzuen erabiltzaileentzako eta kontsumitzaileentzako erreklamazio-orriak eskuratzea; zerbitzu horien artean daude etxez etxeko zerbitzuak, ikuskizun publiko eta aisialdiko jardueretakoak eta jatetxe eta ostatuetakoak.

237. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zerga-egitate diren erreklamazio-orriak eskuratzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

238. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena erreklamazio-orriak eskuratzen direnean izango da, eta une horretan bertan eskatu ahal izango da tasa ordaintzea.

239. artikulua. Kuota.

Tasaren kuota 7,18 euro izango da erreklamazio-orrien sorta bakoitzeko; sortak 40 orri hirukoitz izango ditu.

XI. TITULUA. LANAREN ETA GIZARTE-SEGURANTZAREN ARLOKO TASAK

I. KAPITULUA. LAN-ARLOAN ATZERRITARREI BAIMENAK ETA BESTELAKO ADMINISTRAZIO-ZERBITZUAK IZAPIDETZEAGATIKO TASA

240. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea lan-baimenak izapidetzea da, non eta ez diren sei hilabete baino epe laburragorako baimenak, bai eta baimen horien luzapenak, aldaketak eta berritzeak ere, lan-harremana Euskal Autonomia Erkidegoan duten edo izango duten atzerritarrentzat.

241. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Tasa honen subjektu pasiboak baimenak ematen zaizkien pertsona fisikoak dira, besteren konturako baimenak izapidetzean izan ezik; kasu horretan, enplegatzaile edo enpresaburu den pertsona fisiko edo juridikoa izango da subjektu pasiboa, etxeko zerbitzuaren sektoreko lan-harremanen kasuan izan ezik, harreman hori partziala edo aldizkakoa izanez gero, kasu horretan pertsona fisiko langilea bera izango baita subjektu pasiboa.

2. Deuseza izango da besteren konturako langileak ezarritako tasa osorik edo zati batean ordaintzea bere gain hartzen duen itun oro.

242. artikulua. Sortzapena.

1. Zergapeko egitate diren administrazio-zerbitzuak ematen diren unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Hala ere, eskabidea egiten den unean eskatu ahal izango da ordainketa.

2. Etxeko zerbitzuko langile partzialen edo aldizkakoen aldeko bizileku-baimenaren eta besteren konturako lanaren kasuan, langileak Gizarte Segurantzaren afiliatzen eta/edo alta ematen duen unean sortuko da tasaren sortzapena.

3. Enplegatzaileak ez dagoenean, bizileku-baimena eta besteren kontura lan egiteko baimena berritzen denean, eta etxeko zerbitzuko langile partzialak edo aldizkakoak direnean, langileak Gizarte Segurantzaren alta ematen duen unean sortuko da tasa.

243. artikulua. Kuota.

Tasa tarifa honen arabera eskatuko da (eurotan):

SEI HILABETEKO EDO HORTIK GORAKO LAN-BAIMENAK

1. Mugaz gaindiko langileentzako lan-baimena.

1.1. Besteren konturako mugaz gaindiko langileentzako hasierako lan-baimena:

a) LGSa halako bi baino gutxiagoko ordainsaria: 203,84.

b) LGSa halako bi edo gehiagoko ordainsaria: 407,71.

1.2. Mugaz gaindiko norberaren konturako langileentzako hasierako lan-baimena: 203,84.

1.3. Mugaz gaindiko langileentzako baimena luzatzea, besteren kontura edo norberaren kontura: 81,54 puntu.

2. Hasierako bizileku- eta besteren konturako lan-baimenatarako lan-baimena:

a) LGSa halako bi baino gutxiagoko ordainsaria: 203,84.

b) LGSa halako bi baino gehiagoko ordainsaria: 407,71.

3. Hasierako bizileku- eta norberaren konturako lan-baimenatarako lan-baimena: 203,84.

4. Sasoiko jardueretarako lan-baimena.

4.1. Sasoiko jardueretarako hasierako lan-baimena:

a) Sasoiko jardueretarako (banakakoak) hasierako lan-baimena: 10,94.

b) Hasierako lan-baimena Jatorrizko Kontratazioko Kudeaketa Kolektiboaren esparruan (langile bakoitzeko): 10,94.

4.2. Sasoiko jardueretarako lan-baimena berritzea:

a) Sasoiko jardueretarako (banakakoak) lan egiteko baimen berritua: 16,40.

b) Jatorrizko Kontratazioko Kudeaketa Kolektiboaren esparruan berritutako lan-baimena (langile bakoitzeko): 16,40.

5. Ikasketengatik, ikasleen mugikortasunagatik, boluntario-zerbitzuagatik edo prestakuntza-jarduerengatik luzaroko egonaldien titularrei besteren kontura eta norberaren kontura lan egiteko baimena ematea: 122,30.

244. artikulua. Salbuespenak.

Tasa horretatik salbuetsita egongo dira Iberoamerikako, Filipinetako, Andorrako eta Ekuatore Gineako herritarrak, sefardiak, jatorrizko espainiarren seme-alaba, biloba eta bilobak, eta Espainian jaioetako atzerritarrak, beren kontura irabazizko jarduera bat, lanekoa edo profesionala egin nahi dutenean.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Ezagutzak eta inguruabar pertsonalak egiaztatze tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira Erregistro Zibilean sexuaren aipamena zuzentzea lortu eta arrazoi horrengatik titulu, ziurtagiri edo agiri berriak egiteko eskatzen duten interesdunak —ezagutzak eta inguruabar pertsonalak egiaztatze tasak lege honen IV. tituluaren aurreikusita daude—.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskadiko Kirol Portuak zuzenbide pribatuko ente publikoaren izaera publiko ez-tributarioa duten ondare-prestazioak (tarifak).

A) Seigarren eta zazpigarren zerrendetako ontziei dagokien tarifa.

1. Aisialdiko nabigazioko azpiegiturak honela katalogatzen dira izaera publiko ez-tributarioa duten ondare-prestazioak (tarifak) likidatze aldera, kontuan hartuta nola ematen diren kirol-amarratzeen kudeaketa-zerbitzuak:

- 1. taldea: portuko zerbitzuetako langileak partekatzen dituzten aisialdiko nabigazioko azpiegiturak.
- 2. taldea: portuko zerbitzu eskusiboa 24 ordutik beherako txandetan ematen duten aisialdiko nabigazioko azpiegiturak; zerbitzu-orduak astean bi edo hiru lanaldi osoren parekoak izango dira, goi-denboraldian salbu, orduan egunero emango baitira.
- 3. taldea: portuko zerbitzuetako langileen zerbitzu eskusiboa 24 ordutik beherako txandetan ematen duten aisialdiko nabigazioko azpiegiturak; zerbitzu-orduak astean hiru lanaldi osoren baino gehiagoren parekoak izango dira, goi-denboraldian salbu, orduan egunero emango baitira.
- 4. taldea: portuko zerbitzuetako langileen zerbitzu eskusiboa urteko egun guztietan eta 24 orduetan ematen duten aisialdiko nabigazioko azpiegiturak.

2. Tarifa honen xedea da kirol-ontziek eta aisialdiko ontziek itsasotik portura iristeko eta esleitu zaien atrakaleku, amarrakaleku edo aingurakalekuan egoteko portuko obrak eta instalazioak erabiltzea. Halaber, tarifaren xedea izango da eskifaia-kideek eta bidaiariek portuko kaiak, pantalanak, lehorreko sarbideak, zirkulazio-bideak eta, baleude, Portuko Agintaritzaren egonlekuak eta harrera-tokiak erabiltzea; halakoetan, eskatzen dituzten berariazko zerbitzuak ordaindu beharko dituzte.

Orobat, tarifa honen xedearen barruan sartuko dira portuko zerbitzuetako langileek emandako zerbitzuak (marineltza-, zaintza- edo administrazio- eta harrera-zerbitzuak), baldin eta dartsenen baldintzek hala egitea eskatzen badute.

3. Hauek izango dira tarifa modu solidarioan ordaindu beharko dutenak:

a) Baimena izanez gero, baimenaren titularra.

b) Titulurik gabeko okupazioetan, ontzi okupatzailearen jabea, enpresa kontsignataria eta ontziko kapitaina edo patroia.

4. Tarifaren sortzapena ontzia portuko zerbitzuguneko uretan sartzen denean izango da. Baimena duten ontzien kasuan, tarifaren sortzapena gaikuntza ematen duen titulua lortzean izango da.

Portuan pasaeran dauden ontziek portura iritsitakoan likidatu beharko dute tarifa, deklaratzeko duten egonaldiaren iraupenaren arabera.

Portuan basea duten ontziek aurretiaz eta ezarritako aldien arabera likidatuko dute tarifa, eta, hala eskatzen bazaie, banku-entitate batean helbideratu beharko dute ordainketa.

5. Tarifaren kuoten zenbatekoa kalkulatzeko, ontziaren guztizko luzera eta gehieneko zabalera biderkatuta ateratzen den azalera (metro karratutan) eta ontziak ainguratuta edo atrakatuta igaro duen denbora hartuko dira kontuan.

6. Tarifaren kuoten zenbatekoak honako hauek dira:

6.1. Ontziek portuko zerbitzuguneko urak baliatzeagatik, eta itsasotik dagokien atrakalekura edo ainguralekura iristeko eta han egoteko portuko obrak eta instalazioak erabiltzeagatik:

6.1.1. Aisialdiko azpiegitura nautikoetan, atrakatzeko T-5 tarifaren zenbatekoa honako hau izango da:

a) 1. taldea

Modalitatea Euro/m2-ko eta eguneko

Administrazioaren gorputz hilik eta ainguratze-trenik gabe:

Tarifa orokorra 0,0463

Tarifa berezia (udan 24 orduetik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da) 0,0633

Administrazioaren gorputz hil edo ainguratze-trenarekin:

Tarifa orokorra 0,1111

Tarifa berezia (udan 24 orduetik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da) 0,1517

Kaiaetan, hesoetan edo antzekoetan atrakatuta:

Tarifa orokorra 0,1111

Tarifa berezia (udan 24 orduetik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da) 0,1517

Pantalanetan atrakatuta:

– Urte osorako edo gehiagorako kontratazioa:

Tarifa orokorra 0,1389

Tarifa berezia (udan 24 orduetik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da) 0,1859

– Urtebetetik beherako aldietarako kontratazioa:

Tarifa orokorra 0,2037

Tarifa berezia (udan 24 orduetik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da) 0,2217

b) 2. taldea

Modalitatea Euro/m2-ko eta eguneko

Administrazioaren gorputz hilik eta ainguratze-trenik gabe:

Tarifa orokorra	0,0592
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,0808

Administrazioaren gorputz hil edo ainguratze-trenarekin:

Tarifa orokorra	0,1517
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,2071

Kaietan, hesoletan edo antzekoetan atrakatuta:

Tarifa orokorra	0,1517
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,1942

Pantalanetan atrakatuta:

– Urte osorako edo gehiagorako kontratazioa:

Tarifa orokorra	0,1740
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,2376

– Urtebetetik beherako aldietarako kontratazioa:

Goi-denboraldia (30 egun baino gehiago maiatzetik irailera)

Tarifa orokorra	0,2974
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,3808

Behe-denboraldia (30 egun baino gehiago urritik apirilera)

Tarifa orokorra	0,2217
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,2838

c) 3. taldea

Modalitatea Euro/m2-ko eta eguneko

Administrazioaren gorputz hilik eta ainguratze-trenik gabe:

Tarifa orokorra	0,0622
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,0850

Administrazioaren gorputz hil edo ainguratze-trenarekin:

Tarifa orokorra	0,1517
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,2071

Kaietan, hesoletan edo antzekoetan atrakatuta:

Tarifa orokorra	0,1517
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,1942

Pantalanetan atrakatuta:

– Urte osorako edo gehiagorako kontratazioa:

Tarifa orokorra	0,1859
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,2428

– Urtebetetik beherako aldietarako kontratazioa:

Goi-denboraldia (30 egun baino gehiago maiatzetik irailera)

Tarifa orokorra	0,2974
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,3808

Behe-denboraldia (30 egun baino gehiago urritik apirilera)

Tarifa orokorra	0,2217
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,2838

d) 4. aldea

Modalitatea Euro/m2-ko eta eguneko

Administrazioaren gorputz hilik eta ainguratze-trenik gabe:

Tarifa orokorra	0,0809
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,1105

Administrazioaren gorputz hil edo ainguratze-trenarekin:

Tarifa orokorra	0,1942
Tarifa berezia (udan 24 ordutik beherako txandetan zerbitzu gehigarriak dituzten portuetan aplikatuko da)	0,2651

Kaietan, hesoletan edo antzekoetan atrakatuta: 0,1932

Pantalanetan atrakatuta:

Urte osoko edo gehiagoko kontratazioa: 0,2428

Urtebetetik beherako aldietarako kontratazioa:

Goi-denboraldia (30 egun baino gehiago maiatzetik irailera)	0,3808
Behe-denboraldia (30 egun baino gehiago urritik apirilera)	0,2838

e) Iragaitzazko ontzientzako atrakalekuak:

Modalitatea Euro eguneko

8 metro arteko luzera duten itsasontziak:

-Ekainetik irailera:	15,39
-Apiriletik maiatzera:	15,39
-Urritik martxora:	15,39

8 metrotik 10 metrora bitarteko luzera duten itsasontziak:

-Ekainetik irailera:	25,29
-Apiriletik maiatzera:	20,18
-Urritik martxora:	15,91

10 metrotik 12 metrora bitarteko luzera duten itsasontziak:

-Ekainetik irailera:	35,60
-Apiriletik maiatzera:	28,40

-Urritik martxora: 22,38

12 metrotik 14 metrora bitarteko luzera duten itsasontziak:

-Ekainetik irailera: 46,43

-Apiriletik maiatzera: 37,04

-Urritik martxora: 29,19

14 metrotik gorako luzera duten itsasontziak:

-Ekainetik irailera: 66,63

-Apiriletik maiatzera: 53,17

-Urritik martxora: 41,91

Euro/m2-ko eta eguneko

Pantalaneko atrakalekuak, finger gabe:

-Ekainetik irailera: 0,8467

-Apiriletik maiatzera: 0,6322

-Urritik martxora: 0,4172

6.1.2. Ontzia instalazio finko batean (lehorrari atxikitako obra zibila) edo instalazio flotatzaile batean amarratzea edo atrakatzea kaian atrakatzearen pareko izango da, baldin eta instalazioak ontziak bereizteko fingerrik ez badu, eta ez badago ez ur- ez argindar-zerbitzurik.

6.1.3. Bandaz banda jarrita dauden ontziek —dela kaian edo pantalan flotatzailean saiheska atrakaturiko ontzien alboan, dela bandaz banda jarrita dauden beste barku batzuen alboan— 6.1.1 apartatuan ezarrita dagoen kuota orokorraren % 50eko murrizketa izango dute.

6.1.4. Ontzia ainguratuta edo atrakatuta dagoen gunek metro bat baino gutxiagoko zingoa badu —dagokion portuko gehieneko itsasbehera bizi ekinokzialetik (GIBE) neurtuta—, kuota orokorraren % 25eko murrizketa aplikatuko zaio ontziari.

Gainera, baldintza hauek bete behar dira:

– Ontziaren guztizko luzera 6 metro baino laburragoa izatea.

– Motorraren potentzia 25 HP baino txikiagoa izatea.

Murrizketa horiek ez zaizkie aplikatuko pantalanetan atrakatuta dauden ontziei, ezta seigarren edo zazpigarren zerrendako ontzi baten baino gehiagoren jabe direnei ere.

6.1.5. Portuaren kanpoaldea edo portuaren ondoko aldea erabiltzen duten ontziek, baldin eta portuko zerbitzuak hurbil izateagatik edo erabiltzeagatik onuraren bat ateratzen badute, 6.1.1 apartatuan ezarritako kuotaren % 60ko murrizketa izango dute, eta murrizketa hori bateraezina izango da artikulua honetan jasotzen den beste edozeinekin.

6.1.6. Pentsiodun egoeran dauden ontzien jabeek ez dute tarifa hori ordaindu beharko. Salbuespen hori aplikatzeko, pentsiodun direla egiaztatu beharko dute, dagokion erakunde ofizialaren ziurtagiriaren bidez, eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak diren urteko diru-sarrerak justifikatu beharko dituzte, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitortpenaren kopia aurkeztuz. Era berean, atrakatzea eskatu zaion ontziaren arabera legez eska daitekeen nabigazio-titulua aurkeztu beharko dute.

Salbuespen hori ez zaie aplikatuko seigarren edo zazpigarren zerrendetan erregistratutako ontzi bat baino gehiagoren jabeek, ez eta gehienez ere sei metroko luzera duten edo motorraren potentzia 50 HP baino handiagoa duten ontziei ere.

Halaber, onura publikokotzat deklaraturako irabazi-asmorik gabeko erakundeak, ontzi historikoen eta horien erreprodukzio berezien jabe badira, tarifa hori ordaintzetik salbuetsita egongo dira. Salbuespen hori aplikatzeko, itsasontzia Ontzi eta Itsasontzi Historikoen Erregistroan eta horien erreprodukzio berezietan inskribatuta dagoela egiaztatu beharko dute.

6.1.7. Bai ainguratzea eta bai atrakatzea Portuko Administrazioari eskatu behar zaizkio. Hala egin ezean, pantalanean atrakatzeak kuota izango da sortzapena, eta % 100eko gehikuntza izango

du; horrez gain, zehapena jartzea ere egongo da, indarrean dauden xedapenak hausteagatik.

Kuota hori ordaintzeak ez du kentzen ontzia desatrakatzeko betebeharra, amarralekuz edo ainguralekuz aldatzekoa edo, areago, portutik ateratzekoa, agintaritza eskudunak beharrezkotzat jo eta hala agintzen badu.

6.1.8. Desatrakatzeko edo atrakalekuz aldatzeko agindua jaso duen barkuak maniobra horiek atzeratzen baditu, agintaritza eskudunak ezartzen dizkion zehapenez gain —halakorik bada—, beste zenbateko hauek ere ordaindu beharko ditu:

– Lehenengo hiru egunetako bakoitzagatik edo frakzioagatik: dagokion kuotaren zenbatekoa, % 50eko gehikuntzarekin.

– Gainerako egun bakoitzagatik: dagokion kuotaren zenbatekoa, % 100eko gehikuntzarekin.

6.1.9. Tarifa hau ordaindu behar duten ontziak T-1 tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

6.1.10. Baimenaren titularrak Portuko Administrazioari jakinarazten badio aldi baterako ez duela okupatuko bere amarralekua, Portuko Administrazioak baimena eman ahal izango du plaza hori beste batek okupa dezan aldi batez.

Kasu horretan, amarratze-baimenaren titularrari hobari bat aplikatu ahal izango zaio, eta hobari hori dagokion ekitaldiaren amaieran ordainduko zaio, ordainketa bakar baten bidez. Berriz alokatzearen hobariagatik egingo den urteko ordainketak ezingo du gainditu amarratze-baimenaren titularrak ordaindutako T-5 amarratze-tarifaren urteko zenbatekoaren % 80.

6.2. Uraren eta energia elektrikoaren zerbitzuak eskura izateagatik:

6.2.1. Kuota aurreko 6.1 paragrafoan ezarritako tarifaren eta koefiziente honen arteko biderkaduraren emaitza izango da:

Uraren eta energia elektrikoaren hargunea: 0,014.

Kontzeptu horrengatik ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa (betiere aurreko koefizientea aplikatuta ateratzen den zenbatekoa txikiagoa bada): 20 euro urtean.

6.2.2. Urez eta energia elektriko hornitzeko portu-instalazioen erabilera tarifa honen likidazioa kontuan hartu gabe likidatuko da, eta uraren eta energia elektrikoaren hornidurari dagokion tasan ezarritakoaren arabera.

6.3. Baimenaren titularrak jakinarazten badu ez duela bere amarralekua aldi batez okupatuko, Administrazioak baimena eman ahal izango du plaza hori beste ontzi batek okupa dezan.

Kasu horretan, amarralekuaren titularrari hobari bat aplikatuko zaio tarifaren hurrengo likidazioan, bigarren okupazioagatik ordaindutako zenbatekoaren % 60koa.

B) Aparkatzeagatik ezarritako tarifa.

1. Tarifa honen xedea da ibilgailuak aparkatzeko portu-zerbitzua ematea EAEko portuen zerbitzuguneetan.

2. Tarifa modu solidarioan ordaindu beharko dute aparkatzeko zerbitzuaren onuradunak edo baimenaren erabiltzaile titularrak eta ibilgailuaren jabeak.

3. Tarifaren sortzapena ibilgailua portuko aparkaleku-gunean sartzen denean izango da. Baimena duten pertsonen kasuan, tarifaren sortzapena gaikuntza ematen duen titulua lortzean izango da.

4. Tarifaren kuoten zenbatekoa kalkulatzeko, portuko aparkaleku-gunean igarotako denbora hartuko da kontuan.

Baimena duten pertsonen kasuan, tarifaren kuoten zenbatekoa kalkulatu da aparkaleku-zerbitzua erabiltzeko baimenaren beraren arabera.

5. Ibilgailuak aparkatzeko zerbitzua arautzea agintzen den portuetan, kuotak honako hauek izango dira:

5.1. Oro har:

5.1.1. Portuko jarduerekin zerikusia duten egoiliarren eta erabiltzaileen ibilgailuak:

- Donostia: 70,68 euro urtean.
- Beste portu batzuk: 23,17 euro urteko.

5.1.2. Portuko jarduerekin zerikusirik ez duten gainerako erabiltzaileen ibilgailuak:

- Ibilgailu arinak: 1,11 euro orduko edo zatikiko, gehienez 10,93 euro eguneko.
- Ibilgailu astunak: 3,29 euro orduko edo zatikiko, 32,80 euro eguneko gehienez ere.

Ibilgailuak aparkatzeko zerbitzua arautzen den portuetan, kuota hauek ordainduko dira:

5.1.3. Portuko amarratzaileek lehentasunez erabiltzeko aparkalekuak dauden kirol-portuetan, honako zenbateko hauek kobratuko dira aparkaleku-zerbitzua erabiltzeko baimenagatik:

- Getaria, Bermeo eta Mutrikuko portuetan: 70,68 euro urtean.
- Donostia, Hondarribia eta Orioko portuetan: 99,22 euro urtean.
- Iragaitzazko edo pasoko amarratzaileen ibilgailuetarako: 5,56 euro eguneko.

5.2. Portura sartzeko txartela egiteagatik edo, galdu edo hondatuz gero, txartela ordezteagatik:

- Txartel magnetikoa: 42,93 euro.
- Txartel ez-magnetikoa: 7,57 euro.

5.3. Gaizki aparkatutako ibilgailuak kentzeagatik: 59,69 euro.

C) Uraren eta energia elektrikoaren hornidurari dagokion tarifa.

1. Tarifa honen xedea da urez eta energia elektrikoaren hornitzeko portu-instalazioak erabiltzea; izan ere, atrakatze- eta amarratze-zerbitzuak hartzeaz batera, nahitaezkoa da ura eta energia elektrikoa hartzea.

2. Hauek izango dira tarifa modu solidarioan ordaindu beharko dutenak: ontziaren jabea, baimenaren jabe titularra, itsasontziaren enpresa armadorea, ontzi-konpainia, eta ontziko kapitaina edo patroia.

Itsasontzia kontsignatuta badago, ordezeko subjektu pasiboa izango da itsasontziaren enpresa kontsignataria.

3. Tarifaren sortzapena tasa honen sortzapenaren une berean izango da: itsasontziek edo ontziek portuko zerbitzuguneko urak baliatzeagatik eta itsasotik atrakalekura eta ainguralekura iristeko eta han egoteko portuko obrak eta instalazioak erabiltzeagatik ezarritako tasa. Tarifa eta tasa batera likidatuko dira.

4. Tarifaren kuoten zenbatekoa kalkulatzeko, eskuratutako unitate kopurua hartuko da kontuan, kontagailua dagoen kasuetan. Bestela, honela kalkulatu da: ontziaren guztizko luzera eta gehieneko zabalera biderkatuta ateratzen den azalera (metro karratutan) bider ontziak ainguratuta edo atrakatuta igaro duen denbora.

5. Tarifaren kuotak honako hauek dira:

5.1. Ura: 1,88 euro metro kubiko bakoitzeko.

Energia elektrikoa: 0,42 euro kilowatt/orduko.

5.2. Kontagailurik ez badago, uraren eta energia elektrikoaren kontsumoagatik kuota 0,0205 eurokoa da m²-ko eta eguneko.

Kontsumoa karenatze-arloan egiten bada, kuota 14,56 eurokoa da eguneko

D) Portuko jabari publikoaren okupazio pribatiboagatik eta erabileragatik ezarritako tarifa.

1. Tarifa honen xedea dira portuko jabari publikoaren okupazioa eta erabilera, barnean hartuta haren lurgaina eta lurpea.

2. Hauek ordaindu beharko dute tarifa:

a) Emakida edo baimena izanez gero: emakidaduna edo baimenaren titularra, hurrenez hurren.

b) Titulurik gabeko okupazioa izanez gero: okupatzailea.

3. Tarifaren sortzapena une hauetan izango da:

a) D) letra honen 2.a) apartatuan aipatzen den kasuan, emakidaren edo baimenaren tituluak ematen direnean, eta urte bakoitzeko urtarilaren 1ean, emakidak edo baimenak urtez urte izango dituen indarraldietan.

b) D) letra honen 2.b) apartatuan aipatzen den kasuan, okupazioa gertatzen den unean.

Sortzapenaren unean likidatuko da tarifa. Emakidak eta baimenak urtebeterako edo gehiagorako ematen direnean, aurretiaz likidatuko da tarifa, urte bakoitzeko urtarilean.

4. Tarifaren kuoten zenbatekoa kalkulatzeko, portuko jabari publikoan okupatu den azalera (metro karratutan neurtuta) eta okupazioaren iraupena hartuko dira kontuan.

5. Tarifaren kuotak honako hauek dira:

5.1. Emakidak.

5.1.1. Oro har, hauek dira tarifaren kuotak:

a) Azalera eraikigabea: 13,40 euro/m²/urte.

b) Azalera eraikia: 26,75 euro/m²/urte.

c) Aisialdiko nabigazioko erabilera duten portu-eremuetako azalera eraikia: 7,38 euro/m²/hilabete.

a) eta b) kasuetan, % 25eko koefiziente murriztailea ezarriko da portu hauetan:

- Armintza.

- Deba.

- Ea.

- Elantxobe.

- Lekeitio.

- Mundaka.

- Mutriku.

- Orio.

- Plentzia.

- Zumaia.

c) kasuan, berriz, % 65eko koefiziente murriztailea ezarriko da portu hauetan:

- Armintza.

- Deba.

- Ea.

- Elantxobe.

- Mundaka.

- Mutriku.

- Ondarroa.

- Orio.

- Plentzia.

5.1.2. Emakidaren xede diren instalazioak lurpean egon eta eragozpenik sortzen ez badute lur

gainean aske zirkulatzeko, azalera eraikigabearen okupazioari dagozkion kuotak aplikatuko dira, % 50eko murrizketarekin. Lurpeko kanalizazioetan, gutxienez 1 m² zenbatuko da kanalizazioko metro lineal bakoitzeko.

5.1.3. Okupazioaren xedea bada portu-jardueraren prestazioarekin zuzeneko loturarik ez duten merkataritzako edo industriako jarduerak garatzea, 5.1.1 apartatuan ezarritako kuotak aplikatuko dira, % 50eko gehikuntzarekin.

Nolanahi ere, gehikuntza hori % 20koa izango da, Hondarribiko portuko kirol-nabigazioko eremuetako merkataritza-erabilera duten azalera eraikiak direnean.

5.1.4. Emakidaren xede den lokala hornituta dagoenean eta bertan gauzatuko den merkataritza- edo industria-jarduerarako beharrezkoak diren tresnak eta makinak barne hartzen dituen, 5.1.1 apartatuan ezarritako kuota aplikatuko da, % 125eko gehikuntzarekin.

5.1.5. Okupazio berean 5.1.2 eta 5.1.3 apartatueta aipatzen diren egoerak gertatzen badira, apartatu bakoitzari dagozkion kuoten batezbesteko aritmetikoa egingo da.

5.1.6. Emakidaren xedea ur-eremu jakin bat okupatzea denean, kuotak azalera eraikigabeari dagozkionak izango dira.

5.1.7. Emakidaren xedea sareak manipulatzeko eraikinak badira, edo tinak edo kutxak garbitzeko instalazioak, izotz-fabrikak, arraina jaso, erakutsi, manipulatu edo saltzeko lonjak edota izozteko instalazioak, azalera eraikiaren okupazioari dagozkion kuotak aplikatuko dira, % 50eko murrizketarekin.

5.1.8. Emakidaren lehenengo urtean, eskatzekoa den tarifa-zenbatekoa proportziozkoa izango da urte horretako iraunaldiarekiko; hortaz, aurreko apartatuen arabera zenbatekoari dagokion hainbanaketa ezarriko zaio. Era berean, emakidak indarrean irauten duen azken urtean ere aplikatuko da hainbanaketaren irizpide hori.

5.2. Baimenak:

Baimena denean, zenbateko hauek aplikatuko dira:

5.2.1. Merkataritza- edo industria-jarduera batean aritzea:

a) Portuko jarduerekin lotutakoa: 0,285748 euro/m²/eguneko.

b) Portuko jarduerekin zerikusirik ez dutenak: 0,560896 euro/m²/eguneko.

5.2.2. Merkataritza- edo industria-jarduera batean aritzea: 0,285748 euro/m²/eguneko.

5.2.3. Zehazten diren biltegiatze-eremuetan espazioak okupatzeko edo erabiltzeko baimena denean, tarifaren zenbatekoak kuota orokorraren % 50eko murrizketa izango du.

5.2.4. Baimena energia elektrikoaren eta uraren hargunea barne hartuta ematen denean, 14,56 euroko kuota gehigarria aplikatuko da eguneko

5.3. Emakidei edo baimenei dagozkien tarifen zenbatekoak urtero berrikusiko dira, lege bidez onartutako portuko tarifen eguneraketaren arabera.

Lehenago esleitutako emakidak eta baimenak, baldin haien tituluan prezioak berrikusteko klausula badago, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera berrikusiko dira, klausula horrek lege hau aipatzen badu edo kontsumoko prezioen indizea ez beste adierazle bat aipatzen badu; aldiz, klausulak kontsumoko prezioen indizea aipatzen badu, indize horrek izandako aldakuntzen arabera berrikusiko dira.

5.4. Emakidak edo baimenak esleitzeko lehiaketetarako deialdiak egiten badira, aukera egongo da lizitatzailerek, tarifa honetarako ezarritako zenbatekoen gain, zenbateko gehigarriak eskaintzeko, eta hori baldintza-agirietan jasoko da, ebatzeko irizpideen artean. Eskaintako zenbateko gehigarriak, tributu izaerarik ez dutenez, ez daude aurreko 5.3 apartatuan aurreikusitako eguneratze-araubidearen menpe.

5.5. Baimenaren xedea kirol- eta jolas-ekitaldiak egitea denean, tarifaren zenbatekoa proportziozkoa

izango da ekitaldi-egunean benetan okupatutako orduetako; hortaz, artikulua honen aurreko apartatuen arabera zenbatekoari dagokion hainbanaketa ezarriko zaio. Ondorio horietarako, lurralde-ordetzaritzako langileek bidalitako aktan zehaztutako diraren benetako okupazioaren hasiera-ordua eta amaiera-ordua.

6. Toki-korporazioei salbuespena aplikatuko zaie emakidetan eta baimenetan, baldin eta ez badituzte irabazi-asmoz ustiatzen, ez beren kabuz, ez hirugarrenen bidez.

Arrantzaleen kofradiei eta ekoizleen antolakundeei salbuespena ezarriko zaie portuko jabari publikoa okupatzeko emakidetan, baldin eta haien xedea bada eraikin hauetako bat eraikitzea eta ustiatzea: sareak manipulatzeako eraikinak; tinak edo kutxak garbitzeako instalazioak; izotz-fabrikak; arraina jaso, erakutsi, manipulatu edo saltzeko lonjak; arraina izozteko eta biltegiratzeko instalazioak, eta lanabesak biltegitatu eta konpontzeko sotoak. Emakida eskualdatzen bada edo eraikina eta instalazioak amortizatzeko aurreikusitako denbora amaitzen bada, ez da salbuespena aplikatuko.

Hala ere, portuko jabari publikoa okupatzeko eta erabiltzeko emakidak edo baimenak berekin baldin badakar Euskadiko Kirol Portuak enteak jardura edo gastu batzuk egin behar izatea, emakidadunak edo baimenaren titularrak hartu beharko du bere gain, oso-osorik, jardura edo gastu horien ondoriozko kostu ekonomikoa.

7. Onura publikoaren deklarazioa duten irabazi-asmorik gabeko entitateei salbuespena aplikatuko zaie, baldin eta portuko jabari publikoa okupatzeko eta erabiltzeko baimena baliatuz egiten dituzten jarduerak erabilera ekonomikorik ez badakarte.

Hala ere, portuko jabari publikoa okupatzeko eta erabiltzeko baimenak berekin baldin badakar Euskadiko Kirol Portuak enteak jardura edo gastu batzuk egin behar izatea, baimenaren titularrak hartu beharko du bere gain, oso-osorik, jardura edo gastu horien ondoriozko kostu ekonomikoa.

8. Portuko jabari publikoa titulurik gabe okupatzen edo erabiltzen den kasuetan, aplikatu beharreko kuota baimenei dagokiena izango da, % 100eko gehikuntzarekin.

9. Portuko jabari publikoa okupatzeko edo erabiltzeko gaikuntza-titulua eman zaion merkataritza- edo industria-jardura egun osotan eteten edo geldiarazten bada, eskatzekoa den tarifaren kuota proportziozkoa izango da eten edo geldiarazi ez den jardura-aldiarekiko, administrazio publikoek onartutako xedapen orokor eta nahitaez bete beharrekoen arabera.

E) Ontziei zerbitzuak emateagatik ezarritako tarifa.

1. Tarifa honen xedea da ontziek portuan zenbait zerbitzu erabiltzea.

2. Hauek izango dira tarifa modu solidarioan ordaindu beharko dutenak: ontziaren jabea; seigarren eta zazpigarren zerrendetako ontziei dagokien tarifa aipatzen den baimenaren titularra —bigarren xedapen gehigarri honen A) letran jasota dago tarifa hori—, eta ontziko kapitaina eta patroia.

Ontzia kontsignatuta badago, ontziaren enpresa kontsignatarioak ordaindu beharko du tarifa, ordetzeko gisa.

3. Tarifaren sortzapena zerbitzua ematen hasten den unetik aurrera izango da.

4. Tarifaren kuoten zenbatekoak honako hauek dira:

4.1. Itsasontziak travel lift (portiko-garabia) bidez jasotzea eta uretaratzea, guztizko luzera duen metro lineal bakoitzeko:

– 8 metro arteko ontziak: 11,06 euro.

– 12 metro arteko ontziak: 14,13 euro.

– 12 metrotik gorako itsasontziak: 17,27 euro.

Altxatzeko eta uretaratzeko maniobrak lurrean euskarririk behar ez badu eta 30 minutu baino gutxiagoko iraupena badu, tarifaren kuotaren zenbatekoak % 50eko hobaria izango du.

4.2. Luma garabiaren erabilera:

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko porturen batean amarratzeko baimena duten ontziak igo eta uretaratzea:

– 6 metrotik beherako luzera duten ontziak: 67,57 euro.

– 6 metrotik gorako luzera duten ontziak: 70,85 euro.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko porturen batean amarratzeko baimenik gabe ontziak altxatu eta uretaratzea:

– 6 metrotik beherako luzera duten ontziak: 87,84 euro.

– 6 metrotik gorako luzera duten ontziak: 92,10 euro.

Altxatzeko eta uretaratzeko maniobrak lurrean euskarririk behar ez badu eta 30 minutu baino gutxiagoko iraupena badu, tarifaren kuotaren zenbatekoak % 50eko hobaria izango du.

4.3. Egonaldia ontzitegi-eremuan:

– Lehenengo 15 egunetara arte: 0,2096 euro m²-ko eta eguneko.

– 16. egunetik aurrera: 0,3494 euro m²-ko eta eguneko. 251. zk.

Txosten teknikoaren bidez justifikatutako matxuren kasuan, % 40ko hobaria aplikatuko da 16. egunetik aurrera egun bakoitzeko.

Negua igarotzeko ontzitegian egonaldiak eginez gero (irailaren 1etik apirilaren 30era): 0,2096 euro m²-ko eta eguneko.

Metro karratuko azalera zenbatzeko, ontziaren luzera osoa eta gehieneko zabalera biderkatuko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko porturen batean amarratzeko baimena duten ontzien kasuan, igoera-eguna eta hurrengo eguna ez dira zenbatuko ontzitegi-eremuan egoteagatiko kuota kalkulatzeko.

4.4. Luma-garabia erabiltzea osagarriak (motorrak, mastak eta bestelakoak) jasotzeko eta jaisteko maniobretan:

– Lehen ordua edo zatikia: 57,62 euro.

– Hurrengo ordu bakoitza edo zatikia: 28,82 euro.

4.5. Portu-jabariaren erabilera itsasontzia duten edo ez duten atoietarako (ontzitegi-eremutik kanpo):

– Egun edo frakzio bakoitzeko: 10,25 euro.

4.6. Makina hidrogarbitzaile eramangarria erabiltzea:

